

**IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA
MASTER EN ESTUDIOS FEMINISTAS Y DE GÉNERO**

Curso académico 2015-2016 Ikasturtea

Ikerketa lana / Trabajo de investigación

**ANOREXIATIK GORPUTZEN BIRJABETZERA:
Genero arau bitarraren arrakaletatik barrena igarobideak**

Egilea / Autora:

Amaia Lekunberri Ansola

Tutorea / Tutora:

Mari Luz Esteban

Septiembre 2016 / 2016ko Iraila

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
2. ZENBAIT DATU ESTATISTIKO.....	8
3. MARKO TEORIKOA.....	11
3.1. Anorexiaren ibilbide historikoa.....	11
3.2. Gorputza kontrolerako eremu.....	15
3.2.1. Generoa kontrol mekanismo bezala.....	17
3.2.2. Genero desbideraketa gaixotasun gisa.....	18
3.3. Anorexia: gaitzaren eta errebelamenduaren artean.....	21
3.3.1. Argaltasuna edertasun ideal bezala.....	22
3.3.2. Argaltasun muturrekoa estrategia bezala.....	25
3.4. Genero araua auzian.....	30
3.4.1. Emakumea, feminitatearen mandatuen eta ordena maskulinoaren artean trabatuta.....	31
3.4.2. Anorexia eta diskurtso medikoa.....	32
3.4.3. Genero bitarra kolokan.....	37
3.5. Anorexiatik ahalduntze sozialera: birjabetze prozesua.....	39
4. IKERKETAREN HELBURU ETA HIPOTESIAK.....	42
5. METODOLOGIA.....	44
5.1. Erabilitako estrategia, zehaztapan kontzeptual eta teknikak.....	44
5.2. Elkarrizketatuen soslaiak.....	51
6. ANOREXIA BIZIPEN KASUAK.....	57
6.1. Emakume kondizioa: erosotasunaren eta deserosotasunaren artean.....	57
6.1.2. Begiralearen ahotsa barneratzea.....	61
6.1.3. Gorputzen diziplinamendua.....	65
6.2. Anorexia, genero arauan arrakala.....	71
6.2.1. Gorputzaren modifikazioa negoziazio sozial gisa.....	74
6.2.2. Emakume kondizioari errebelamendua.....	76
6.2.2.1. Anorexia, gudu zelaian trintxera.....	79
6.2.3. Hasierako askatasuna, geroko kartzela.....	81
6.3. Suspertzea mugarri.....	83

6.3.1. Genero arau bitarraren mugak zeharkatzea estrategia gisa.....	85
6.3.1.2. Norbere identitatearen eraikuntza.....	90
6.3.2. Diskurtso medikoaren hutsuneak.....	93
6.3.2.1. Etiketaren eragina.....	102
6.3.2.2. Gaixo estigmari tirabiraka.....	105
6.3.2.3. Ospitaleratzea zigor gisa.....	106
6.3.3. Autoatentzioa.....	108
6.3.3.1. Martxan jarritako mekanismoak.....	112
6.3.5. Heldulekutzat jotako diskurtsoak.....	117
6.3.6. Janaria, etsaia izatetik ahulune izatera.....	120
7. ONDORIOAK.....	124
8. BIBLIOGRAFIA.....	130

1. SARRERA

Gure garaiotan ematen ari den anorexia kasuen gorakadak inor gutxi uzten du axolagabe. Ia denok daukagu anorexia daukan edo izan duen hurbileko pertsonaren bat, bat baino gehiago ez bada. Baina ia inortxok ez daki ondo zertan datzan erotasunaren etiketarekin estigmatizatutako gaitzak, estigma horrek eragotzi egiten baitu gaiaren bueltan luze, zabal eta inolako eskrupulurik gabe jardutea. Seguru asko ia denoi tokatu izan zaigu gertuko anorexia kasu baten testigu izatea, eta seguru aski kasua eman bitartean zein eman ostean ere gaitzari buruzko hainbat gauza argitu gabe izango ditugu. Tabua dugu gaia, eta inork ez duenez 'buruko gaitz' bezala izendatzen direnei buruz lasai eta libreki hitz egiten, gehienetan jakin nahia morbotik asko eta egiatik gutxi daukaten diskurtsoekin asetzen dugu. Horrela bada, jakin min asegabe horrek anorexiaren gaia iritzi publikoan puri-purian egon ohi den gaia bilakatu ohi du, eta horren erakusle dira 'Elikadura arazoaren kontrako borrokaren Nazioarteko Eguna', medioek gaiari eskainitako tertulia saio amaigabeak, prebentzio kanpainak eta abar luze bat, denak ere berdina esatera datozenak: garaiotako gaitza dela, modaren munduak eragin zuzena duela kasuon hedapenean, edota azkenaldian sarri entzun ahal izan dugun bezala, gizonezkoetan ere geroz eta gehiago ari dela ematen. Lehenengotik datutik hasita azkeneraino, bada zer ikertu eta eztabaidatu anorexiaren inguruko diskurtso nagusi eta hedatuena den horretan.

Ikerketa honekin anorexia kasuen irakurketa soziokultural bat burutzea dut helburu, zeinetan batez ere faktore biologikoetan oinarritzen den diskurtso nagusiari faktore soziokulturalek eragin nabarmena dutelako ideian oinarritzen den diskurtsoa kontrajarri nahi diodan. Horretarako, besteak beste, Susan Bordo (1993), Susie Orbach (2009), Eugenia Gil (2007), Raquel Santiso (2006) edo Paloma Gómez-en (2001) lanen ildotik tira egingo dut. Anorexia kasuen ia gehiengoa emakumezkoetan ematen delako datutik tiraka, honen zergatiak zeintzuk izan daitezkeen ikertuko dut, eta eginkizun horretan ezinbestekoa deritzot aipatu autoreek beraien lanetan darabilten genero perspektibari. Hala ere, genero perspektibaren erabilera egiteko arrazoi horrekin batera ondorengo arrazoiak ere erabakigarriak izan dira erabaki hori hartzerakoan: medikuntza, psikologia eta psikiatriak darabilten genero subjektibitate dualista - femeninoak eta maskulinoak eratzen dutena - gaitza ulertzerakoan traba delako ustea bata, eta adituen iritziek irakurketa sozial eta kulturalean daukaten eraginak anorexiaren feminizazioa emakume generoarean aspektu natural bezala - eta ez egitura heteropatriarkalaren ondorio bezala - hautematea indartzen dutelako ustea bestea. Maria

Zapata-k (2014) emakumeengan ematen diren depresio kasuei buruz egindako lana oso baliagarria izan zait ikerketa era honetan modelatu eta “*gaitzaren agerpenarekin, garapenarekin eta honen errekupeazio aukerekin*” (Zapata, 2014: 6) erlazioa izan dezaketen arrazoioek zehazterako orduan.

Euskal Herri mailara mugatuko dut ikerketa, konkretuki Gipuzkoa eta Bizkaira, eta bizitzan zehar anorexia diagnostikatu izan zaien eta egun anorexia ez daukaten emakumeak elkarrizketatuko ditut. Elkarrizketa horien bidez emakume hauek anorexia diagnosi horren bueltan izandako esperientzia jasoko dut, batik bat 'suspertze prozesu'¹ deitu diodan horretan jarriaz arreta. Suspertze prozesutzat ulertuko da emakume hauek diagnosia jasotzen duten momentutik beraien aburuz anorexia pairatzeari uzten dioten arteko denbora tartea, suspertze hori ondoeza eragiten dion gorputzean gustura bizitzeko estrategia eta taktiken aktibazioan oinarritzen delarik, emaitza bezala errekupeaziotik harago doan gorputzaren birdefinizio eta birjabetze bat lortzen dela ulertuta. Arreta berezia jarriko diot, baita ere, generoari dagokionez ongizatea lortzeko emakume bakoitzak erabilitako estrategia eta taktika multzoari, gorputz propioan bizitzeko ongizatea bermatuko duen subjektibitate baten eraikuntzan esanguratsuak izan daitezkeela uste baitut.

Interes bereziz aztertuko ditut osasun zerbitzu publiko zein pribatuez aparte anorexia pairatu duten emakume hauek berreskuratze prozesuan martxan jarritako beste errekursoak, indibidualak zein kolektiboak izan. Iruditzen zait azaleratu beharra dagoela artatzeko era baliagarri bakarrik ez dela existitzen, modelo mediko hegemoniko²-ak ulertzera ematen duena hori den arren. Ikerketa honetan norbanakoari baliagarri suertatu zaion edozein errekurso baliagarritzat joko da. Ikuspegi honek, gainera, anorexiadun norbanakoa agente aktibo bezala ikuskatzera bultzatzen duela uste dut, modelo mediko hegemonikoak bultzatzen duen pazientearen biktima kondiziotik aldenduaz. Anorexia diagnostikatu zaion emakumea gaitzaren aurrean estrategikoki eta agentzia osoz jarduteko gaitasuna duen norbanako bezala hartuko dut, ez salbatu beharreko izaki babesgabe bezala.

Anorexia bizitzako ahulune edota krisialdi bat bezala interpretatuko dut eta ez gaixotasun gisa, hasieran harrigarria baderitzo ere ondorio horretara iritsi bainaiz. Bizitzako zenbait aspektu zalantzan jarri, beste zenbait irauli, barne gatazkak konpondu eta eraldaketa pertsonal eta sozial esanguratsuak emateko ahulune bezala hautematen dut anorexia. Guzti hau kontutan hartuta, eta

1 Nahiago izan dut 'berreskurapen' baino 'suspertze' hitza erabili, zeinak berreskurapen bat baino zerbait gehiago iradoki nahi duen: nahi eta behar propioen arabera moldatutako gorputz propioaren jabe egitea alegia.

2 Eduardo L. Menéndez-en (2003) terminoa, MMH bezala laburtu ohi duena.

norbanakoak adina kasu daudela jakinda, anorexiaren baitan ematen diren barne gatazkak eta hauek ezinbestean dakartzaten eraldaketa askotarikoak zeintzuk izan daitezkeen eta kasu ezberdinetan bat etortzen ote diren jakiteko parada ezin hobea iruditzen zait elkarrizketena.


Ezin aipatu gabe utzi oso gertutik bizi izan dudana gaia dela anorexiarena, nik neuk ere urte luzeetan zehar pairatu bainuen. Hori horrela, hasieratik azpimarratu nahi dut ikerketa honek ez daukala neutraltasunik, nahiz eta etengabeko autokritika baten eraginpean jardun dudana ikertzen jarduten saiatu naizen momentu oro. Dena den, ikerlari gisa neutro izatea eragozten didan posizio honek kontrako faktoreak dituen era berean, aldeko faktoreak ere badauzka. Aztergaia dudana anorexia neure azalean bizitzeak hein handi batean ikerketa burutzeko zenbait 'pribilegio' edo abantaila ematen dizkit bederen, neure burua anorexiko bezala diagnostikatu zuten momentutik gaur arte neure baitan egindako hausnarketa andanak bidea seinalatu baitidate bizitakoaren azalpen logiko bat eta anorexiaren inguruko diskurtso bat eraikitzerako orduan. Argi geratu bedi beraz ikerketa honek akademikotik bezainbeste daukala pertsonaletik, eta argi geratu bedi, baita ere, bi alderdietako batek bestea ez ezabatzeko konpromisoaz aritu naizela hasieratik amaieraraino. *“Haraway-k azpimarratzen du epistemologia feminista bat egiten denean jarrera zintzo bakarrak inplikatzeko duela, batetik, gutako bakoitzak perspektiba jakin batean kokatuta dagoela ezagutaraztea, eta bestetik, zein perspektibatan gauden zehaztea”* (Villarmea, 1999: 225), eta zintzotasun printzipio horri jarraiki burutzen saiatu naiz ikerketa hau. *“Objektibitate feminista lokalizazio mugatuaz eta jakintza kokatuaz ari da, ez subjektuaren eta objektuaren transzendentziaz eta bitan banatzeaz”* (Haraway, 1991).

Ikerketa-lanari bide eman aurretik eskerrak eman nahi nizkieke lan hau posible bilakatu duten norbanako guztiei: tutore izan dudana Mari Luz Esteban-i jarritako atentzioagatik, emandako aholkuengatik, eta latza izango zela uste nuen ikerketa prozesua ezin atseginago bilakatzeagatik; testigantzak luzatu dizkidaten sei emakumeei, ikerketa lana burutzeko beharrezkoa nuen informazioa eman eta gertatu zaigunaren inguruan hitz egiteko zein bizipenok politizatzeko konfiantzazko espazio eta momentuak eraikitzen laguntzearen, ederra izan da zuok (gehiago) ezagutzea; masterreko ikaskide, irakasle eta koordinatzaileei ikasturtearen zein ikerketaren aldats-goretan bidea eramangarriago egiteagatik; bere garaian feminismora bidea marratu zidaten emakumeei eta behin marrari jarraiki hasita bidelagun izan ditudana guztiei, eredu zarete; anorexia sasoiaren bizi esperientziak eman ohi duen jakituria oraindik urriaz baina intentzio onenekin

helduleku izan nituen lagunei; eta nola ez, beti hor egon diren etxekoei, mundutik desagertzeaz nintzela ahal bezala lagundu eta euskarri izateaz gain, nire barne trumoiak eramaten jakin eta jaurtitako tximistak ahanzturara kondentatzearen.

2. ZENBAIT DATU ESTADISTIKO

Elikadura arazoen, ia beraien osotasunean, emakumei eragiten diete. 'Osasun sare publiko-Osakidetzako osasun mental sistemaren erabiltzaileen soslaiaren inguruko ikerketa'-k argitaraturiko EAEko datuek argitzen dutenez, erregistratutako alta medikoen %91,3 emakumezkoena den bitartean, soilik alden %8,7 da gizonzkoena.³ Ikertutako urte guztietan, emakumeen alta portzentaiak %90a bueltan kokatzen dira. Argi eta garbi, elikadura arazotzat ezagutzen ditugunak genero femeninoaren arazoa dira.



Iturria: Estudio longitudinal sobre el estudio de perfil de usuario-a del sistema de salud mental de la red publica vasca-osakidetza⁴

Elikadura arazoaren feminizazio honek, dena den, beste zenbait faktorez gain, zerkusirik izan dezake EAE mailan 25-64 urte bitartean osasun sistemaren eta, zehazki, eguneko ospitaleen erabiltzaile gehienak emakumeak izatearekin. Jakina baita elikadura arazo deitzen zaien tratamenduek maiz


3 Iturria:

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas/es_def/adjuntos/beca.2012.2.salud.mental.genero.pdf [Azken Kontsulta: 2016/06/11]

4 Iturria:

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas/es_def/adjuntos/beca.2012.2.salud.mental.genero.pdf [Azken Kontsulta: 2016/06/11]

barnebiltzen dituztela eguneko ospitaleak, tratamenduan dabiltzan norbanakoak jatorduak egin ohi baitituzte bertan. 2013ko EAEko osasun inkestak azaleratu dituen datuen arabera, 65 urtetik gorako populazioan gainjartzen zaizkie gizonak emakumeei eguneko ospitaleen erabilerari dagokionez⁵. Ordura arte, 15-24 urte bitarteko tartean salbu, emakumeak dira eguneko ospitaleen erabiltzaile nagusi. Hirugarren adina da konstante honi buelta ematen dion faktorea.



Iturria: 2013ko EAEOI Euskal osasun inkesta⁶

Anorexia kasuak zenbakitan

Anorexia pairatzen duten norbanakoen %90a emakumezkoa da, portzentaia aski altua gaitza genero arazoa dela ondorioztatzeko. 90. hamarkadaren amaieran jada Carme Valls-Llobet-ek (1996: 57) aipatu zuen honen intzidentzia 1000 pertsonako 0,24tik 1,6 arterakoa zela, nahiz eta populazio taldeen araberrako desberdintasunak ematen ziren. Klase ertaineko nerabeei zegokienez, 100etik 1ek

5 Iturria:
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas/es_def/adjuntos/beca.2012.2.salud.mental.genero.pdf [Azken Kontsulta: 2016/06/11]

6 Iturria:
http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/encuesta_salud_publicaciones/es_escav13/adjuntos/DatosRelevantes_ESCAV2013.pdf

anorexia pairatzen zuen. IMA Fundazioak argitaratutako datuen arabera berriz, %11ak arriskuan jartzen dituen sintomak ditu (2013: 6).

EAE-Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez eta Angel Padierna Acero-k (1996: 68) 1996an plazaratutako datuekin dionaren arabera, 14-18 urte arteko adin tartean anorexia kasuen zenbatekoa %1ekoa da. Portzentaje hori gaur egungo 14-18 urte arteko populaziora estrapolatuz gero, bakarrik adin tarte horretako anorexia prebalentzia gutxi gora-beherakoa 804 kasukoa da, 1996an baino gehiago. Kasuen gorakada hori kontutan hartuta, 1996an EAEko anorexia kasuen intzidentzia 10.000 biztanletik 3-5 kasukoa bazen, gaur egun intzidentzia horrek altuagoa izan behar duela ondorioztatzen da.

Berreskuratze zenbakiak

Anorexia kasuak betikotzeko tendentzia handia daukate, soilik diagnostikatutako *kasuen %57a* (Madruga, Leis eta Lambruschinni, 2010: 337) errekuperatzen baita (errekuperazioa termino medikoetan ulertuta, masa korporal indizearen arabera egokia den pisu egonkor bat izatea alegia). Errekuperazio portzentaje horrek barnebiltzen ez dituen kasuei dagokienez, suposatzen da betikotzeko joera hartuko dutela, %5-9ko hilkortasun tasaren mehatxupean.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. Anorexiaren ibilbide historikoa

Anorexiari buruz hedatuen dagoen diskurtsoak jateari uko egitea aro modernoko gaitza dela dioen arren, badira literatura historikoan baieztapen hau okerra dela adierazi dezaketen zenbait datu. Datuok frogatzen, anorexia kasuak denbora luzean ematen ari direla ulertzera ematen dute, elikadura arazoak gaixotasun berriak direlako ideia aski zabaldua gezurtatuaz. “*Elikadurarekiko jokaera hauek noski, garaiaren arabera, nolakotasun eta balorazio ezberdinekin azalduko zaizkigu*”⁷ (Santiso, 2006: 9). Nolakotasun eta balorazioen bueltan ibilbide historikoan zehar ematen diren aldaketa horiek giltzarri ditugu ulertzeko nola “*jarrera bat era ezberdinetan interpretatua izan daitekeen marko sozial eta kulturalaren arabera, gaur egun elikadura arazo deitzen dugunaren eraikuntza sozial eta kulturala jasota utziaz*” (Santiso, 2006: 39). Interesgarria litzateke beraz, aipatu jarrerak zein momentu historikotan, nolako jendartearen baitan, eta zer nolako balore kulturalen eraginpean eman izan diren ulertzeko, 'Anorexia Nerbiosoa' bezala izendatu denaren errebaso historiko bat egitea literaturak gaiaren bueltan jasota utzi digunaren bueltan, eta horretarako gehienbat Raquel Santiso-k (2006) eta Paloma Gómez-ek (2001) egindako berrikuspenak erabiliko ditut erreferentzia nagusitzat. Denboran atzerako ibilbide honek elikadurarekiko jarrera hauek nola ulertu eta etiketatuak izan diren erakusteaz gain, hauen aurrean zein jarrera eman diren aztertzeraz bultzatzen gaitu.

Hipocrates de Cos-ek (k.a. 460-377) idatzirik ageri dira, Santiso-k (2006: 9) azaltzen duen legez, jatekoari uko egiten dioten norbanakoei buruzko lehen narrazioak 'Corpus Hipocratum' deituriko irakaspen mediko helenikoen bilduma batean. Hala ere, ezin daiteke ziurtatu bilduma honetan dokumentatuta ageri diren norbanako horien kasuak eta egun 'anorexia nerbiosoa' kasu bezala identifikatzen ditugunak parekoak direnik, apetitu falta zergati askoren ondorioa izan baitaiteke.

I. mendeko Erroma dugu adierazgarri, baita ere, anorexiarekin lotura daukaten kasuei dagokionez. Paloma Gómez (2001: 89) medikuak adierazitakoaren arabera, bazen garaiotan Metronoma izeneko greziar mediku bat zeinak garai horretan emakumeek gehienbat pairatzen zituzten gaixotasunei

⁷ Lan honetan azalduko diren eta euskara ez den beste hizkuntza batzuetatik eratorritakoak diren zita guztiak neuk itzulitakoak dira.

buruz idatzi zuen. Gazteei eskainiriko bere lanaren atalean anorexiarekin antza gordetzen duen sintomatologia koadro bati buruz hitz egiten du, zeinaren zantzu printzipala hilerokoa galdu eta argaltasun muturreko bat lortu arte jateari uko egitea den, ahiduraz hiltzeraino sarri. Sintomatologia koadro horri 'Sitergia' hitza eman zion medikuak, grezieraz 'elikagaiari errefusa' esatera datorrena. González-ek eginiko irakurketek diote garai horietako emakume erromatarrak inposatutako ezkontzaren aurkako errebelamenduan aritu zitezkeela argaltasun muturreko horiek gorpuztuaz. *“Emakume asko emazte eta ama bilakatzeko patu biologikotik libratzen ahalegindu ziren”* (Santiso, 2006: 10). Elikatzeari uko egitea edozein emakumek eskura zeukan errebelatzeko forma izanik, ez da harritzekoa estrategia honek izandako hedapen zabala.

Sitergia delakoa atzean utzita, Erdi Arora eta Errenazimendu garaiotara salto egin behar dugu dokumentatutako hurrengo anorexia kasuekin topo egiteko. Trótula de Salerno Erdi Aroko medikua izen zen lehenengotarikoa *“jateari uko egiten dioten emakume nerabeak bilatzen zutena haurrak sortzeko funtziotik libratzea zela azpimarratzen, nahiz eta hau idatzi zuen garaian sexu femeninoarenganako errespetu eta kontsiderazioa honen funtzio ugaltzaileari lotuta zegoen”* (Gómez, 2001: 90). Jateari utziaz amatasun paper biologikoa betetzera ukatzen ziren emakume hauek, pribilegioen galerara ez ezik, estigmatizatuak izatera zein heriotzara arriskatu ziren. Kasu hauek kristautasunaren sorrerarekin bat eman izana esanguratsua da oso. Izan ere,

emakume birjina emakume ezkondua baino gehiago baloratzen duen doktrina berri honen bermeaz, gure aroko lehen mendeetako emakumeak aurrez aurre topo egin zuen, bat-batean, bere duintasun ezetik eta gutxiagotasunetik libratzeaz batera gizonarekiko zeukan sumisio egoera ohikotik askatzeko aukera; nahikoa zuen horretarako bere sexualitate femeninoari eta gorputzaren itxura sexualari uko egitea (Gómez, 2001: 90).

Horrela bada, V-XVI mendeen bitartean emakume ugari praktika aszetikoei lotzen zaie, baraua barne. Praktika aszetiko hauek gaixotasun gisa hartzetik urrun, aukera jainkotiar bezala irakurriak izan ziren. Jateari uko egiten zioten emakume gazte kristau hauek miresmena eragin ohi zuten miraritzat jo ziren barauekin. 'Anorexia Santua' bezala izendatu dira kasuok.

Santiso-k Rudolph Bell (1985) aipatzen du Anorexia Santuaz hitz egiterakoan, zeinak bere **Holy Anorexia** lanean 261 santu italiarren biografiak biltzen dituen, denak ere gaur egun anorexia deitzen

diogunaren diagnostikoa betetzen dutenak. Autore horrek aztertutakoaren arabera, 'Anorexia Santua' deiturikoak 1500 urte inguruan izan zuen garairik gorenena. Honek ondorioztatu du emakume santifikatu hauek euren emakume kondizioari zegokionez beraietaz espero zenari alternatiba bat aurkitzeko ahaleginean erabili zezaketela anorexia: erromatar emakumeak nola, elikatzeari uko egiteak ezkontzarako desegoki bilakatzen zituen, beraien gorputzei emakume ezaugarriak ezabatzen baitzizkieten. Anorexiaren santifikazio horretatik barauaren kriminalizaziora pauso bakarra egon zen oster, elikagaiak ukatzearen jarrera sutera kondenatzeko adinako deabrukeriatzat jotzen hasi baitzen inkisizio garaian.

XVI - XVIII mendeen bitartean, azaltzen du Gómez-ek, medikuntzaren historialari Petr Skraban-ek anorexiaren 'sekularizazioa' bezala izendatu duena eman zen, zeinetan anorexiak komentutik burgesiaren etxeetara salto egin zuen. Ordurako jateari uko egiten zioten emakumeak santu bezala ikuskatzeari utzi zitzaionez gero, anorexia kasu hauek gertutik zelatatuak izan ziren elizgizon, fisiko zein neurologoengatik. Emakume hauen barau jarrera benetakoa zen ala ez egiaztatzeko pertsona aditu egokiena zein litzatekeen haztatzen hasi ziren jendartearen baitan sinesmena eta arrazoia borrokan zebiltzan momentu honetan. Arrazoia sinesmenari gailentzen joan zitzaion, “*jendartearen medikalizazio prozesu luze bati hasiera emanaz*” (Santiso, 2006: 11). XIX mende amaierara, medikuntzak gaixotasun mentalen multzoan sailkatuko du anorexia.

Autoritatean emandako aldaketa horrek, dio Santiso-k Brumberg-i (1988: 8) aipamena eginez, medikuntzaren lengoia eta ideologiaren dominazioa ekarriko zuen gizakiaren jarrera azaltzerako orduan. Anorexiadun emakumeak santu izatetik gaixo izatera igaro izanak lotura hertsia du gertaera historiko horrekin. Honek agerian uzten du Gómez-ek (2001: 94) azpimarratzen duena: “*Anorexiaren manifestazio tipikoekin, garaiaren eta bizi duen testuinguru kulturalaren arabera, emakume gazte bat gaixotzat, mistikotzat, sorgintzat zein herejetzat joko da*”.

Anorexia kasuak historiaren etiketapean gordeko dira XVIII eta XIX mendeen bitartean, XIX. mende bukaeran zientzia biomedikoak eta psikiatria jendartearen kokatu arte ez delarik sortuko 'anorexia nerbioso' terminoa. “*Nahiz eta anorexia nerbioaren lehen deskribapen klinikoa Monton-i esleitzen zaion – medikuntzaren historia ofizialarentzat anorexiaren lehen deskribapena den honek ez du inolaz ere kontutan hartu Metrodora, Trotula de Salerno eta beste zenbaiten deskribapenak- eta 1689. urtean kokatzen den, koadroari 'Ahuleria nerbiosoa' izena emanaz, ez zen*

jaio anorexia nerbioso terminoa XIX. mendearen bigarren erdialdera arte, jatorri psikologikoduna eta argaltze organikoengandik ezberdindua azken azken hau. Mende honen gogo sailkatzailearen emaitza bezala sortu zen” (Santiso, 2006: 19).

Gaixotasunaren lehen deskribapen klinikoak Lasègue-k eta Gull-ek mamitu zituztela aipatzen du Santiso-k, bigarren honek eman ziolarik 'anorexia nerbioso' izena koadroari. *“Bai Lasègue-k zein Gull-ek emakumeen naturaltasun irrazionala, batez ere gazteena, erabili zuten beraien argumentu zientifikoak sostengatzeko”* (Santiso, 2006: 19). Izan ere, anorexia nerbiosoaren eragile izan zitekeen jatorri organikorik aurkitu ez zutenez gero, eragileak emakume horien egoera psikikoetan behar zutela egon ondorioztatu zuten. Santiso-k (2006: 19) Contreras eta Gracia-ri (2005: 335) aipamen eginez azaltzen duenaren arabera, medikuon arreta psikera lekuz aldatzeak diskurtso medikoak anorexiaren jatorri psikologiko eta kultural bat onartzea ekarri zuen, biek ere anorexia klase burgesarekin lotzen amaitu baitzuten, Lasègue-k lehen aldiz erabili zituelarik testuinguruaren ezaugarriak eta garaiko baloreak gaitzaren eragile bezala. Gómez-en arabera, azken honi dagokio anorexia koadroa betetzen duten norbanakoak gogoz kontra ospitaleratzeko formula terapeutikoa.

Laségue Frantziako Zoroetxeetako Inspektore Jenerala eta Pariseko Polizia Prefekturako medikua zen. *“Kargu hauek Laségue XIX. mendeko psikiatriaren eta poliziaren artean eraturiko erlazio modeloen ordezkari bilakatzen dute”* (Gómez, 2001: 101). Gómez-ek azaldu bezala, Laségue-ren postura erabakigarria da epaileak jendartean bizitzeko gai edo ezgai den norbanakoa zein den erabakitzerako orduan, ezgai bezala hautematen dena kartzelan edo zoroetxean giltzaperatuko dutelarik. *“XX. mendean, Estatuaren begietara, praktika psikiatrikoaren oinarrizko egikaritza ez da osatzea baizik eta pazientea legalki ezgaitzea eta giltzaperatzea. Mediku militarra alde batera, zoroetxeko psikiatra bilakatzen da Estatuaren lehen mediku funtzionario, ordena patriarkalaren ordezkari zintzoa”* (Gómez, 2001: 102). *“Zoroetxeetako medikuak hiru instantzian oinarrizten ziren: agintea, autoritatea eta zigorra. Errepresioa, menderakuntza eta zigorra izan zen 'anorexia nerbioso' zeukaten pazienteek jasotako tratua terminoa ezarri zenetik aurrera. Honekin hasten da anorexia nerbiosoaren psikiatrizazioa”* (Santiso, 2006: 20). Tratu autoritario eta zigortzaile honek indarrean jarraitzen du gaur egungo anorexia tratamenduetan ere. Detalle hau adierazgarria da anorexia kasuak, nolabait, ordena soziala mehatxatzen dutela ondorioztatzerako orduan, koadro sintomatologikoa betetzen duten norbanakoak giltzaperatzeak ez luke bestela zentzurik. Azken finean, elizgizonaren paper autoritarioa medikuaren eskuetara pasatzean *“emakumeak moralki*

gaixotzat jotzen zituen arrazonamendu erlijiosoa arrazonamendu biomedikoagatik ordezkaturia izan zen" (Wolf, 1991: 289), eta arrazonamendu horrek ordena sozial patriarkala mantentzea du helburu. Ez da harritzekoa, beraz, emakumearen nolakotasuna gutxistean oinarritzen den arrazonamendu biomedikoak emakumeei eragiten dizkien gaixotasunak tratatzeko baliaezina izatea. Emakumea berez gaixotzat jotzen duen arrazoiketak nekez luzatu diezaioke ongizatea beroni.

XX. mendean anorexiaren agerpena zerbait berria balitz bezala aurkeztu izan bada ere, ibilbide historiko honek erakusten du 'anorexia nerbioso'-aren sintomatologia ez dela hain berria, fenomenoaren nolakotasunak garaian garaiko testuinguru soziokulturalaren aldaketak pairatu izan dituen arren. Aldaketok, medikuntzaren autoritate berriarekin ez ezik, jendartean emandako aldaketekin eta aldaketa hauek emakumeengan eragindako ondorioekin lotura hertsia daukate. Testuinguru historiko, sozial, ekonomiko eta kulturalaren aldaketa horiek emakumeengan izandako eragina aztertzea ezinbestekoa dugu anorexiaren afera bere osotasunean ulertzeko.

3.2. Gorputza kontrolerako eremu

Anorexia bezalako gaitzen kasuan, zeinaren jatorriak oinarri multikausalak dituela argi geratu den, gaitzaren iturria eremu biologikotik harago bilatu beharra dugu, problematikaren iturri posibleak esparru soziokulturalean aurkitu baitituzakegu. Simone de Beauvoir-en aforismo famatuan oinarrituz (emakumea ez da emakume jaiotzen, bilakatu egiten da), Susie Orbach-ek gorputza ere egin egiten dela iradokitzen du ***La tiranía del culto al cuerpo*** (2009) lanean. Autorearen arabera ezin uler dezakegu gorputza soilik naturak baldintzatutako zerbait bezala, hezten gaituztenek gorputz naturala tratatzen duten eraren ondorio bezala baizik. "*Segurutzat jotzen dugun gorputzaren existentzia ez da ez naturala, ez purua, baizik eta konta ezineko praktika kultural txikiengatiko mendekotasunak eratutako eta izendatutako gorputza*" (Orbach, 2009: 22). Garai historiko ezberdinek testuinguru soziokultural eta ekonomiko ezberdinak ekarri ohi dituztenez, momentu historiko ezberdinetan gorputza ezberdin hauteman, bizi, ulertu, eraiki eta izendatzen dela ondorioztatu daiteke honekin, momentu historikoaren arabera gorputza izendatzen duten praktika kultural txiki eta askotariko horiek nolakotasun ezberdinak izango baitituzte. Baina nolakotasunak nolakotasun, garai historiko ezberdinetan jendartearen talde konkretu berberak sintomatologia multzo berbera pairatzeak ematen du aztarnarik garai ezberdin horietako jendarte guztiek denboran mantentzen den nolakotasun bat badaukatela ondorioztatzeko, zeinak emakumezkoen populazioaren

baitan kalteak eragiten dituen.

“Sozializazio prozesuan, – dio beste autore batzuk aipatuaz Esteban-ek bere *Antropología del cuerpo* (2004: 70) liburuan – *hau bizitza osoa barne hartzen duen zentzu zabal batean ulertuta (Del Valle, 1992/93), gorputza bizi dugun jendartearen arau eta aginduen arabera eraiki eta modelatzen da*” (Bernard, 1985). Jendartean emakumearen figurari arau multzo konkretu batzuk betetzea exijitu bazaio (zaintza lanak, erreprodukzioa, lanaren banaketa sexuala), eta arau horiek emakumeak gizonen menpe egotera kondenatzen badituzte, emakumeen gorputza ordena patriarkal baten arabera sozializatzen dela baieztatu dezakegu. Denboraren igaroan mantendu izan den ordena patriarkal horrek anorexiarekin zerikusia zuzena duela azpimarratzera datoz hainbat ikerketa.

Aro modernoaren sorrerarekin batera jendarteak iraganarekin haustura bat bizi izan zuen, eta mundua aldatu egin zenez gero, errealitatea ulertzeko era berri bat nagusitu zen. Aldaketa honen eraginez azaldu ziren “*politika ikuspuntu teoriko batetik taxutzeko kontzeptu eta kategoria sorta. Kontzeptu sorta horren baitan batzuk oinarritzeko dira bai emakumeen aferaren aldekoentzat, bai honen kontrakoentzat, eta gaiaren inguruan sortuko den eztabaida sakonaren inguruan biek ere euren tesia eraiki eta defendatzeko erabiliko dituzte*” (Perona, 1994: 26). Aro modernoak eragindako sekularizazio ideologikoaren ondorioz imajinario kolektiboarentzat jainkoak gizakiaren gainean izandako boterea jendartearena izatera pasatzen da, eta botere hori nola banatu erabakitzea honi dagokio. Sekularizazio horrek “*garai hartan indarrean zeuden maskulinitate eta feminitate idealengan eragina izan zuen*” (Aresti, 2001: 17) arren, emakumeen figurari dagokionez honen ikusmolde tradizionalaren mantenua, ordura arte elizari lotua, zientziaren interes nagusienetakoa bilakatu zen. Jendartean jainkoarena izandako boterea nola banatu erabakitzerako orduan “*osagai berri eta erabakigarriena emakumearen gutxiagotasunari buruzko teoria zientifiko sorta baten aurkezpena izan zen*” (Aresti, 2001: 17). Erabakitze horretan emakumeari boterea eskuratzeko aukera ukatu zitzaion beste behin ere, emakumeak berezko zeukaten irrazionaltasun batek funtzio sozialak egikaritzea eragozten ziela aitzakiatzat. Emakumeen nolakotasun biologikoak ugalketa funtzioarekin duen lotura zuzena medio, emakumea naturari hertsiki lotuta dagoen izakitzat jo izan zen. Aro moderno honen baitan, jendarte antolamendu berria zehazterako orduan, emakumeak naturarekiko duen lotura hori erabili zen hau irrazionaltzat aurkezteko, sozialki inolako funtziorik betetzea ahalbidetuko zion arrazoirik ez zeukan izaki bezala. Emakumeen menpekotasuna arrazoitzen duen optika determinista honen bidez, emakumeen naturalizazio sozialari bide eman eta

kolektibo oso bat arrazoi biologikoak gaitik sozialki baztertua izan zen.

Arrazoa eta arlo soziala bere esparru bezala markatu zituzten gizonezkoak, emakumeak natura eta irrazionaltasunera motzean lotuaz. Horrela bada, jendartea bitan – gizonezkoak eta emakumezkoak-zatitzen da argi eta garbi, ezberdintasun biologikoak erabiliko direlarik talde bakoitzari funtzio eta portaera jakin batzuk esleitzeko. Genero araua, beraz, ordena hori mantentzeko giltzarri bilakatzen da. *“Ordena sozial, ekonomiko, politiko eta zientifiko hau – gizarte kapitalista, burges eta koloniala – nahiz eta hierarkikoa eta ezberdintasunean oinarritutakoa izan, natural gisa aurkeztua eta eboluzionismo sozialaren zein aurrerapenaren nozioaz legitimatua izan zen”* (Esteban, 2006: 11). Aldaketa hauekin batera, azaltzen du Esteban-ek, Michael Foucault-ek 'biobotere' izenez izendatu duen botere eta dominazio sistema berria eratzen da, gorputzean eta biologian inskribatzen dena. Honek hurrengo ondorioztatzera garamatza: zientzia ezberdinen diskurtsoek boterea darabilte gorpuzten ganean eta gorpuzak *“gizarte-erregulazio eta kontrolerako lehentasunezko leku”* (Esteban, 2013: 172) bilakatu dituela, kontrol horrek ordena soziala mantentzeko xedez norbanakoen portaerak erregulatzen dituelarik. Erregulazio horrek bizitzako esparru guztiak barnebiltzen ditu, lana zein sexualitatea, besteak beste, guztiz baldintzatzen dituelarik. Generoa ezinbesteko faktorea da erregulazio horren mantenuan.

3.2.1. Generoa kontrol mekanismo bezala

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna ez da kontu biologiko bat, biologiaren antolaketa sozialarena baizik. Isabel Benlloch eta Amparo Campos-ek (1999), hainbat autore erreferentziatzen harturik diotenaren arabera,

sexuen arteko ezberdintasunen analisisian, generoak kulturarekiko bereizketa erlatiboa sartzen du, 'izan behar' sozial bat bezala definitu daitekeelarik, gizonezkoak eta emakumezkoak ezberdin izan behar diren formen eta okupatu behar dituzten eremu sozialen arabera definizio soziokulturaletan oinarritutako kategoria. Kategoria soziala izate horrek esan nahi du 'a priori' ez dela existitzen genero espezifikoki dagokion ezaugarri edo jokamolderik, baizik eta, kontrara, inskripzio kultural bat izanik gorpuzak hitz egiteari ekiten dion eta botere posizio ezberdinak esplizitu egiten dituen genero asimetriak inskribatzen diren tokia bezala azaldu daitekeela (Hurtig eta Pichevin, 1991; Martínez

Benlloch, 1993; Russo eta Green, 1993; in Benlloch eta Campos, 1999: 56).

“*Generoak, ideal erregulatzailerik bezala ulertuta, emakumeak eta gizonak nolakoak diren baino nolakoak izan behar duten informatzen du*” (Benlloch eta Campos, 1999: 57). Beraz, gaur egun, generoa, garena baino gehiago, egiten duguna bezala ulertzen badugu, emakume edo gizon sentitzea prozesu korporal bat bezala ulertu beharra daukagu (Stolcke, 2003; in Esteban, 2008: 139). Emakume zein gizon izatea mugitzeko, hitz egiteko, janzteko edo sentitzeko era konkretu batekin hertsiki loturik dago. Sexu biologikoaren arabera diren eta naturalizat jotzen ditugun jokamoldeak, genero-identitatea alegia, naturala baino gehiago kulturala bada ere, identitate hori zerbait naturala bailitzan barneratzen eta erreproduzitzen dugu. Jaiotzen garen momentutik, sexu biologikoaren interpretazio baten arabera identitate bat luzatzen zaigu, eta sozialki espero da gure gogoak gorputz aurrez estereotipatu horietara egokitzea. María José Barral Morán-ek hurrengoa azaltzen du:

jaiotzerakoan giza espezieko kumeen garuna beste espezie batzuen baino gutxiago garatuta dago, eta horregatik giza garunaren jaiotze osteko garapena inguruaren eraginetara loturik dago inguru horretara erraz eta azkar moldatzeko aukera eman eta giro horretan gure buruak betetzen duen tokia naturalizat onartzera heltzea ahalbidetzen digularik, giroa gizon edo emakume gorputzen arabera dikotomizatutakoa delarik (Barral, 2001: 164).

Testuinguru kultural jakin horretara egokitzapenak guztiz baldintzatzen du bizi dugun jendartean beteko dugun tokia eta izango dugun jarduteko era. Gure esperientzia goiztiarrek gorputzak era jakin eta erregulatzailerik batean moldatzen dizkigute, biobotereak izango duelarik erregulazio horren gidaritza. Diskurtso biomedikoek gizon edo emakume bezala gorputzu beharreko normarekin bat datorrena arrunt gisa joko du, baina zer gertatzen da, ostera, norbanako batek sexu batekin loturiko gorputz horren eta genero identitatearen artean harmoniarik aurkitzen ez duenean? Zer gertatzen da generoaren mandatu erregulatzailerik deserroso sentiarazten dituzten norbanakoekin?

3.2.2. Genero desbideraketa gaixotasun gisa

Esteban-ek (2004: 73) idatzi du gorputzen itxura eta generoa azterketa puntu izan dituzten zenbait

ikerketaren arabera frogatu izan dela gizonezkoei gorputza indartsu izateko eta lanerako manipulatzeko irakatsi zaiela, edertasun kanon maskulinoaren punturik garrantzitsuenak gizonezkoaren indarra delarik (Martínez Benlloch, koord., 2001, 34 orr.) eta emakumeen kasuan ostera, gorputz irakaspenaren helburu printzipalak erreprodukzioa eta sedukzioa direla.

Manipulazio ezberdindu horrek emakumeen gorputza jendartearen etengabeko begiradapean kokatzen du, gizonezkoaren gorputzak espresio izan beharrean tresna izan behar duenez gero honek emakumeak kaltetzen dituen edertasun arauen, janzteko moden, etengabeko konponketa beharraren, argaltzeko zein loditzeko dieten, kirurgia estetikoaren eta abarren ondorioak ez dituelarik era berean jasaten (Dostie, 1988, 81; in Esteban, 2004: 73).

Autore ezberdinen arabera – jarraitzen du Esteban-ek azaltzen – gizonek aspektu funtzionalei lotutako gorputzaren ideia holistiko bat duten bitartean, emakumeek gorputzaren funtzioari baino arreta gehiago jartzen diote formari eta “*bere buruaren ikuskera zatikatua daukate, beraien gorputza era zatikatu batean begiratu eta zati ezberdin horiek kanon kulturaletara egokitzen ahalegintzen direlarik*” (Martínez Benlloch, koord., 2001; in Esteban, 2004: 73).

Generoaren araberako *gorputz-lana*⁸ ezberdina denez gero, emakumeei eta gizonei munduan egon eta mugitzeko era ezberdinak erakusten zaizkie, eta ezberdintze horretan “*munduari begiratzeko eta munduaz ohartzeko modu zehatzak bultzatuko dira, gizarte ordena politiko eta ekonomiko zehatza sustatuz*” (Esteban, 2013: 174). Eugenia Gil-en (2007: 42) ustez, generoaren araberako estereotipo horiek parekotasunik eza indartzen dute (in: Cobo 1995: 67) eta ezberdintasun sexual horien gainean egikaritzen da Pierre Bordieu-k 'biolentzia sinboliko' gisa izendatu duena. Gil-ek azaltzen duenaren arabera, Bordieu-ren biolentzia sinboliko hau ikusezina eta sumaezina da biktimen begietara, eta honen bitartez menderakuntza erreproduzitzen duen errealitatearen definizio bat inposatzen da, izan ere biolentzia sinbolikoaren erabilera gai da, sozializazio prozesuaren bidez eta pertsonen desiretan sartuz, izatez sinesmen ideologikoak direnak ezaugarri propio eta espontaneo bezala barneratu arazi eta mundu sozialaren errepresentazioa jakin bat inposatzeko. “*Biolentzia*

8 Termino hau Maria Luz Esteban-i hartu diot (2004: 122) eta izatez Loïc Wacquant-ena (1995: 73) da, zeinak boxeolariekin egindako lanean erabiltzen duen. Gorputz-lana, Estebanen hitzetan (2013: 174), *organismoaren manipulazio intentsiboa litzateke, pertsonarengan jarrerak, mugimendu-errutinak eta emozio eta kognizio egoera subjektibo zehatzak eragiten dituena, zeinaren bidez gorputz eremua berrantolatzen baita, organo eta gaitasun batzuk beste batzuei gailenduz eta gorputzaren zentzuaz gain organismo osoaren kontzientzia eraldatuz; eta horrekin batera, munduarena.*

sinbolikoaren egikaritza gailu ideologikoen bidez egiten da” (González de Chávez, 1999: 95), emakumeei dagokienez gailu horiek amatasuna edota maitasun erromantikoa izan daitezkeelarik. González de Chávezen aburuz horrela emakumeak familia eta etxeko esparrua bere 'gune naturaltzat' jotzen dute eta esparru horretako kideen beharrianak bere eginbehar eta desira bilakatzen amaitzen dute.

Sozializazioan jasandako biolentzia sinbolikoaren eraginak sortzen ditu genero araua goitik behera betetzen dituzten eta naturaltzat jotzen diren gorputzak, emakume eta gizon genero dikotomia araututik zertxobait desbideratzen den gorputza antinaturaltzat jotzen delarik. Nolakotasun biologikoen bidez xedatu diren arauen arabera sexu maskulinoak ezaugarri batzuk baditu eta femeninoak beste batzuk, arau horiek betetzen ez dituen gorputzak desbideratze bat duelako ideia gailentzen da arrazoi nagusi gisa. Ospitaleak, Foucault-ek adierazi bezala, jendartearen eta norbanakoaren kontrola eta erregulazioa xedatzen duten instituzioetako bat izanik, desbideratze hori gaixotasun gisa sailkatzen du. Izan ere, ospitaleko jardun erregulatzailerak maneiatzen duen diskurtso medikoak, zeinak 'nukleo generiko'⁹ gisa klase ertain-altuko gizonezko heterosexual zuria daukan, nukleo generiko horrek jendartean betetzen duen toki pribilegiatutik aztertuko du genero arauaren desbideratze hori. Gizonezko heterosexual zuria antolamendu politiko eta sozialaren figura pribilegiatuena izanik, ezaugarri horiek betetzen ez dituzten norbanakoek ez daukate honen menpeko posizioa onartu beste biderik desbideratu edo gaixotzat etiketatuak - eta ondorioz estigmatizatuak eta zigortuak - izan nahi ez baldin badute. *“Emakumeek, sozialki presio gehiago jasaten dutenez gero, arazo gehiago daukate beraien gorputz eta garunetik erlazioari dagokienez, bietatik batek ere ez baitu gizakiaren modelo unibertsalarekin bat egiten”* (Barral, 2001: 163).

Horrela bada, ez da harritzekoa naturaltzat jo diren baina eraikiak diren desberdintasun sozial horiek eragin negatiboak izatea botere harreman horren baitan azpian egotea tokatu zaienen artean. Ordena patriarkal baten baitan gehienbat emakumeek pairatzen dituzten gaitzak ematen badira beraz, lotura zuzena egin dezakegu desparekotasunean oinarritutako ordenamendu sozialaren eta ordenamendu horretan azpian egotea tokatu zaienen ohiko arazoen artean. Anorexia bezalako gaitzak, beraz pairatzen dutenen ia-ia guztiak emakumezkoak direla kontutan hartuta, natural bezala barneratu arazi zaigun eta emakumeak azpiratzen dituen genero arau horrek eragindako ondorearen

9 Teoria edo ikerketa guztiek erdigunetzat jotzen dutenari deitzen zaio nukleo generiko, gizona edota zuria dena eta guztientzat norma bezala azaltzen dena Bordo-ren hitzetan (1993).

erakustaldi bezala irakurri ditzakegu diskurtso biomedikotik at begiratu eta prisma soziokultural batetik so egin ezker. Egitura politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak barnebiltzen duen genero arteko botere harremanetan betetzea tokatu zaien mendeko posizio horren ukapen gisako erakustaldia bezala hauteman daitezke anorexia kasuak, genero desbideraketa gisa alegia.

3.3. Anorexia: gaitzaren eta errebelamenduaren artean

Kulturak anorexia kasuengan daukan eragina nabarmena da, eta azalpen biologikoen bilaketa modelo medikoari leialtasun bezala ulertu daiteke soilik (Bordo, 1993: 35). Dena den, anorexia kulturak eragindako gaitza bada ere, Bordo-rekin bat nator gorputza ez dela kultura berarengan inskribatzeko zain dagoen arbela dioenean, beraz anorexia ez da besterik gabe norbanakoaren gorputzean inskribatzen den zerbait. Autoreak dio eredu medikoak subjektuak arbela pasibo bezala ulertzen dituela, zeinetan arazoa inskribatu egiten den. Inskripzio hori deszifratzea, orokorrean, arazoaren eragilea zein den zehaztera mugatzen da. “*Analisi feministarentzat oster, anorexiadun gorputzak, gorputz oro bezala, esanahien sorkuntza prozesu batean murgildurik dabilen gorputz-lanean dihardu*” (Bordo, 1993: 67). Medikuntzak ez bezala, analisi feministak ez du gorputz-lan hori itzulerarik edo berreskurapen aukerarik gabeko prozesu bezala ulertzen, ezta ere modan egoteko kulturak jaurtikitako baloreen doktrinamendu gisa. Bordo-rekin bat eginez, muturreko argaltasunaren bilaketa gehiago da zenbait balore bereganatu eta berez eta irismen handiz hitz egingo duen gorputz bat sortzeko ahalegina. Honi jarraiki, anorexia gaixotasun bezala ordeztu 'izatearen-krisialdi'¹⁰ edota ahulune bat bezala ulertu daiteke, anorexiadun norbanakoak hasten duen gorputz-lanaren baitan geraleku saihestezin gisa.

Sarritan emakumeek beraien itxura era nahiko murriztaile batean lantzeko jarduna diskurtso hegemonikoen eragin zuzenaren menpe eta indarrean dauden arauen menderakuntza bezala ulertzen da, pertsonak edertasunaren industriaren eta merkatuaren legeen menetara dauden izaki pasiboak bailiran (Esteban, 2004: 75). Esteban-ek (2004: 75) Effie Plexoussaki-rekin (1996) bat egiten duen bezala, ni ere ados nator itxura lantzeko era murriztaile hori soilik indarrean den diskurtso dominantea itsuki jarraitze hutsa izan beharrean, norbanakoek beraien itxura lantzearekin batera jendartean daukaten tokia negoziatzen dabiltzalako ideiarekin. Itxuraren lanketa era honetan ulertzeak gorputzok agente aktibo bezala ulertu eta norbanako hauek munduan jarduteko gaitasuna

¹⁰ Termino hau Karen Way autoreari hartu diot (1993: 19), zeinaren iritziz anorexia bizi duten emakumeek izatearekiko krisialdi bat bizi duten.

duen pertsona bezala definitzera garamatza. Beraz anorexia pairatzen duen gorputza, diskurtso biomedikoak esan ohi duenaren kontrara, ez da biktima hutsa, gorputzaren bidez estrategia propioak martxan jartzeko gaitasuna duen agente aktiboa baizik. Muturreko argaltasuna bilatzen duen estrategia aski zabaldu horri politikoezia deritzot gaitz hutsa balitz bezala ulertzeko. “*Anorexia, azken finean, deklarazio ideologiko bilakatzen da, eta gose greba nola, era batera edo bestera, presio politikoa egiteko neurria da*” (Gómez, 2001: 109) .

3.3.1. Argaltasuna edertasun ideal bezala

“*Zibilizazio forma bakoitzak berarekin dakar gorputzarekiko harreman partikular bat. Kultura bakoitzean edertasuna lortzeko baldintza batzuk inposatzen dira, praktika edo manipulazio korporal hauek benetako tortura izatera iritzi daitezkeen arren sozialki onartuak izateko ezinbestekoak direlarik*” (Santiso, 2001: 224). Guk bizi dugun jendartean, emakumeei dagokienez, hauen edertasunari, gaztetasunari eta argaltasunari berebiziko garrantzia ematen zaie, edertasun kanon horren barruan sartzeko presioak pisu ikaragarriaz eragiten duelarik populazio femeninoaren baitan. Emakumeei zuzenduriko kanon estetiko hau ez da beti berbera izan ostera, ideal honek XVIII. mendean egiten duelarik agerpena. Esan beharra dago, “*ideal hau, ororen gainetik, gizonak gizonarentzat xedaturikoa dela*” (Santiso, 2001: 225). Neuk ere, aurrera jarraitu aurretik, beharrezkoa deritzot Santiso-k azpimarratutako Lourdes Ventura-ren gogoeta orriotara ekartzeari:

Botere maskulinoek inposatutako arau estetikoenganako emakumeen sumisioa eta emakumeen gorputzarekiko (eta honen mamu sexualarekiko) gizonezkoen etsaitasuna eta mesfidantza itxuren historiaren gibelean daude. (Ventura, 2000: 30; in Santiso, 2001: 225)

XVIII eta XIX mendeen bitartean kokatu behar dugu gaur egungo edertasun idealaren sorrera. Naomi Wolf-ek bere *El mito de la belleza* (1991) lanean azaltzen duen bezala, irudian eta emakumearen edertasunean eragiten duten inposizio kulturelek aldaketak jasan zituzten momentu historiko honetan. Autoreak

edertasunaren mitoa bezala izendatu duena tokia irabazten joan zen familiaren lan unitatea apurtzen zioan heinean, eta urbanizazioak eta fabriken agerpenak domestizitate esfera banandu bat eskatu zuten (...) klase ertaina hedatu, heziketa eta bizi maila igo, familiaren

tamaina txikitu, eta hezibide oneko eta denbora libre ugariko emakume klase berri bat azaldu zen, zeintzuen menderakuntza lortu beharra zeukan garapen betean zegoen sistema kapitalista industrialak (Wolf, 1991: 18).

Ordura arte etxeko lanetan entretenituta egondako emakume horien denbora libre nola kontrolatu beharra zegoenez, edertasunaren mitoak ordura arteko mirabearen mistika femeninoaren tokia hartu zuen emakume populazioaren artean zabaltzeko eta kontrol soziala gauzatzen jarraitzeko. Mitoa mistika femeninoaren antzerako ideologia kontsumista bilakatu zen, emakumeak etxetik kanpo eraman zezakeen neurosi gisako bat. Mirabe ona bilakatzeko xedea emakume ederra bilakatzekoagatik aldatuta, emakumeen helburua orain edertasuna eskuratzea zenez, berdina zuen hauek etxetik atera izanak: edertasuna eskuratzearen helburu irrealak entretenituta eta kate kontsumoari lotuta mantentzen zituen, energia ederrak izatetik harago joan zitezkeen helburuetara bideratzea ekidinez. Edertasunaren mito honek izan ditu ordutik aldatutakoak, gero eta gorputz argalagoetarako tendentzia markatua hartuaz. Hau ez da harrizkoa kontutan hartzen badugu edertasun desiratuak helmuga finko bat izan ezkerreko emakumeak helmuga horretara behin helduta energia beste kontu batzuetara bideratu zezaketela. Ordena sozial honen zaindarien, hori gertatu ez dadin, eskura dauzkaten mekanismo guztiak (publizitatea, kirurgia estetikoaren industria, ...) erabiltzen dituzte emakumeak kanon estetiko horretara hurbildu ahala hau pixka bat gehixeago gogortzeko.

“Edertasunaren mitoa honetan oinarritzen da: 'edertasuna' deitzen zaion ezaugarri horren existentzia unibertsala eta objektiboa da. Emakumeek hau pertsonifikatzea izan behar dute xede eta gizonezkoek pertsonifikazio hori lortu duten emakumeak edukitzea jo behar dute helburutzat” (Wolf, 1991: 15). Wolf-ek guzti hau sinetsarazi diguten gezurra besterik ez dela adierazten du, 'edertasuna' urre-patroiaren antzerako sistema monetarioa dela azpimarratuz. *“Edozein ekonomia bezala, politikak baldintzaturik dago, eta egun, mendebaldean, dominazio maskulinoa ukiezin mantentzeko sistema berri eta eraginkorrenetakoa da”* (Wolf, 1991: 16). Honen funtzionamenduak, autorearen arabera, kulturak inposatutako arau fisikoen arabera hierarkia bertikal baten baitan emakumeari balioa ematean datza. Eta hau erlazio botereen adierazpen argi bat da, emakumeak era antinatural batean lehiatu behar baitute gizonezkoek beraien buruari esleitu dioten baliabideengatik. Beraz, Wolf-ekin bat etorriaz, edertasunaren mitoa emakumeena baino gehiago gizonezkoen kontua da, mitoak lotura zuzena baitauka beraien pribilegioak eta boterea mantentzeko aferarekin.

Jendartearen ordenamendu patriarkalaren zaindarien edertasunaren mitoak itsuturiko emakumeak nahi ditu, kontsumoaren katea elikatze haina indar - ez gehiago - izatea ahalbidetzen dien argaltasunarekin. Edertasunaren mitoaren atzean ezkutatu den aginpidea ez da kanonak jaurtikitzen digun itxura izatera heltzea, jarrera jakin bat barneratu eta erreproduzitzea baizik, gizonezkoen boterearentzat mehatxagarria ez den jarrera alegia. “*Emakumearen liraintasunarekiko obsesio kultural bat ez da emakumeen edertasunarekiko obsesio bat, hauen obedientziagatiko obsesioa baizik*” (Wolf, 1991: 241).

Burgesiako emakumeak nola begiratzen zaien behatzen dutelako John Berger-en adierazpen profetikoa¹¹ transmutatu egin da eta egun emakumeak behatzailearen ikuspuntua bereganatu dute, beraien burua kanpotik begiratu eta gure kultura bisual, nonahiko eta limurtzaileak exijitzen diena betetzeko ahaleginetan nola etengabe kale egiten duten ohartuz (Orbach, 2009: 129).

Emakumeak behatzailearen ikuspuntua barneratu izanak beraien bizitzako harreman guztiak baldintzatzen ditu, bai gizon eta emakumeen artekoak zein euren buruarekin dauzkatenak. Behatzailearen ikuspuntu hori bereganatzeak zelatatuak direlako ideia barneratu arazi die, eta begirada horren pean behatzaileak – hau da, gizonezkoak – agintzen duena egiten dute. Ohartzeke, gizonezkoen nahiak beteaz, “*'eder' ez beste ezer bilakatu dira gizonezkoen kulturaren, honek maskulinoa izaten jarraitzeko aukera izan dezan*” (Wolf, 1991: 76). Edertasun huts bilakatuta, gorputza esleitu zaie gogoaren truke, sistema patriarkalak ez baititu bertute biak - edertasuna eta adimena – batera esleitzen emakume gorputz berarentzat. Emakumeak ordena sozial maskulino honetan errespetatua izan nahi baldin badu ederra behar du izan, eta ederra izateko inteligentzia sakrifikatza behartuta ikusten da, xede horrek kontu intelektualetara bideratu zezakeen energia xurgatzen baitio. Kontrako kasuan, inteligentziaren ordean edertasuna sakrifikatzen duen emakumeari ez zaio errespeturik erakutsiko, gizonezkoen neurriera eraikitako gizarte honetan tokia egiterako orduan trabak jarriko zaizkiolarik. Izan ere, logika patriarkalaren arabera, emakumeak jendartean duen tokia hertsiki lotuta dago edertasunaren esparruarekin. Soilik horrela uzten dio

11 John Berger arte kritiko, pintore eta idazleak 'Ways of seeing' (1972) lanean adierazi zuen ikustea ez dela ekintza neutrala, eta kontrara, botere-harremanak eta kontrola barnebiltzen dituela. Kultura patriarkalaren baitan, beraz, gizonezkoen ikuspegia gizonezkoek emakumeen gaineko kontrola edukitzeko forma bat da. “Gizonek emakumeei begiratzen diete. Emakumeak begiratuak ikusten dira. Honek ez ditu emakume eta gizonen arteko erlazio gehienak determinatzen soilik, emakumeek beraien buruekin dauzkatenak ere bai. Emakumeak bere baitan daraman inspektorea gizonezkoa da (...). Beraz, bere burua ikuskizunaren objektu bilakatzen du: espektakulu bat.” (Berger, 1972: 46)

emakumeak mehatxagarri izateari gizonezkoen begietara, edertasun eskuraezin horrekiko obsesioak inoiz ez baitio boterea dastatzeko aukerarik emanen. Eskaini diezaiokete duena baino lanpostu hobe bat emakume bati, baina edertasunari dagokionez 'aurrerapenik' egin ezean boterea eskuratzearen ideiak ilusio izaten jarraituko du honentzat. Honen adierazle da nola 80. hamarkadan “*emakumeen boterea hazi ahala, edertasunaren garrantziak izan zuen hazkundera. Emakumea boteretik orduan eta gertuago egon, bere fisikorekiko kontzientzia handiago eskatzen zitzaion*” (Wolf, 1991: 36).

Emakumeek boterera heltzekotan bete beharreko eder kondizioak liraintasuna arrakastaren sinonimo bilakatu du mendebaldeko jendartearen imajinarioan. Esteban-ek bere lanean aipatzen duenaren arabera (2004: 83), XIX mende bukaerarantz edertasuna klase sozialaren ideiarekin lotzen joan zen sinbolikoki eta 20ko hamarkadan “*emakume gehienek gorputz argala bereganatu zuten sozialki mailaz igotzeko nahiari jarraiki (...) amatasunaren eta etxekotasunaren aurkako itxura*” (Santiso, 2001: 233 in; Esteban, 2004: 83). Honek erakusten du nola emakumeek beraien itxura eta gorputzen modifikazioak erabili zituzten jendartean zegokien posizioa negoziatzeko, eta “*nola hasiera batean askapenaren eta autodeterminazioaren irudia zena azkar bilakatu zen kanpo kontrol baten tresna*” (Gordon, 1994: 125; in Esteban, 2004: 83). Ama eta mirabe onaren itxura gorpuzteari uzteak ez zizkien askatasunera atek ireki, kartzela zuten etxetik atera bezain pronto beraien gorputzak bilakatu baitzizkieten kartzela edertasunaren mandatuekin.

3.3.2. Argaltasun muturrekoa estrategia bezala

Edertasunaren idealak iradokitzen duen argaltasunaren aurrean, feminitatearen mandatu horri erresistentzia egiteko muturreko argaltasunera jotzeak paradoxikoa eman dezakeen arren, itxuraz diskurtso dominantearen sumisioa dirudien joera honek estrategiatik gehiago dauka doktrinamendutik baino.

Bizi dugun aro honetan emakumeei eder izateko ezarri zaien mandatuak, aipatu bezala, hauek jarrera jakin batzuk barneratzea du helburu. Gorputz lirain bat izan eta mantentzeak hainbat erritual jarraitzea exijitzen du, hauen artean behar baino gutxiago jatearena. Wolf-ek (1991: 242) aipatzen du Janet Polivy eta C. Peter Hermanek (1983) hurrengo xedatu zutela: denbora luzean behar baino kaloria gutxiago ahoratzeak pasibotasuna, antsietatea eta neurritz gaineko afektibitatea eragiten dutela. “*Ezaugarri hauek dira, eta ez argaltasuna bere horretan, kultura dominanteak aurki*

liberatutako emakumeen identitatearen zentzu pribatuaren baitan sortu nahi duena hauen liberazioak eragin ditzakeen arriskuak neutralizatzeko asmotan” (Wolf, 1991: 242).

Edertasuna helburu erabiltzen diren erritualak, beraz, kontrol sozialaren mesedetan gorputzak diziplinatzeko era eraginkorra dira. Gorputzaren gurtzak hainbesteko indarra duen gure kulturaren, dio Orbach-ek, hau proiektu pertsonal gisa hautematen dugu: *“Larritasun pertsonalen, erantzukizun indibidualen eta ardura politikoen atentzio gunea da, bereziki 'loditzen' den edo sexualki aktiboa den gorputzei dagokienez. (...) Gure gorputzak kontrolez kanpo daudela eta diziplinatuak izan behar direla uste da”* (Orbach, 2009: 44). Loditzea amesgaizto, kontsumoan eta kontrolean oinarritzen den autokontrol eta diziplina mekanismoak jartzen ditu martxan norbanakoak. Bordok argudiatzen duenaren arabera,

batetik norbere buruaren gaineko kontrol baten beharra gailentzen da, emozio, desira eta bulkaden sublimazioa, eta jendartearen parte garenez gero produzitu dezakegunaren arabera baloratzen zaigu. Era berean (...) etengabeko eta berehalako asebetetzeetan gozatzen bultzatzen gaituzte; neurririk gabeko kontsumoa indartzen da, dela elikadura, estetika, ariketa fisiko zein sexualitatearekiko (Bordo, 1990; in Esteban, 2004: 68).

Gizonezkoekin alderatuz, emakumezkoen nabarmen gehiago eragiten die kontrolaren eta kontsumoaren zurrunbiloak. Gaur egun, emakumeek inoiz baino denbora gehiago pasatzen dute beraien gorputzen moldaketan.

Emakumeak espazio publikoan tokia egiten joan ahala, kontrol/kontsumo mekanismo hau areagotu egin da. Edertasun kanona orduan eta zorrotzagoa bilakatu, hau gorputzeko erritualak ere geroz eta zorrotzagoak bilakatuz joan dira. Helburua, arestian aipatu bezala, emakumeak bere energia behar ez bezala bideratzea da, patriarkatua mantentzekotan ez baita komeni behin espazio publikoa eskuratu dutela hauen partetik aurrerapauso gehiago ematea. Horrela bada, Orbach-ek aipatzen du edertasun kanona zorrotz/moldatu ahala eta emakumeak hau eskuratzeko erritualak akitu arte errepikatu ahala, emakumeen gorputzak geroz eta otzanagoak bihurtzen direla. *“Diziplina zorrotzen, dieta normalizatzailen, makillajearen eta arroparen bidez – egungo emakume askoren denbora eta espazioaren antolaketan zentralak direnak – emakumeek beraien gorputzen moldaketa zentripetura gehiago jotzen dute kontu sozialetara baino”* (Bordo, 1993: 166). Diziplina hauen

bitartez, jarraitzen du azaltzen Bordo-k, emakumeak, guztiz onargarriak izatekotan, zerbait falta zaielako sentimendua barneratzen dute, kanon irrealak betetzera ez heltzeagatik halako porrot sentipen bat. *“Beste muturrean, feminitatearen praktika hauek etsipena nabarmentzera, ahultasunera eta heriotzara bideratu dezakete emakumea”* (Bordo, 1993: 166). Mutur tragiko horretan kokatu genitzake anorexia kasuak, feminitatearen mandatuak muturrera eramanez hauen krudeltasuna agerian utzi nahiko balute bezala.

Esan bezala, edertasuna eskuratzeko emakumeek darabiltzaten erritualak hauek espazio publikoan lortu duten tokia indargabetzeko mekanismoa dira. Erritual hauek sinesmen sistema indartsua dira, zeinak

gizonezkoek obskurantismoaren akaberarekin bazterturiko pentsamendu formetan atxilo mantentzen dituen emakumeak. Kontzientzia kolektiboaren parte batek Erdi Aroko sinesmen sistema bat besarkatzen badu, beste erdia guztiz modernoa den heinean, mundu garaikidea eta boterea bigarren parte horrena izango dira. Errituak zaharkituak eta primitiboak dira kontzientzia femeninoaren muinaren parte bat zahar eta primitibo mantendu dadin (Wolf, 1991: 112).

Horrela bada, emakumeak harrapatuta dauzka aro garaikideak: alde batetik esparru publikoan onartuak izan dira, baina bestetik mundua ikuspuntu zaharkitu batetik ikustera bideratzen dituen sinesmen sistema baten eraginpean bizi dira. Aro garaikideko espazio publikoan bai, baina ideia zaharkituetatik askatu ezinik dagoen populazioaren zati horrek jendartean duen tokia zehaztu beharra sentitzea ez da, inondik ere, arraroa. Are gutxiago patologikoa. Hala ere, emakumeek jendartean daukaten tokia negoziatzeari ekiten diotenean, negoziazio intentzio horiek jarrera patologikotzat jotzea ohikoa da. Patologizazio hori arrazoitzeko, hortxe dago bioboterea: emakumeak negoziazio horretan, determinismo biologikoari jarraiki, feminitateari dagozkion ezaugarriak moldatu/eraldatu/ezabatu egiten baditu, genero normatibitate arauak gainditzen baditu, gaixotzat joko da. Anorexia horren testigu.

Gizonek gizonentzat eraikitako gizarte ordenamendu honetan emakumearen papera etxeko lau hormen artean egon da honek espazio publikoan tokia egitea lortu duen arte, baina behin toki hori egitea lortuta ezin izan dira emakume izate hutsagatik egotzi zaizkien sinesmen zaharkituetatik

askatu. Egoera horrela, emakumeak espazio publikoan askatasun osoz jarduteko era bakarra balore maskulinoen arabera dela ondorioztatzen heldu eta hainbat modu ezberdinetan balore horiek bereganatzen saiatzen dira. Saiakera horretan ordea, traba ugari aurkituko dituzte, generoarena pisutsuena seguru aski.

'Maskulinitatea' eta 'feminitatea', bai behintzat XIX. mendetik eta ziurrenik aurrerago, elkarrekiko eskusio prozesu baten bitartez sortu dira. Batek ezin ditzake, besterik gabe, historikoki bertute femeninoak izan direnak historikoki maskulinoak izan direnei erantsi emakume berri bat, gizon berri, etika berri bat edo kultura berri bat sortzeko (Bordo, 1993: 174).

Anorexiak bilatzen duen gorputz androginoa erdi bideko irtenbide bezalako bat bezala irakur daiteke, Bordo-k azaltzen duen bezala barne kontraesanen adierazgarri dena, gorputz androginoaren baitan alderdi maskulinoa eta femeninoa borrokan balebiltza bezala. Emakumeak feminitatearen bereizgarri diren bere gorputzaren formak ezabatzen ditu nolabait determinismo biologikoak zehaztu dion paperari errefusa egiteko ahalegin bezala, gorputz androgino horrekin jendarte honetan esleitu zaion egikaritzatik harago joan nahiko balu bezala. Horrela begiratuta, anorexiak gaitza baino gehiago, gorputzutako protestaren itxura hartzen du: Bordo-k 'gose greba' deitu duen eta determinismo biologikoan oinarrituta emakumeari jendartearen esleitu zaion menpeko posizioaren kontra egiten duen protesta inkontzientea. *“Anorexiaduna, noski, ez da konturatzen deklarazio politiko bat egiten dabilela”* (Esteban, 2004: 177) baina honen gorputzak berba bidez esan ezin dezakeena ematen du ulertzera. Esteban-en hitzetan, gorputz anorexikoak sexu femeninoaren gosea murriztu eta gaitzesten duen kultura salatzen du.

Anorexia *“dementziazko errealitate sozialari erantzun mentalki zentzudun eta osasungarri bezala hasten da”* (Wolf, 1991: 256). Anorexiadunak erantzun egiten dio emakumeak ondo sentitzeko xedeaz momentu oro gosez egon behar horri.

Anorexiadunak uko egiten dio ziklo ofizialak berau mendean hartzeari. Gosea pasatzerakoan, berak kontrolatzen du. (...) Osasun mental seinalea da kontrolatu nahi gaituen zerbait kontrolatzen saiatzea, bereziki mundu ordena oso baten beharrezanek mugitutako industria masibo baten aurrean dagoen emakume gazte eta bakartia bazara

(Wolf, 1991: 257).

Hala ere, errebelamendu indarrez hasten den jarrera hau kaltegarria suertatu ohi da denborak aurrera egin ahala, gutxika-gutxika protesta hau martxan jarri duen norbanakoaren kontra egiten hasten baita. Bordo-k *Unbearable Weight* (1993) lanean aipatzen duen bezala, anorexiadunari kontrolatu nahi duena kontrolatzeko praktika etengabeko hori obsesio bilakatzen zaio, eta obsesio hori neke iturri bihurtzen denez gero, ezinezkoa bilakatzen zaio bere bizitzan aldaketa eraginkorrak egitea. Orbach-ek Tori Moi-ren adierazpenak ekarriz dio hurrena: “*anorexiadunak rol femininora kateatuta eta honek isilarazita jarraitzen du, feminitatedun gorputz otzanaren erreprodukzio bezala*” (Orbach, 1993: 180). Anorexiadun norbanakoaren hasierako asmo iraultzailea indargabetzen joan ohi da norbanakoa akitzen doan era berean, guztiz nekatzera heldutakoan anorexiaduna mandatu patriarkalaren menetara egotera pasatzen delarik. “*Anorexiadunak desafio espirituz hasi dezake bere bidaia, baina gizonek menderatutako jendarte baten ikuspuntutik emakume perfektu bezala bukatzen du. Ahula, asexuala eta ahotsik gabea da, eta soilik zailtasunez kontzentratu daiteke bere plateretik haragoko munduan*” (Wolf, 1991: 256).

Errebelamendu grinaz ekin baina doktrinatzailer bilakatzen den anorexiak gure kulturako praktika femenino normatiboak erreproduzitzera jotzen du beraz. Hala ere, anorexia, klase sozial altuko gizon mendebaldar eta heterosexualek menderatutako jendarte ordenari aitortzen dion bataila galtzera kondenatuta dagoen ondoeztzat hartzea errakuntza litzateke, azpimarratu bezala anorexiadunak praktika normatiboak erreproduzitu arren praktika hauek botere eta kontrol terminoetan esperimintatzen baititu.

Erreferentzia marko foucaltiar baten baitan, boterea eta plazera ez dira elkarrekiko baliogabetzen. Horrela, kontrolaren jabe eta boteretsu sentitzearen esperientzia indartsua bakoitzaren posizio sozialaren isla zehatza izatetik urruti, erlazio botereen emaitza izatearen susmagarria da beti, zeinaren formak oso ezberdinak izan daitezkeen (Bordo, 1993: 27).

Arestian aipatu bezala, anorexiadun emakumea jendartean duen tokiari buruzko negoziazioan dabilenez gero, erlazio botereen emaitza gisa irakurri dezakegu negoziazio jarrera hori. Akitzen duen prozesu batean murgiltzen da botere harreman horrek beregan pausatzen duen pisua arintzeko

nahiarekin, nolabait bere bizia egikaritza horretan galtzeko prest balego bezala eta egikaritza hori aurrera eramate hutsak boterea dastatzea ahalbidetuko balio bezala. Martxan jarritako gose greba mugagabeak rol femeninoari dagozkion erreprodukzio normatiboetan kateatzen badu ere, bere eskuetan sentitzen duen botere horrek bere horretan mantentzen du burugogor. Anorexiadunak ez dio inolaz ere - medikuek indarrez horretara derrigortu ezean - gose grebari planto egiten. Gizonak emakumearen gainean daukan boterearen aurka martxan jarri duen gudan atzera pausurik emateko inolako intentziorik ez azaltze horrek indartu egiten du nolabait. *“Boterea dagoen tokian erresistentzia dago”* (Foucault, 1976: 116) eta badirudi emakumeari jendartean esleitu zaion espazioa zabaldu artean, helburu horrekin martxan jartzen diren anorexia kasuek ez dutela etenik izango. Foucault aipatuaz Bordo-k azaltzen duenarekin bat etorriaz, *“erlazio botereak ez dira beti hermetikoak, etengabeen kultura eta subjektibitate forma berriei eta eraldaketa aukera berriei hasiera ematen baitabilta”* (Bordo, 1993: 27). Honek hurrengoa galdera planteatzera garamatza: anorexia kasuak kultura, subjektibitate eta eraldaketa berrien iturri bilakatu daitezke?

3.4. Genero araua auzian

“Anatomia politiko' bat, era berean 'boterearen mekanika' bat ere badena jaiotzen dabil; besteen gorputza nola hartu daitekeen definitzen du, ez bakarrik gorputzok nahi dena egin dezaten, baizik eta nahi bezala jardun dezaten” (Foucault, 1975: 141). Gorputz otzaren diziplinamendua jotzen du Foucault-ek giltzarritzat botere modernoa ulertzerakoan, botere subiranoa ez bezala autoritarioa eta antolatua ez dena baina *“agintean dauden dominazio eta menderakuntza erlazioei baliagarri zaien gorputzak eratu eta normalizatzen dituena”* (Orbach, 1993: 26). Bordo-k ondo laburbiltzen du nola Foucault-en arabera boterea norbaitek/norbaitzuk daukaten zera bat bezala imajinatzeari utzi behar diogun zentralizatu gabeko indar sare bat bezala irudikatzeko, hauek forma historiko konkretuak – zeintzuetan zenbait talde eta ideologiak dominazioari eusten dioten - bere gain hartzeko asmoz taxutuak izan diren indar gisa ikuskatu behar ditugularik. Horrela bada, boterearen konfigurazio moderno honetan dominazioa ez da dekretu bidez sostengatzen, *“espazioa, denbora eta gorputz adierazpenaren eraikuntzarako elementu nimiño eta intimoenak erregulatzen dituzten 'jatorri eta kokapen sakabanatudun prozesu' askotarikoen bidez baizik”* (Bordo, 1993: 26). Prozesu hauek, beraz, botereari behetik eragitea ahalbidetzen diote, eta eragite horrek ahalbidetzen dio botereari dena bere horretan mantentzeko komeni zaizkion identitate zein subjektibitate formak hertsadurarik gabe mantentzea. Gorago aipatu ditugun gorputzen kontrol/kontsumo dinamikaren diziplinamendua

medio, ez dago norbanakoek beraien buruaren gainean daukaten kontrol zehatza baino ezer eraginkorragorik, eta auto-kontrol horren bidez mantentzen dira boterea dagoen bezala irauarazteko beharrezkoak diren identitate zein subjektibitate normatiboak bere horretan. “*Kontrol (Deleuze) edo segurtasun (Foucault) jendarte hauetan bizitza osasuntsuaren aginduak zaintzara, hobekuntzara eta trebakuntzara derrigortzen du jendartearekin bat etortzeko (horretan datza 'fitness'-ak)*” (Contreras, 2014). Hau horrela, edertasun mitoa eskuratu nahian argaltzen hasten den norbanakoa bere ikuskatzaile propio bilakatuko da, eta berak ez beste inork kontrolatuko - eta behar izanez gero zuzenduko - du hasi duen prozesu hori. Anorexiaduna auto-kontrol zehatzenaren adibide garbia badugu ere, auto-kontrol hori mitoak agintzen duenetik harago eramaten duen momentuan inposatu zaion identitate normatiboa arrakalatzeko saiakeretan hasten dela iradokitzen du: anorexiadunaren argaltasuna muturrekoa izaten hasi eta feminitateari dagozkion ezaugarriak ezabatzen hasten denean, femeninotasun identitateak normatibo izatekotan bete beharreko genero araua hausten hasten da. Era bitxi batez indarrean den ordena sozialari mehatxuka hasten da.

3.4.1. Emakumea, feminitatearen mandatuen eta ordena maskulinoaren artean tratatuta

Emakumeak lan merkatura salto egin zutenean, ordura arte soilik gizonezkoena zen esparru batean tokia egin behar izan zuten. “*Emakumeen baloreak adierazi eta gizonezkoen lana menderatzen ikasi zuten, bi aldiz indartsuago bilakatuz. Gazteak, ostera, bi aldiz ahulagoak aurkitzen dira*” (Wolf, 1991: 273). Jada 90ko hamarkadan Wolf-ek esaten zuen emakume gazteak, pentsamolde primitiboen eta mundu modernoaren artean tratatuta, jendartean dagokien egikaritzari buruzko mezu kontraesankorrak jaso dituztela jairo diren momentutik. “*Modelo maskulinoetan oinarritutako instituzio zurrunetan lehiatzeko heziak, era berean femeninotasun aparteko baten azken detailea ere mantendu beharrean*” (Wolf, 1991: 273) aurkitzen dira. Hau da, gizonezkoen jokaerari jarraiki aritzera bultzatuta dauden arren, aritze horretan ez zaie onartzen feminitate ukiturik batere deskuidatzea. “*Bai histeria bere garaian zein anorexia/bulimia gaur egunean, nerabezeroan ematen den feminitatearen garapen arruntaren eta feminitate patologiko eta patogeniko baten ideal kulturalaren demanda kontraesankorren arteko gatazka sakonen adierazpentzat hartu daitezke*” (Zenbait egile, 2001: 152).

Emakumeek espazio publikoan egin duten agerpen aski berriak, arestian aipatu bezala, izan du eraginik jendartearen ordenamendu patriarkala bere horretan mantentzea berebizikoa zaion

boterearen baitan. Azaldu bezala, emakumeak etxetik atera bezain laster edertasun mitoarekin bonbardatuak izan ziren hauen gogo espazio publikoan toki gehiago egitearen ideian zentratu ordez edertasun kanona betetzeko ahaleginetara bideratzeko, eta mitoak jaurtikitzen duen edertasun ideal eskuraezin hori bilakatu da emakumeek arrakastarako daukaten giltza bakarra, ideala bezain eskuraezina dena. Emakumezkoei, beraz, ezinezkoa zaie baldintza hauetan espazio publikoan gizonen parera heltzea, hauek aurrerapenak egitea edertasun ideal eskuraezin horri hertsiki lotuta egoteak ezinezkoa bilakatzen baitie horrelakorik. Emakume kondizioa enbarazu zaie ordena maskulinoen arabera moldatutako jendarte honetan tokia egiterakoan, eta honek gatazka sortzen du emakumeak esleitu zaien tokiarekin kontent ez daudenean eta beste toki bat negoziatzeari ekiten diotenean. *“Zentzu honetan, histeriak eta anorexiak beraien puntu gorena rol maskulino eta femeninoen berrantolaketa eta birdefinitzeko saiakeren kontrako erreakzio kulturalen aldi historikoetan eman izana esanguratsua da”* (Bordo, 1993: 177). Anorexia kasuak, bere garaian histeria kasuak nola, agintean den ordena mantentzearen kontrako *“errebelamendu eta erresistentzia potentzial iturri”* (Bordo, 1993: 177) bezala adierazten dira. *“Gidatutako borroka batez hitz egiten hasi da, ez bakarrik dominazio maskulinoaren gorpuzkien kontra, autodefinizio propio baten alde ere bai. Zentzu honetan, anorexiak agerian uzten du ustez egun lortu den gizon eta emakumeen arteko berdintasuna iruzurra dela”* (Gómez, 2001: 106). Anorexiadunak, era inkontziente batean eta deklarazio politiko bat egiten dabilelako detaileaz ohartu ere egin gabe, emakume bezala jendarte ordenamendu honek esleitu dion tokitik harago beste toki erosoago bat erdiesteari ekiten dio. Aipatu *“aldaketa desirak honen inplikazio aktiboa adierazten du feminitatearen eta maskulinitatearen elkarrizketa globalean”* (Orbach, 2009: 198). Egotzi zaion posizioa jasangaitza egiten zaionez gero, jasangarriagoa suerta dakioken posizio baten bilaketari ekiten dio halako autodefentsa mekanismo bat bailitzan. *“Elikadura arazoei dagokienez autodefentsa, dementzia ez bezala, alegatu legitimoa da. Autodefentsa ez da estigma bat, erotasuna lotsagarria den bitartean”* (Wolf, 1991: 257). Era sotil batez uneoro bortxatzen duen sistema patriarkalaren aurrean bere burua agentzia osoz babeste aldera defentsa mekanismo bat – eraginkorra ala ez - martxan jartzen duen norbanakoa erotzat jotzea paradoxikoa da gutxienez. Baina emakume ezaugarriak ezabatuko dizkion muturreko argaltasun bat eskuratzea helburu duen mekanismo konkretu honek genero araua hautsi eta identitate normabitboei entzungor egiten dienez gero, biobotereak sustengaturiko diskurtso zientifiko oso batek jarrera hau patologikotzat joko du.

3.4.2. Anorexia eta diskurtso medikoa

Anorexia patologiatzat jotzen den momentuan, “*medikuntzari dagokion kontutzat hartzerakoan, bere ordena, legeak eta metodoak inposatzen dituen diskurtso baten totalitarismoan murgiltzen da. Arazoa ez da oinarritzen esku-hartze medikoaren beharra ezeztatzean, baizik eta zein diskurtsoren hegemoniapean bideratzen den honen abordatzea*” (Strada, 2002: 211). Gil-ek (2007) azaltzen duen eran,

epistemologia feministek agerian utzi dute indarrean dauden balore sozial maskulinoek instituzioetan, jakintza zientifikoaren produkzioan eta teknologietan eragiten dutela (Keller 1991; Harding 1996) eta lagundu egin dute 'zientziaren eraikuntzan produkzio testuinguruak eta baloreek daukaten papera argitzen, iturri medikoen erabilpen inozoa zuzentzen hauek beste era batera irakurtzea ahalbidetuz, eta zientzia ez dela jakintza gardena baizik eta garaian garaiko ideologia eta baloreak biltzen dituen manifestazio kulturala baizik erakusten (Ortiz 2003; in Gil, 2007: 69).

Aurretik aipatu dugun modura, Foucault-ek azaltzen duen gorputzen diziplinamenduan, zeinetan zenbait instituziok norbanakoaren eta jendartearen kontrola eta erregulazioa mantentzea duten helburu, ez dira falta ospitaleak. Instituzio bezala, ospitaleak berebiziko garrantzia dauka gorputzen erregulazio eta kontrolari dagokienez, araua hausten duen gorputza gaixotzat jotzea ahalbidetzen duen bioboterearen diskurtsoak segidan jarriko baitio desbideratu bezala izendatuko duen etiketa antinaturaltzat joko den gorputz horri. “*Medikuntza esparruko profesionala normala zer den eta zer ez den xedatzen duen eta sozialki esleitutako rol zein eginkizunak egiteko zuzendu beharrekoa zer den adierazten duen jendarteko 'enpresari moralak' bilakatzen ari da*” (Rodríguez 1981: 100; in Gil, 2007: 75). Detaile honi, Wolf-ek (1991) azaltzen duen bezala, historiaren parte handi batean medikuaren eta emakumearen arteko erlazioak oso zintzoak izan ez direla gaineratu beharra dago. Inkisizio sasoia arte gaixoak artatzea emakumearen eginkizuna izan zen gehienbat, eta “*emakumearen gaitasun medikoa izan zen XIV eta XVIII mende bitartean Europa osoan hartu zuen sorgin ehizaren katalizatzaile*” (Wolf, 1991: 287). Hortik aurrera emakumeak medikuntza esparrutik kanporatzen joan ziren apurka-apurka, eta hori nahiko ez balitz, behin medikuntza esparru maskulino bilakatutakoan emakume izatea gaixo izatearekin lotzeko hainbat modu aurkitu ditu diskurtso medikoak. “*English eta Ehrenreich-ek azaltzen duten bezala, 'medikuntzak ideologia sexistari egindako ekarpen nagusienak emakumeak gaixo gisa eta gizonengan gaixotasun eragile*

potenzial gisa deskribatzean oinarritu da'” (Wolf, 1991: 286). XIX. mendean zehar 'desoreka nerbioso femenino' bezala izendatzen diren – histeria, anorexia edo neurastenia kasu – kasuen gorakadarekin 'espezialista nerbiosoa'-ren figura sortu zen emakumearen jarrera egokia zein izan behar litzatekeen erabakitzeke eta “*emakumeek beraien bizi kondizioak aldatzeko esfortzuei kontra egiteko (...) medikuei ahalbidetuz abangoardia bezala jardutea jendarteak beraietaz behar duena emakumei inposatzeko eginkizunean*” (Wolf, 1991: 288). Anorexiadun emakumeak determinismo biologikoaren arabera 'naturala' den generoak araututako rola apurtzeari ekiten dionean diskurtso medikoak segidan etiketatzen du gorputz desbideratu bezala, osatu beharra daukan gorputz gaixo gisa. Eta noski, diskurtso medikoaren arabera osatzeko bide bakarra emakume anorexiadunak berriro ere genero femeninoaren rolari men egitean datza. “*Emakumeak rol hauekin adostasunean mantentzeak berebiziko garrantzia dauka ordena patriarkala mantentzerakoan*” (Gómez, 2001: 78). Ordena horren mantenua emakumeen osasunaren gainetik jartzen du diskurtso medikoak, baita mantenu lan horretan neurri muturrekoak erabiltzera heldu beharra baldin badago ere: giltzaperatzea, indarrez elikatzea eta drogatzea anorexiadun emakumeekin erabiltzen diren teknikak dira gaur egun ere. Balore maskulinoen gainean sortutako diskurtso medikoak, Gómez-ek (2001) dioen bezala, nahiago du teknika hauetara jo anorexiadunak beraien gorputzen bitartez esatera datozenari arreta jarri baino: “*beraien maskulinitate kontzeptua bera dago jokoan*” (Gómez, 2001: 105).

Strada-k (2002) anorexiadun emakumeak garaiko histeriadun emakumeekin alderatzen ditu, eta emakume guzti hauek beraien gorputzen bidez zerbait adierazi nahirik dabiltzala adieraztera dator. Bere hitzetan, gorputz hauek

ez dituzte soilik medikuntza eta honen boterea desafiatzen, subjektuarentzako espazio bat baztertzen duen edozein diskurtso baizik. Beraiek – medikuei buruz hitz egiten du – balore eta ideal jakin batzuen transmisiorako uhal bezala balio duen ordena bat ezarri dute. Soilik emakume kate luze batek, garai historiko ezberdinetan, gezurtatu dute: sorginak, deabrutuak, mistikoak, histerikoak, eta orain, anorexikoak.

Sintomak beti daukate dimentsio sozial bat, kulturean indarrean dauden baloreak erabiltzen dituzte adierazteko, hauek gorputzeteke, eta baita ere hauen kontra errebelatzeko (Strada, 2002: 249).

Medikuak ostera ez datoz bat gorputz hauek esatera datozena entzutearekin, bere garaian histeria kasuekin erabilitako estrategia berbera erabiltzen baitute gorputz anorexiadunen xuxurla aditu bezain laster. *“Egungo psikiatrak anorexiadunari bere errebeldia, makurtzeari uko egitea, eta jarrera menderakaitz eta desafiatailea aurpegiatzen jarraitzen du”* (Gómez, 2001: 104). Diskurtso medikoak ordena sozialari mehatxu egiten dioten norbanakoak zigortu, baliogabetu eta hauen ekintzak despolitizatzen ditu inolako eskrupulurik gabe, eta anorexia kasuak horren adibide ditugu. Ordena maskulinoa jo puntu libratutako gudan bi bando bailitzan dauzkagu anorexiadun emakumeak alde batetik eta medikuak bestetik, gose greba bidez presio politikoa egiten lehenak eta determinismo biologikoan oinarritutako arrazonamendu zientifikoaren bidez etsaiari sinesgarritasuna kenduz bigarrenak. Anorexiadun gorputzak martxan jarritako gose greba ordena patriarkal honen baitan emakume kondizioa betetzeak eragiten dieten ondoeza adieraztera badatoz ere, diskurtso medikoak ondoez hau patologiatzat jotzen du. Eta honek arrazoiaren monopolioa bere eskuetan duenez gero, bioboterea erabiltzen du patologizazio hau arbuiaitzeko. Wolf-ek (1991) ondo azaltzen du afera hau:

Mina erreala da besteak min honen existentziaz konbentzitzea posible denean. Inork ez badu honetan sinisten sufritzen duenak salbu, gure mina erotasuna da, edo histeria, edo emakume bezala gure ezintasunaren adierazle. Sentitzen duguna mina ez dela dioten medikuak, apaizak edo psikiatrak bezalako autoritadedun pertsonak entzutean minaren aurrean makurtzen ikasi dugu (Wolf, 1991: 331).

Anorexiadunak ostera autoritatearen aurrean makurtzeri muzin egiten dio, behin gaixotzat etiketatu dutenean ere medikuekin kolaboratzeari uko eginaz, honek ez baitu gaixo dagoela sinesten eta hala adierazten baitu gainera. *“Anorexiak ez du hainbeste adierazten emakume bilakatzeari ukapena, gehiago adierazten du rol femeninoak sarri berarekin ekarri ohi duen 'biktima' papera betetzeari ukapena”* (Gómez, 2001: 105). Jarrera errebelde horren aurrean, ordena maskulinoaren aurkako burugogortasun inkontziente horrek adierazten duen mehatxuaren aurrean, medikuek emakume hauek giltzaperatu, zigortu, behatu eta estigmatizatu egiten dituzte, jarrera hau bilakatu delarik 'gaitz' bezala jo duten anorexiaren tratamendua. Esku-hartze mediko horren funtzioa *“emakumearen gorputza pasibo eta otzana bilakatea da, mehatxua deseginez horrela”* (Ussher, 2006: 16). Argi geratzen baita, anorexia kasuen 'berreskurapen' datuei so egite hutsarekin, tratamendu honek gorputzen diziplinamenduari dagokionez eraginkortasuna izan dezakeen arren ez duela

eraginkortasunik batere. Tratamendu horrekin anorexiadun emakumeak indarrez onargarria den pisu bat izatera derrigortu besterik ez dituzte egiten, baina neurri hau ez da inolaz ere emakume hauen ondoeza konpontzera datorren zerbait. Izan ere, anorexiaren aferan arazoa ez da emakumeak edertasun kanona bete nahian burua galdu duela, gero eta zurrunagoa den kanona betetzeko ahaleginetan jan-neurriak kontrolatzen dabiltzan emakumez josiriko jendarte honetan kalorien murriztea eskuetatik joan zaien emakume kopurua ikaragarri altua baita eta horrek ez baititu denak anorexiaren etiketapean multzokatzen. Bordo-k idatzi du bizi dugun jendarte honetan dietari jartzen zaion arreta gehiegizkoa ez dela ardura patologikoa eta ez dagoela normatik kanpo, kontrara, normaren barruan egokitzen diren gorputz diziplinatuak sortzeko balio duela. Anorexiadun emakumeak oster, norma hori urratzen hasten direlako izendatzen dira gaixo gisa. Anorexiadunak ez du, inolaz ere, norma onartu nahi, eta pisu egonkor bat eskuratzeak eta normaren arabera egokitzat jotzen den gorputz baten mantenuak ezer gutxitan lagundu diezaioke, berriro inposatu nahi zaion norma horretan datza eta anorexiadunaren ondoezak.

Normatibitateak ito egiten ditu anorexiadunak, eta normatibitateak hauen gorputzen gainean daukan kontrola desmuntatzeko asmotan kontrol hori beraien eskuetan hartu eta gorputza arauak agintzen duen marratik harago eramateko saiakeran murgiltzen dira. Manuel Villegas-ek (1997) duen anorexia ulertzeko erak lagundu diezaguke joera hau ulertzen, honek anorexia 'askatasunaren patologia' bezala ulertzen baitu, *“zeinetan gorputzasunaren murrizketa bat ematen den. Nia etereo eta espiritual baten adierazpena ematen den bitartean nia korporalaren ukapenean oinarritzen den subjektibitatearen gatazka propio bat litzateke”* (Gil, 2007: 22). Bizi duen gorputzak menpekotasun posizio batean kateatuta duenez gero, anorexiadunak gorputza geroz eta txikiagoa egiten du murrizte horrek gorputzak suposatzen dion karga txikitu eta honen mugetatik harago transzenditzea ahalbidetuko diolakoan. *“Gorputzaren ukapenaren forma ideologikoak existitzen dira (...) gorputza ukatu, gutxietsi edo suntsitzen duten bitartean hau bizirik mantentzen dutenak”* (Villegas, 1997: 20). Badirudi beraz anorexiadun emakumeari ondoeza sortzen diona emakume gorputzak berarekin dakarren karga dela, determinismo biologikoak naturaren izenean jendartean ezarri dion tokiak eragiten dion frustrazioa. Balore maskulinoetan oinarritutako jendartean genero femeninoarekin koherenteki moldatu beharrak kate motzean lotuta daukanez gero, esleitu zaion kondizio itogarri hori nolabait ezabatzeko ahaleginak egiten ditu. Femeninotzat jotzen diren ezaugarriak gorputzeari utzi eta horrela emakume kondizioak suposatzen dion kargatik libratu nahiko balu bezala, gorputz androgino baten lanketan murgiltzen da. Badirudi emakume moldea gorputzeari uztean jartzen

duela anorexiadunak emakume bezala aurkitu dituen trabak gainditzeko esperantza, irtenbidea genero araua arrakalatzean aurkitzen duelarik. Eta puntu honetan bat egiten dut Bordo-rekin, iruditzen baitzait “*fokua patologian jartzeak, Bordo-k dioen bezala, azterketa erdigunea den genero erreprodukzioetik desbideratzea dela*” (Gil, 2007: 20).

3.4.3. Genero bitarra kolokan

Deigarria da anorexiadunak gogoia salbatu eta gorputzetik nolabait ihes egiteko sentitzen duen premia hori, gogoia eta gorputza dena bat bezala irakurtzea ezinezkoa egiten zaiola argi utziz. Butler-ek (1990) seinatu du arimaren (gogoia, alegia) eta gorputzaren arteko ezberdintasun ontologikoa Platon-engandik gaur arte mantendu zaigun ideia dela, eta “*menderakuntzan eta hierarkia politiko zein psikikoa defendatzen ditu. Gogoak ez du soilik gorputza menderatzen, aldizka honen gorputzasunetik alde egiteko fantasiarekin ere jolasten baitu*” (1990: 63). Izakiaren bi alderdi nagusi hauek – gogoia eta gorputza – banatzen dituen ideia aski hedatu horren gogoia jartzen du gorputzaren gainetik, bien arteko hierarkia bat sortuaz. Kulturalki gogoia maskulinitatearekin eta gorputza feminitatearekin lotu izanak aipatu hierarkia politiko eta psikiko hori generoen bidez mantendu eta arrazoitu du, gizona gogoarekin eta emakumea gorputzarekin alderatuz. Lotura kultural hauek bere horretan mantendu daitezela, determinismo biologikoak emakumea gorputzarekin estu lotu eta behin-betirako azpiratuko duen diskurtso zientifikoa egituratu du. Horrela bada, gorputza eta gogoia biak bat bezala ulertzea bezain gatazkatsua suertatzen zaio norbanakoari genero araua bitan zatitzen duen marra ezabatzea.

Anorexia “*antolamendu sozialaren forma jakin batek lagunduta edo sortuta*” (Gil, 2007: 9) dagoenez gero, orain arte ikusitakoarekin ondorioztatu daiteke antolamendu horretan genero arauak duen garrantzia berebizikoa. “*Gizatiar jendarteak kanpo morfologiaren arabera sexua esleitzen dio gorputzari (...) eta sexuaren araberako estereotipoen eraketarekin gogoia sozialki gorputz horiengandik espero dena moldatzen ahalegintzen da*” (Barral, 2001: 160). Jaiotzean esleitutako sexuaren arabera, gorputz bakoitza gizon edo emakume identitatea – generoak arautua - barneratzen bultzatzen da, eta identitate horrek adierazten digu normala izatea zer den. “*Zentzu honetan identitatearen inposizioa benetako gizatiar aniztasuna iluntzeko diseinatutako boterearen taktika baldar bezala antzeman daiteke, uniformitate kategoriatik zurrunkatuena*” (Weeks, 1985: 298). Hala ere, Weeks-ek Barry D. Adams (1978) aipatuaz 'identitatea desberdintzea ere badela'

azaltzen du, honek aukeraketan eta autoaktualizazioan oinarritutako afinitateak baititu. *“Bilatu behar dugun zerbait da, izatea egonkortzekotan, anomaliatik eta esperantza ezetik defendatzekotan lortu beharreko zerbait”* (Weeks, 1985: 298). Identitatearen bilaketa horretan ostera traba bezala jokatzeko genero bitarrak, molde zurruna baitugu hau benetan geurea dugun identitate propio hori bilatzerako orduan. Gil-ek (2007) Butler aipatuz adierazten duen bezala, maskulino/femenino ezberdintasun dikotomikoak aukeraketa sexualari ez ezik, ezberdintasun eta erresistentzia aukerari ere ateak ixten dizkio. Butler-entzat baina generoa ez da norbanakoaren ezaugarri finko bat, baizik eta aldatu edo moldatu daitekeen zerbait. Autore honentzat *“ekintza, keinu eta gorputz mugimendu espezifikoaren errepikapen estilizatuen bitartez sortzen da generoa, 'iragankortasun sozial' bezala ulertuta. Ez dugu era batera jokatzeko gure genero identitateagatik, genero arauak mantentzen dituzten jarraibide kulturalen bidez eskuratzen baitugu identitatea”* (Butler, 1990: 141; in Spargo, 2004: 70). Autoreak 'generoaren performatibitatea' bezala izendatu duenarekin indarrean dauden identitate molde zurrunei erresistentzia egitea eta hauek iraultzea posible dela azpimarratzera dator: gakoa keinu, ekintza eta gorputz mugimendu espezifiko horien errepikapenean dagokigun generoarekin bat ez datozen keinu, ekintza edo gorputz mugimenduak performatiboki txertatzea litzateke. Anorexiadun emakumeak emakume rolari dagozkion ekintza eta ezaugarriak gorputz androginoagoarekin bereganatzen dituen beste ekintza 'maskulinoago' batzuentzat aldatzeari ekiten dionean antzerako zerbait egiten dabilela esan daiteke. Femitatearen genero araua hausten du erosoago sentiaraziko dion beste identitate bat eratzeko asmotan.

“Murrizketa normatibo bat desegitearen esperientziak norbere izateari buruzko aurre ikuskera bat desegin dezake bizigarritasun maila altuago bat lortzea helburu duen ikusmolde erlatiboki berri bat inauguratzeko xedeaz” (Butler, 2004: 13). Anorexiadun emakumea ere bizigarritasun maila altuago bat ahalbidetuko dion ikuskera berri baten bilaketan dabilela esan daiteke, hortik genero bitarraren normatibak esleitu dion paper itogarriarekin apurtzeko beharra. Anorexiadunak jendartean toki berri bat egitea, toki hori bereganatzea ahalbidetuko dion identitate bat eraikitzea ezinbestekotzat dauka. *“Bizitza posible baten inguruko pentsamendua bakarrik posible zaiela dakitenentzat da entretenimendu. Oraindik izan daitezkeen hori bilakatu nahirik dabilzan horientzat, posibilitatea beharrezkoa da”* (Butler, 2004: 59). Anorexiadun emakumeentzat beharrezkoa hau hil ala bizikoa da, literalki. Hain du larrialdizkoa aldaketa, ezen izan daitekeen hori bilatu artean ezinbestekoa zaion *“erresistentzia' gaitasun multzo bat eratzeko etsaitasunezkoa zaion testuinguru sozial batean bizirautea bermatzeko”* (González de Chávez, 1999: 139). Erresistentzia

gaitasun horien artean kokatuko nuke anorexia, González de Chávez jarraituz desirak ito eta aukera zein xedeak mugatzeagatik ordaindu beharreko neurosi forma bat dela sostengatzen dudan arren, identitate berri eta bizigarriago bat bilatu artean aterpe bezala balio dezakeen gordeleku izan daitekeela uste baitut.

Motzean esanda, anorexia Gonzalez de Chávez-ek (1999: 141) 'ahulen boterea' bezala izendatu duenaren manifestazio garbitzat jotzen dut, emakumeek jendarte patriarkalaren aurrean beraien kexak eta eskaerak aho betez adierazi ezin dutenez gero agresibitatea adierazi eta inposatzeko zeharkako forma gisa, zeinak estrategia eraginkorragoak bilatu artean salaketa egiteko forma bezala balio duen. Adierazgarria da, gainera, inora ez doala ematen duen salaketa forma honek anorexiadun emakumeengan eragiten duen “*gorputz hipertrofia gakoa dela norbera subjektu bezala eraikitzerakoan, subjektu guztiz gorputtua*” (Esteban, 2004: 250). Hau horrela, anorexia prozesu korporal bat bailitzan aztertu beharra dago, eta “*prozesu korporal hauek generoari dagokionez 'atzera bueltarik gabeko' auto-eraldaketa prozesu bezala definitu ditzakegu*” (Esteban, 2004: 123). Estebanekin guztiz ados nator: “*Emakumeen 'ahalduntze' soziala korporala da eta izango da, edo ez da izango*” (Esteban, 2004: 11).

3.5. Anorexiatik ahalduntze sozialera: birjabetze prozesua

“*Soilik norbere istorioaren arabera sortu daiteke norbere irudia, norbere gorputza, ez gizonarekiko berdintasun desio batetik, baizik eta norbere ezberdintasuna eraiki eta bizitzeko nahitik*” (Valls, 1999: 218). Anorexiak eragiten duen gorputz hipertrofia horretatik subjektu gorputzu bat eratzekeo prozesuan, zeinari 'suspertze prozesu' deituko diodan, anorexiadunak bere gorputzaren eraikuntzari ekingo dio eta eraikuntza horretan aurkitu beharko du genero bitarraren molde zurrunez eragiten dioten ondoreza saihestea ahalbidetuko dion gorputz bat. Bizileku izan duen gorputz androginoa atzean utzi nahi ezkerre berritara ere emakume ezaugarriak dituen gorputzean bizitzen ikasi beharko du, baina anorexiarekin generoari dagokionez martxan jarritako 'atzera bueltarik' gabeko prozesuak identitateari dagokionez zenbait aldaketa egitera bultzatuko du ezinbestean gorputz horretan bizitzea lortu nahi badu. Gorputzak guztiz eragotziko dio gizonarekin berdintasunik izatea, beraz emakume kondizioak eragiten dion karga beste bide batzuetatik deskargatu beharko du: genero bitar normatiba zurrunez laxatzea ezinbesteko baldintza bilakatzen da suspertze bati buruz hitz egin nahi baldin badugu.

Genero arauetikiko erlazio kritiko bat eratzeak

hauengandik aldentzea eskatzen du, hauen beharrekin bat ez etorri eta gainditzeko trebetasuna izatea, baita bizitzea ahalbidetzen duten normak desio direnean ere. Erlazio kritiko hori alternatibak eratzeko gaitasun ezinbestean kolektibo baten arabera izango da, norbanakoari jardutea ahalbidetuko eta sostengatuko dion norma eta idealen bertsio txiki bat (Butler, 2004: 15).

Eta alternatibak eratzeko gaitasun kolektibo horretan berebiziko garrantzia dauka, birjabetze prozesuari begira, Menéndez-ek 'autoatentzio' bezala izendaturikoak, autorearen hitzetan hurrengoa litzatekeena:

termino erreal zein imajinarioetan bere osasunari eragiten dien prozesuak diagnostikatu, azaldu, artatu, kontrolatu, arindu, pairatu, osatu, konpondu edo prebenitzeko populazioak subjektu zein giza talde gisa erabiltzen dituen errepresentazio eta praktikak, osasun-langile profesionalen bitartekaritza zentral, zuzeneko eta gurarizkoa barik, nahiz eta hauek autoatentzio ekintzaren erreferentzia izan daitezkeen: hala bada, autoatentzioak berarekin dakar autopreskripzioa erabakitzea eta forma autonomoz edo autonomo samarrez tratamendu bat erabiltzea (Menéndez, 2003: 198).

Munduko Osasun Erakundeak osasuna “*erabateko ongizate fisiko, mental eta sozial egoera, eta ez bakarrik afekzio edo gaixotasun gabezia*” (1948) bezala izendatu duenez gero, anorexia gaixotasuna baino ongizate fisiko, mental eta sozial gabezia bat bezala irakurri dezakegu, zeinak agerikoa egitean ezinbestean autoatentzio prozesu bat eskatzen duen. “*Autoatentzioa, ia beti, detektatutako gaitzari dagokionez lagun-taldeak burutzen duen lehen ekintza da, eta ekintza horrek, hasiera batean, ez du barnebiltzen osasun-langile profesionalik*” (Menéndez, 2003: 201). Anorexia agerikoa bilakatu eta pairatzen duen norbanakoaren ongizateak kalte nabarmena erakusten duenean, anorexiadunak edota honen ingurukoek autoatentzio prozesu bati emango diote hasiera faltan den ongizate hori berreskuratzeko helburuarekin zein neurri hartu erabakitzeke. Prozesu hau martxan jarritakoan erabakiko dute subjektuak eta bere ingurukoek medikuarengana jo ala ez, eta zein medikuntza adarren alde egin. Osasun-langilearekin lehen kontsulta, eta benetako suspertzera arte

hortik aurrerako prozesua bere osotasunean, autoatentzio prozesuaren parte izango dira. *“Subjektuak eta honen taldeak osasungile eta zerbitzu bat edo gehiago kontsultatu ditzakete, baina beti ere autoatentzio nukleotik”* (Menéndez, 2003: 201). Beraz, Menéndez-i jarraituz, autoatentzioa atentzio forma ezberdinen eta subjektua eta honen taldearen artean ematen den transakzio-prozesu bezala ulertu behar dugu, ez soilik subjektuak eta honen taldeak era isolatuan eta autonomoki garatzen duten ekintza bezala. *“Are gehiago, subjektua eta honen taldea izango dira gaitzdunaren ibilbidearen bitartez (...) eta esperientzia honen arabera atentzio forma ezberdinak antolatuko dituen”* (Menéndez, 2003: 201).

Valls-Llobet-ek (1999: 204) aipatu nola, osasunak genero arazoek berri izan beharko lukeen arren osasun sisteman parte hartzen duten elementu guztiak ez dira honekiko jakitun, eta horrek ezinbestean nahasi egiten du anorexiadunaren autoatentzio ibilbidea. Izan ere, aurretik ikusi dugun bezala, biomedikuntzak diagnosiak egiterakoan darabiltzan faktore soziokulturalak mugatuak direnez gero, anorexiaren aferari dagokionez daukan diskurtsoak hau pairatzen duten emakumeek behar dutenarekin talka egiten du. Izatez arazo soziokulturala dena gehienbat, genero arauak anorexiadun emakumearen identitatean eragindako arrakalak eragindako bizi-jasoera alegia, gaixotasun bilakatuko du biomedikuntzak: bere diskurtsoaren eta genero arauen hegemonia mantentzea, biak kolpe berean lortzen ditu. Horrela bada, ez da harritzekoa tratamendu medikoaren aurrean berreskuratu nahirik dabilzan anorexiadun emakumeek adierazten duten nahasmendua, ezta ere tratamendu honek daukan berreskuratze portzentaia baxua. Egoera honek eragiten duen desesperazioak autoatentzio prozesuan beste atentzio forma batzuk biltzera bultzatuko du anorexiaduna, eta biomedikuntzaren ordean edo honekin batera, suspertzera bidean beste euskarri batzuk bilatuko ditu. Anorexiadun gorputzak benetako berreskuratze bat lortzekotan genero normatibak eragiten dion egonezinari konponbidea aurkitu behar dionez gero, honen birdefinizioa bioboterearen eraginak ahal bezain beste saihestean oinarrituko da: diskurtso medikoaz gaindiko atentzio formen bilaketak berebiziko garrantzia hartuko du anorexia bezala ezagutzen den gorputz lan honetan. Generoari dagokionez atzera bueltarik gabeko gorputz lan honetan anorexiadun emakumeak inoiz ez dira hasierako posizio berera itzuliko, Esteban-ek modeloen gorputz lanaz hitz egiterakoan nola, anorexiaren gorputz lanean ere *“prozesu honen aberastasuna, identitate berri horien sorkuntza (...) honen kontaktetan, diskurtsoan eta esperientzia korporal era berean anbiguo eta osatutakoan aurkitu behar da”* (Esteban, 2004: 143).

4. IKERKETAREN HELBURU ETA HIPOTESIAK

Ikerketaren honen helburuak ondorengoak dira:

- Anorexia genero identitateak genero arau bitarrareriko pairatzen duen noraezaren ondorioz sortutako ahulune edota izatearen-krisialdi bezala aztertzea
- Anorexia kasuen suspertze prozesuak aztertzea, norbanakoa esku-hartze zuzena duen agente aktibo bezala ulertuta eta honen zein testuinguru sozial eta kulturalaren nolakotasunei arreta jarriaz, faktore guzti hauek nola elkar eragiten duten behatuz.
- Anorexia genero arauaren haustura bezala ulertuta, berreskuratze prozesuan genero identitatearen baitan ematen diren berreraketak aztertzea, gorpuztasunaren dimentsioari lehentasuna emanez genero identitateen berreraketak hobeto ulertu eta arazoaren ezaugarri posibleak antzeman eta ulertzeko.
- Tratamendu medikoa alde batera, honekin elkarreraginean egon edo ez, berreskuratze prozesuan norbanakoek martxan jartzen dituzten beste baliabide sozial eta pertsonalak ezberdindu eta aztertu. Prozesua erraztu edo zaildu dezaketen estrategia indibidual eta kolektibo hauek aztertzea.

Ikerketaren hipotesi abiarazleak ondorengoak dira:

1. HIPOTESIA: Anorexia genero arauaren haustura ematen den momentua bezala ulertzen denez gero, hau eraldaketa indibidual eta soziala emateko unea izan daiteke. Genero identitateak arau bitarraren aurrean daukan noraez horren baitan, gorputzak arau normatiboetatik at kokatzen diren genero identitateak sortu eta hauekin esperimentatu dezake bere tokia bilatu arte. Hau da, genero-

identitatean aldaketa esanguratsu bat eman arte.

2. HIPOTESIA: Anorexiaren berreskuratze prozesuan norbanakoek osasun zerbitzu publiko zein pribatuak eskaintzen dizkien baliabideekin batera, edo hauen alternatiba gisa, baliabide ezberdin batzuk jartzen ditu martxan. Prozesu hauen ikuspegi erabatekoa eta konplexua izateko ezinbestekoa da praktika indibidual eta kolektibo horiek ere ezagutu eta aztertzea suspertzera bidean baliagarri suerta daitezkeen bestelako prozesuez ohartzeko.

3. HIPOTESIA: Anorexiaren eta honen berreskurapen prozesuei buruzko bizipenak, eta ondorioz hauen kontakizunak, askotarikoak dira. Denak ere genero arauak hausteko anorexia gorpuztea aukeratu duten norbanakoen izanik, berreskurapenari dagokionez ez dago prozesu berdinek, hauek anitzak izaten baitira. Aniztasun horrek berreskurapen prozesuetan ematen diren genero identitatearen berreraiketa forma ezberdinak azaleratuko ditu, elementu komun batzuk mantentzen dituztenak.

5. METODOLOGIA

5.1. Erabilitako estrategia, zehaztapen kontzeptual eta teknikak

Ikerketa honetan anorexia kasuak genero arau bitarrarekiko haustura baten beharretik sortzen diren ondoez uneak bezala ulertzen direnez gero, beronen helburu nagusia aipatu hausturak genero arau bitar hertsia horretatik harago doazen genero identitate berriei bidea eman diezaikeen aztertzea da. Hau da, anorexia pairatzeak genero arauarekiko desadostasuna adierazten duelako puntutik abiatuta, gaitzaren suspertzeak genero arau bitarraren haustura ez ezik ondoeza sortu duen arau horren aurrean norbanakoari gogor mantentzea ahalbidetu diezaiokeen genero identitate berrien eraikuntza izan behar duelako usteak bultzatutako ikerketa lana dugu honakoa.

Planteamendu honek 'berreskurapen' eta 'suspertze' hitzen artean bereizketa egitera derrigortu nau ezinbestean, manual medikoarentzat gaitzari buelta ematea - berreskuratzea alegia – dena eta niretzat anorexia atzean uztea dena – suspertzea – ez baitatoz bat. Horrela bada, ezberdindutako bi joerak izendatzeko 'berreskurapen' hitza erabiltzeak sortu zezakeen nahasmena aurreikusita, termino ezberdinak erabili ditut bi prozesu hauen arteko bereizketa egin ahal izateko:

- *Berreskurapena* manual medikoen arabera gaixotasuntzat jotzen den anorexia 'osatua'-ri erreferentzia egiteko, zeinaren giltza anorexia izan duen norbanakoa genero arau bitar hertsia horretara berriro ere egokitzea den.
- *Suspertzea* anorexia bezala izendatu den eta ondoezaren eragile den genero arau bitar horretatik at, genero identitate berri baten eraikuntza medio, ongizatea berreskuratzea ahalbidetuko duen prozesuari erreferentzia egiteko. Honen funtsa, berreskurapenean ez bezala, nahi eta behar propioen arabera berreraikitako gorputzaren gaineko jabetza berriro ere eskuratzea da.

Ikerketa burutzeko modu egokiena iruditu zait kualitatiboa, ezarritako helburuak betetzera bidean erarik moldagarriena. Erabaki honi jarraiki, bizitzan zehar anorexia diagnostikatu zaien eta egun berreskuratuta daudela ziurtatzen duten sei emakumeri gaiaren bueltan elkarrizketa luze eta sakonak egin dizkiet. Elkarrizketatutako emakume bakoitzaren bizipen pertsonalak, manual medikoen

uniformetasunaren kontrara anorexia kasuen nolakotasun askotarikoa agerian uzteaz gain, kasu ezberdinen artean azterketa konparatibo bat egin eta gaitzaren ikuspegi orokor bat sintetizatzea ahalbidetzen du.

Ikerketak, bestalde, badu beste nolakotasun aipagarri bat: izaera auto-etnografikoa alegia. Ikertzaile bezala gaian sakontzera bultzatu nauen zergati nagusia anorexia azalean bizi eta suspertzera bidea neure kabuz egin behar izana izan da. Anorexia diagnostikatu zitzaidan egunetik, alta medikotik pasa eta benetan suspertuta nengoela sentitu arte egin behar izan nuen bide luze, isil eta bakartia kontu pertsonaltzat hartzetik arazo politikotzat jotzearen beharrak neure bizipena ikertutako beste kasu bat gehiago bezala txertatzera eraman nau. Gaiarekiko gertutasun hau erabakigarria izan zait ikerketaren abiapuntua eta norabidea zehazterako orduan, bizipen pertsonalak utzitako itaunak zehaztu baitizkidate, hein handi batean, ikerketa lerroa.

Neure anorexia bizipena idaztea izan zen ikerketa lanari ekin bezain pronto egin nuen lehena. Bordo (1993), Esteban (2004), Santiso (2006) eta Orbach-en (2009) lanak irakurri bitartean papereratu nuen urte luzeetan anorexiaren bueltan bizitakoa, eta irakurtzen nindoanak giltza batzuk luzatu zizkidan. Giltza horiekin nire esperientziaren berreraikuntza mamitsu bat egin ahal izan nuen, nire anorexia bizipenari dagokionez ordura arte oharkabean pasatu zitzaizkidan zenbait kontu oso esanguratsuz ohartu baininduten esku artean neuzkan lanok. Behin puntu esanguratsu horiek identifikatuta hauen inguruan ikertzen jarraitu nuen, eta nire esperientzian eman ez arren beste emakume askoren esperientzietan agertu diren gainontzeko puntu esanguratsuak identifikatzeari ekin nion. Horrela bada, nire bizipenaren narraziotik eta dokumentatutako zenbait anorexia kasutatik bildutako aspektu garrantzitsuen zerrenda bat egin nuen, elkarrizketetan landu nahi nituen gaiak zehazteko ezinbestekoa izan zaidana. Zerrenda horri jarraiki burutu ditut elkarrizketa guztiak, eta elkarrekintza betean, elkarrizketok aspektu garrantzitsuen zerrenda handitzera behartu naute ezinbestean. Hasierako giltzekin beste giltza batzuk gordetzen zituzten kutxak zabalduko banitu bezala, bizipenez-bizipen, irakurketaz-irakurketa, kutxa guztiak zabalduz joan naiz ikerketa prozesuan zehar. Elkarrizketatu bakoitzaren testigantza Pandora-ren kutxa propio bat bailitzan, kutxok agerian utzitakoaz baliatu naiz analisia egiterako orduan. Analisi horretarako, nola ez, kontutan izan dut bildutako informazio kuantitatibo eta kualitatiboa. Jarraian dator, zehaztuta, ikerketa prozesua pausuz pausu.

Informazio bilkura

Bibliografia

Anorexiaren gaia landu duten autore ezberdinen lanak irakurtzea izan da informazio bilkurarako erabilitako modu esanguratsuena. Iturri bibliografikoetarako joera ikerketa prozesu guztian zabalik izan dudana atea izan da, elkarrizketak egin ahala ateratako gako berrien aurrean ezinbestekotzat jo baitut bibliografiara jo eta aurretik xedaturiko guztia etengabeen berrikustea.

Datu kuantitatiboak

Datu kuantitatiboak bilatzeko iturri nagusiak txosten eta inkesta askotarikoak izan badira ere, zenbait ikerketa lanetara ere jo izan dut. Bibliografia atalean datoz denak atxikita.

Bizipen pertsonala

Neure anorexia bizipena jasotzea ezinbestekoa izan da ikerketari ekiteko orduan, neure bizipenak marratu baitit, hein handi batean, ikerketaren norabidea. Gainontzeko emakumeekin bildu aurretik neure burua itauntzeak argibide asko eman dizkit ikertu nahi nuena zehaztu eta ikerketa puntu hauen bueltan elkarrizketak egituratzeko.

Elkarrizketak

Azaldu bezala, elkarrizketak izan dira ikerketarako erabili dudana bidea. Lehen pertsonan kontatutako testigantzak informazio iturri fidagarri eta emankortzat ditut, hauek ezinbestekak burutu behar izan baitute azalean bizitzakoari buruzko hausnarketa sakona, eta adituak baino gako gehiago eman baitiezagukete jakitera gorpuztu duten ondoez horri buruz.

Elkarrizketatuek luzaturiko materiala

Hasierako asmoa elkarrizketatu guztiei anorexia bizi bitartean batutako edozein informazio posible, euskarria edozein zelarik – idatziak, abestiak, argazkiak, etab. -, eskatzea zen. Hala ere,

elkarrizketetan murgildu ahala beste aspektu batzuetan arreta jartzeak aspektu hau pixka bat baztertzera eraman naute. Dena den, elkarrizketatuetako batek anorexia garaiko idatzi bat eta tratamendu medikoan egindako zenbait ariketa pasa dizkit, eta nire ospitaleratze garaiko egunkaria ere irekia izan da. Materialok, nahiz eta lanean txertatuta ageri ez, anorexiaren argazki zehatzago bat egiten lagundu didate.

Informazioaren analisia

Elkarrizketen azterketa egon da ikerketaren oinarrian. Testigantza pertsonal hauek alde teorikoarekin alderatu eta egiaztapen bat egiteak ahalbidetu du ikerketa burutu ahal izatea. Teoriaren eta bizipenen arteko alderaketa hori garatzeko ezinbestekoak izan dira azterketa unitate jakin batzuk zehaztea, hauek izan direlarik egokien iruditu zaizkidanak:

- Emakume kondizioa, erosotasunaren eta deserosotasunaren artean
- Anorexia, genero arauan arrakala
- Suspertzera bidean martxan jarritako mekanismoak
- Gorputzen birjabetzea: berreskurapena baino gehiago (lanketa pertsonal baten bidez eskuratzen den ongizatea)

Sakoneko elkarrizketak

Sei emakume elkarrizketatu ditut ikerketa honetan, neure bizipenarekin batera zazpi kasu barnebilduz lanean. Elkarrizketatuaren soslaia zein izan beharko litzatekeen zehazterako orduan, eta ikerketa helburuei jarraiki, egokiena bere garaian anorexia diagnostikatu eta egun ondoeza atzean utzita daukaten emakume Euskal Herritarrek elkarrizketatzea litzakeela erabaki nuen.

Emakumeetara mugatu dut lana, anorexia kasuen ia guztiak emakumeek protagonizatzen dituztenez kontutan hartzeko ezaugarria iruditu baitzait. Anorexia era eskusibo batean genero femeninoarekin hertsiki lotuta dagoen ondoez gisa ulertzen dut, eta horregatik genero kategoriak ikerketan puntu

zentrala betetzen duenez, gizonezkoak elkarrizketatzeko aukera hasieratik baztertu dut. Dena den, genero-identitate aldaketak gizonezkoen kasuan ere eman daitezkeenez gero, ikerketarekin jarraitu ezkerro gizonezkoen anorexia kasuak aztertzeke aukera ez dut alboratzen.

Elkarrizketatu guztiak hego euskal herritarrek izatearen erabakia hauen testuingurua zein den zehaztu beharrak eragin du, inguruak ondoezari dagokionez argibiderik eman dezakeelako aukera zabalik utziaz. Bestetik, testuinguru geografikoa mugatzea lagungarri izan da, baita ere, bertoko datuak aurkitu eta erabiltzerako orduan.

Zientifikoki behatuta suspertze hauek esanguratsuak izan daitezzen, mediku-psikiatren diagnosi bat jaso izan duten emakumeak bilatu ditut. Ez dut uste autoritate mediko baten hitza beharrezkoa denik norbaitek ondoez jakin bat bizi izan duela argi badauka eta hau baieztatu nahi badu, baina hala ere aldagai egokia iruditu zait, arreta medikoa eta bestelako arreta moten arteko konbinazioak kontutan hartu nahi baintuen.

Anorexia atzean utzi izana ezaugarritzat jotzeak, bestalde, prozesua bere osotasunean eta ongizate puntu batetik behatu eta kontatu diezagukeen emakumeak bilatzeko nahiak eskatu du. Berreskurapen era ezberdinak behatzeko jakin nahia asetzea ez litzateke posible, inolaz ere, era batera edo bestera oraindik beraien burua anorexiaren inguruan bueltaka ikusten duten emakumeen bidez.

Beraien testigantza eman didaten emakumeak (ni barne), zehaztua izan ez den arren, gaztetzat - 22 urte ditu gazteenak eta 34 nagusienak – eta klase sozial ertain-altukotzat jo ditzakegu denak. Dena den, aurrerago emango ditut hauen soslaiak.

Behin ezaugarri horiek zehaztuta, erosoena sare sozialetan elkarrizketatzeko soslai horren bila nenbilela zabaltzea iruditu zitzaidan, oraindik ere gaiak nahikoa 'tabu' izaten jarraitzen duenez gero nahiago bainuen boluntario posibleak beraien kabuz eskaintzea euren testigantza. Inor ezerosoa suerta dakioken gai bati buruz gogoz kontra edo larritasuna gaitik hitz egitera bultzatzea ekidin asmoz hartutako neurri honek eraginik izan zuela esatera ausartuko nintzateke, elkarrizketatutako emakume guztiei nabarmena baitzitzaien halako erosotasun puntu bat – beharizan pixka batekin nahasita zenbaitetan - gaiaz hitz egiterako orduan. Eta erosotasun puntu hori, ezinbestean,

ikerketaren mesedetarako izan denik ezin ukatu.

Sare sozialetan mezua zabaldu bezain laster, ordu erdiko tartean gutxi gora-behera, hiru kontaktu lotu nituen, denak ere gertukoak eta ezagunak. Hiru elkarrizketa horiek nahikoa ez zirelako usteak bultzatuta ostera, egun batzuetara berriro ere sare sozialen bidez mezua zabaltzeari ekin nion, eta azken saiakera honetan batu zitzaizkidan beste bi kontaktu: ezaguna bata eta ezezaguna bestea. Egun batzuetara, gainera, lagun baten bidezko kontaktu bat ere prest agertu zitzaidan bere bizipena kontatzeko, eta birritan pentsatu barik eman nion honi ere baiezkoa.

Elkarrizketatuak nire sare sozialeko kontu pertsonaletik bilatzeak emakume feministaren soslaia nagusitu duela iruditzen zait, jakin badakidalako nire ingurutik kanpo anorexia bizi izan duten emakumeak bilatzen hasi ezkerro emakume feministak ez liratekeela hainbeste izango. Diskurtso feministaren presentzia nabarmen horrek, beraz, jendartean hain hedatua ez dagoen anorexiaren irakurketekin topo egitera garamatza ikerketa honetan. Hala ere, interesgarria deritzot feministon artean asko anorexia bizitakoak garela nabarmentzeari, diskurtso hori barneratzeak bizitako anorexiarekin izan dezakeen erlazio posibleak azaleratu eta analizatzeko aukera luzatzen baitu.

Elkarrizketa guztietan lasai hitz egitea ahalbidetu duen giroa lortu izanaren sentipena daukat, bakartasunean bizi, sufritu eta landutako gaia kolektibizatzeak eta mahai gainean jartzeak halako ongizate sentipen batez horditzeko daukan gaitasuna gaitik akaso. Ezberdintasunean oinarritzen den mediku-paziente erlazio unilateraletik at eta autoritate figuretatik libre gaiaz luze eta zabal hitz egiteko aukera honek, elkarrizketatu zein elkarrizketatzaile, gorputzeko zokorik ezkutuenean gordetzen dugun anorexiaren orbainari lasai so egin eta berauen inguruan inoiz ez bezala jardutea ahalbidetu digu. Euskal Herriko txoko ezberdinetako taberna ezberdinetan burututako elkarrizketa hauei, horizontalki anorexia mintzagai hartuta ahalduntzera bidean beste eskaloi bat igotzea ahalbidetu didaten halako terapia alternatiboen itxura hartu diet, espero dut elkarrizketatuko emakumeek ere antzerako zerbait sentitu izana.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi oso esanguratsua iruditzen zaidan detaile bat, konturatu bainaiz ikerketa honen bueltan egindako lanak akademiaren mugak zeharkatu eta esparru publikoan eragiteko aukera eta zortea izan dituela. Hamahiru urte atzera bota eta nire anorexia garai latzenetara salto egitera behartu izan nau elkarrizketatutako emakumeetako batek bere burua aurkeztu izanak,

gogoan baitut nola esan zidan behin berak ere bizi izan zuela antzerako zerbait eta borrokatuz gero buelta emango niola. Egun hartatik gaiari buruz elkarri hitzik esan gabe pasatako urte andanaren ostean pausagunean edukitako hizketagaia ahotan hartu eta honi buruz luze eta zabal jardutea aberasgarria ez ezik, argigarria ere izan da. Behinola elkarrizketatu horrek niri bidalitako mezu hark eragina izan zuen nire baitan, anorexia gaintu zuen gertuko emakume bat erreferentetzat hartzeak esperantza minimo bat izaten lagundu zidalako seguru aski, eta horretxegatik izan dut agian, suspertu nintzenez geroztik, anorexiari buelta eman dakiokelako mezua zabaltzeko seta hau. Seta horrek ikerketa hau egitera bultzatu ninduten hausnarketetan murgilduta izan nau denbora luzez, lan honekin jarri arte neure kabuz ahalegindu naizelarik anorexiaren bueltako diskurtso politiko bat eratzen. Eraikuntza prozesu betean jarri zen nirekin kontaktuan elkarrizketatu bezala aurkeztu zaidan bigarren emakume bat orain pare bat urte, eta orduan nirekin izandako hizketaldia lagungarri izan zitzaiola azalduaz eman dizkit bere ondorearen eta suspertzearen nondik norakoak. Gaiari buruz aurretik ere jardundako bi kontaktu hauekin berriro ere elkartzek anorexia sufritu dugun emakumeen artean eratutako halako ahizpatasun kate baten existentziaz jabetzeko baliagarria suertatu zait, kontzienteki zein inkontzienteki, mediku-paziente harremanetik at eta gure erara elkarri lagundu diogulako sentipenak hartu bainau. Neure esperantza guztiak jartzen ditut kate horrek emakume gehiago kateatu ditzan, lan hau helburu horri begira eratu izan da bederen.

Elkarrizketen gidoia

Elkarrizketa guztiak gai jakin batzuen bueltan jarduteko helburuaz estrukturatuak izan dira, nahiz eta ez dudan gidoi zurrunik izan. Elkarrizketatuak eurak kontakizunaren gidaritza eramatea bilatu badut ere, ahal izan dudan bezala, ondorengo ardatzak lantzeaz arduratu izan naiz:

- Elkarrizketatuaren aurkezpen edo bizi istorio bat, nor den eta bere ustetan anorexia izatera nola heldu zen azaltzen duena.
- Anorexiaren ustezko eragileak.
- Emakume kondizioa: nola bizi izan den, eroso ala deserosoa izan den, beronekin espermentatu ote den, etab.
- Diagnostika eta tratamendu medikoa: nola bizi izan diren, baliagarriak izan diren, etab.
- Tratamendu medikoaz aparte martxan jarritako (jarri izan badira) beste zenbait mekanismo, indibidual zein kolektiboak.

- Suspertzea: honen ustezko gakoak, prozesuan zehar emandako aldaketa posibleak, etab.
- Identitatea: anorexia bizi aurretik, bizi bitartean eta suspertu ostean norbanakoaren (genero) identitatean begiztatutako aldaketak posibleak.

Elkarrizketa guztiak audio bidez grabatuak izan dira, ondoren transkribatuak eta ikertuak izateko. Elkarrizketarekin hizketaldiak denbora tarte ezberdinekoak izan dira, motzena 40 minutukoa eta luzeena 2 ordukoa izan direlarik. Dena den, orokorrean ordu bete inguru iraun dute elkarrizketek. Elkarrizketatuetako baten kasuan anorexia pairatu bitartean egindako idatzi bat ere luzatu izan zait, honen elkarrizketari atxiki diodana.

5.2. Elkarrizketatuen soslaiak

Elkarrizketatuen anonimotasuna eta testigantzen konfidentziasuna ziurtatzeko neurri gisa, anorexia bizipen esperientzi hauek protagonizatzen dituzten emakume guztiei zorian aukeratutako izenak jarri dizkiet. Izenaz gain, beste zenbait nortasun datu ere – jaioterria, egungo bizitokia, etab. - aldatu edo alde batera utzi beharrean ikusi izan naiz, datuok emakume hauek identifikagarriak bilakatu ez zitzaten. Tabu izaten jarraitzen duen gai honen inguruko esperientzien deskribapenak beraien gordintasunean eta osotasunean jasotzea bermatzeko ezinbestekoa iruditu zait anonimotasuna ezaugarritzat hartzea, identitatea isilpean gordetzeak aurpegi bistan inolaz ere kontatuko ez liratekeen bizipen pertsonal askori bidea eman diezaiokeelakoan bainago.

Ekiñe

Elkarrizketatuetan lehena eta gazteena da Ekiñe. Bizkaitarra 16 urte inguru zituela eta nerabezaro betean hasi zen elikadurarekiko harreman ez oso osasuntsu bat eratzen, garai hartan gustuko zuen mutil batek loditu zela aipatu zioenean hain justu ere. Momentu horretan barneratu zen halako pisu galera konstante batean, behin lagun batekin anorexia zeukan hirugarren pertsona bati buruz hitz egiten zebilela zer gertatzen zitzaion argi ikusi zuen arte: hirugarren pertsona horrekin zeuzkan parekotasunek bere buruaren isla moduko bat itzuli zioten. Ikaratuta, ziztu bizian eman zion bere amari janariarekin bizi zuen harreman kaltegarriaren berri, eta bien artean ekin zioten arazoari buelta emateko bideari. Bide horren lehen pausuek mediku, psikologo eta psikiatren kontsultetara bultzatu bazuten ere, Ekiñek bere kabuz egin du suspertzera bidea. Psikiatrarekin izandako lehen eta

azken kontsultak egin nahi zuen bidea ez zela bertatik igarotzen ondorioztatzera eraman zuen, ez baitzuen ikusi kontsulta hartan benetan lagungarri izango zitzaien zerbaiten aztarna txikiena ere. Horrela bada, bere bide propioa izango zenari ekin zion, aldapatsu eta bihurtuz beterikoa izan arren inoiz amore eman gabe. Bide horretan ezagutu nuen nik Ekiñe, anorexiari buruz egin behar zuen erreportaje bat aitzakia gisa hurbildu baitzen niregana gaiaren eta bizitzaren ari zenaren bueltan luze eta zabal hitz egitera. Hizketaldi hark egiten zebilen ibilbidearen azken txanpari ekiteko bultzada bezala balio izan ziola dakidan honetan ezin adierazi dezaket lerroetan Ekiñe bere helmugara heldu izanak zenbat hunkitzen nauen. Anorexia tratamendu medikoaren kontrolpetik at eta esku artean darabilgun diskurtso politiko hau euskarritzat hartuta gainditu daitekeenaren adibide argia dugu.

Halako *deja vú* bat bailitzan, orain pare bat urte Ekiñek esku artean zeukan erreportaje hura tarteko hitzartu ginen taberna berean hitzartu ginen osteraren ere ikerketa honen aitzakiaz. Azken aldi hartako gai berbera mahai gainean, ordutik anorexiaren bueltan bizi eta hausnartutakoen berri eman zidan Ekiñek. Orain bi urteko hitzorduaren jarraipena zirudien honek begi bistakoa egin zuen bion artean, eta anorexiaren bizipena zubitatzat, hartu-eman sendo bat eraiki genuela ia-ia nahi barik. Bat-batean, bakarka egin beharko genuela uste genuen bide horretan bidai lagun bat aurkitzea bezalakoa izan zen Ekiñerekin udako goiz eguzkitsu hartan egindako hitzordu hau.

Katrin

Elkarrizketaturiko bigarren pertsona Katrin dugu, 31 urteko Gipuzkoarra. Nerabezaroaren atarrietan hasi zen janariarekiko eta bere gorputzarekiko harreman gatazkatsu bat eraikitzen, bere ustetan elikaduran ikusi baitzuen sasoiaren zeuzkan arazoei bide emateko modua. Urtebete inguru eman zuen inolaz ere balio izan ez izateaz aparte bere anorexia areagotu zuela iruditzen zaion tratamendu medikoa jarraitzen, alta eman zioten momentua bere anorexiaren faserik ilunena begitantzen zaiolarik. Tratamendua arazoa konpondu gabe jaso zuenez homeopata batengana joaten jarraitu zuen, eta honekin, medikuarekin ez bezala, aditua eta ulertuta sentitu zela dio. Entzun zezatela lortu zuen momentu honetan gauzak hobera egin zutela iruditzen zaio, eta azkenean bere inguruko ongizatea berreskuratzeagatik bizi zuen anorexiari kontra egitea erabaki zuen. Prozesu luze baten ostean bere burua maitatzen ikasi eta anorexia atzean uztea lortu zuen, momentu txarretan berriro

ere arazoak elikadurara bideratzea otu izan zaion arren bulkada hau gelditzeko gai izan delarik.

Egun bizitokizat duen Gipuzkoako herrian daukan dendan hitzartu genuen elkarrizketa. Apaletan pilatutako erotika produktuek hitzorduari halako ukitu lotsagabe bat ematen diote, eta iruditzen zait Katrinek bere gorputzean behin libratutako guda hartako garaipen ikurrak bezala antzeman daitezkeela. Plazeraren gaia erakusleihora eramaten duen norbanakoak, ezinbestean, bere gorputzarekin bakeak egin behar izan ditu.

Ilargi

Gipuzkoatik berriz ere Bizkaira salto egin ostean Ilargi izan zen elkarrizketatzen hurrena. Urteak elkar ikusi gabe pasa ostean institutu garaietan elkar ezagutu genuen herri bereko taberna batean hitzartu ginen, eta institutuan nola, berbaro bizian murgildu ginen hasiera hasieratik. Elkar ikusi gabe emandako tarte horretan bizi izan du Ilargik anorexia, beraz hirugarren pertsona batek esandakoak alde batera, hitzordua arte ez dut izan Ilargiren bizipenaren inguruko apenas berririk. Itzulingururik gabe eta ezagutu ginenean zeukan hitz jario berberarekin hasi zitzaidan Ilargi anorexiaren nondik norakoak azaltzen. 27 urte betetzear dituen emakume honek 21-22 urteren bueltan ikusten ditu bere hastapenak anorexiaren bueltan, nahiz eta elikadurarekiko harreman kaltegarria dietisten kontsultetara bisitak egiten pasa zuen nerabezaroan eratu zuela uste duen. Egun anorexiari buelta ematen pasatako prozesu luzea bere amaierara heldu dela ziurtatzen badu ere, ez du jaso alta medikorik eta noizean behin kontsulta orduetatik kanpo edo e-mail bidez jarraitzen du psikiatrarekin hitz egiten. Mediku-paziente harreman hori ostera informal bilakatu dela dio, jada lagun arteko harreman eratu dutela ziurtatuz.

Nekez imajina nezakeen bere buruarekin harreman eroso bat daramanaren xalotasun berezkoa zuen eta nik ezagutu nuen Ilargi hari anorexiaren tuneletik pasatzea tokatuko zitzaionik. Tunelaren irteerara lehengo izaera berberarekin heldu dela ikusteak gauzak baretu direla ondorioztatzera eramana nau, bizitzak dakarrenari bere garaian ezagun zuen jarrera berberarekin aurre egiten jarraitzen diola begi bistakoa da. Hainbat proiektutan buru belarri aritzeaz gain anorexiaren inguruko hitzaldiren bat ere eman duela azaltzen dit elkarrizketan zehar, eta gaiaren bueltan luze, zabal eta sakon hitz egiteko daukan era da ondo prestatutako hitzaldi horien erakusle.

Larraitz

30 urte betetzear dituen Bizkaitar honekin bere herriko Kulturguneko tabernan batu nintzen, batukada feministarekin zeukan entsegua aurretik. 14 bat urte zituela ekin zion Larraitzek ahalik eta argalen egotea lortzea xede zuen erronka pertsonalari, hain grinatsuki ezen urte erdiren bueltan ingurukoak zerbait gertatzen ari zitzaiola ohartzen hasi ziren. Zortekoa izan zela dio berak, jakin baitaki anorexia kasu asko berea baino puntu ilunagoetan antzematen direla. Larraitzen kasua denbora motzean oso ageriko bilakatzen hasi bazen ere, bera izan zen hilerokoaren desagerpenarekin arduratuta zerbait gaizki egiten zebilela ondorioztatu eta laguntza eskatzeko formak bilatzen hasi zena: hilerokoaren falta zela eta irratiko sexologoari bidalitako gutuna anorexiari buelta emateko prozesuari ateak zabalduko zizkion giltza izan zen. Anorexia bizipen honi buelta eman ostean ere erorialdi bat izan zuen arren, hura nahita egin zuelako duda izpirik ez dauka. Erorialdiak erorialdi, gaur egun guztiz berreskuratuta dagoela ziurtatzen du, eta berriz antzerako ezer gertatzeari nekez sinesgarria deritzo.

Larraitzek anorexiari buelta emana zion nire ospitaleratze garaietan kalera irteteko baimena eman eta berau ospitale inguruetan norbaiti bisitan zela topo egin nuenean. Oroitzen dut nola esan zidan berak, topo egite labur horretan, gertatzen zitzaidanari buelta ematea posible zela. Momentu horretan bertan anorexiari buelta ematea lortu zuen ezagun bakarra bilakatu zen niretzako, eta eredurik izan ez duenak ondo daki bakarra izatea lorpen demasa dela. Eredu bat izateak lagundu dezakeenaren jakitun, behin Larraitzek niri egindako oparia beste emakumeren bati helarazteko nire nahia betetzeko aukera ederra deritzot esku artean dudak ikerketari.

Geaxi

27 urteko Gipuzkoar hau bere jaioterria ez den beste Gipuzkoako herri batean bizi da egun, eta bertan, etxetik gertu duen taberna baten elkartu ginen uztaileko arratsalde sargori batean. Komunean ditugun lagunen bidez kontaktatu nuen Geaxirekin, eta bere bizipenaren inguruan jakiteko gogoz jarri nintzen tabernako mahaiaren bueltan. Bere herri txikian belaunaldiko ume bakarra izanik,

lehen mailako bosgarren maila egitera ondoko herrira bidali zuten Geaxi, eta aldaketa horren aurrean eta bere eskola berrian onartua izan zedin argaltzeari eta femeninoago izateari ekin zion. Urtebeteren buruan bere anorexiaren punturik ilunena bezala identifikatzen duenera heldu zen, eta orduan diagnostikatu zioten anorexia. DBH garaiak anorexiari buelta ematen pasa zituen, bere ustetan elikadura arazoak oso hedatuta zeuden eskola inguru batean. DBHko azken urteetan hasi zen hobekuntzak antzematen, eta militantzia bere bizitzaren parte izatera igarotzea lagungarri izan zitzaiolakoan dago, esparru honek ahalbidetu baitzizkion eskola berrira saltoan eraikitako anorexiadun Geaxi izugarriki femeninoarekin apurtzeko tresnak.

Irakaslea da gaur egun Geaxi, eta nabari zaio bere ikasle nerabeen artean antzematen dituen anorexia zantzuek arduratu egiten dutela. Anorexia bizi izan duenak arazoa besteetan antzemateko daukan gaitasunak kolokan egon daitezkeen bere ikasleengan zitzu bizian edozein anorexia seinale atzematera darama, baina irakasle moduan nola prebeni ditzakeen galdetzen dio bere buruari.

Amalur

9 urte besterik ez zituela izan zuen 34 urteko Gipuzkoar honek berak anorexiarekin lotura izan dezakeen bizitzako lehenengo pasarte bezala identifikatu duena. Bere urtebetetze eguna zen, eta txokolatadan nahita janari mordoa irentsi eta gero botaka egin zuela oroitzen du. Berak hura oso normala ez zela bazekien arren, ez zion inori kontatu egindakoa eta aurrerantzean errepikatzen joango zen zerbait bilakatu zen nahita oka egitearena. 12 urterekin diagnostikatu zioten anorexia, eta suspertzera bidean hiru hilabeteko ospitaleratze bati eta 21 urte bete arte iraungo zion etenik gabeko borroka bati aurre egin behar izan zion. Suspertzera bide horretan pasabiderik gogorrenetarikoa, baina, nerabezaroan zehar bizi izan zuen: ametsetan azaltzen joan zitzaizkion bere anorexiaren eragile izandako haurtzaroko sexu abusuak. Ametsetan azalduz joandako informazio horrekin topo egitea gogorra izan zen arren, honek ahalbidetu egin zion Amalurri gertatzen zitzaiona nondik zetorren ulertzea. Dudarik gabe abusu horiek jotzen ditu bere anorexia bizipenaren eragiletzat.

Bizitoki duen Gipuzkoako bere herriko tren geltokian batu ginen Amalur eta biok, eta inguruko taberna batetara eraman ninduen handik. Lehen agurretik murrurik gabe zetorren emakumea iruditu

zitzaidan Amalur, eta bere testigantzari bide ematerakoan frogatu ahal izan nuen benetan hala zela. Bizitakoa kontatzeko zeukan erak ez zuen dudarako tokirik uzten, bere narrazioaren zintzotasuna eta zehaztasuna horren erakusle. Zintzotasun horrek ikerketa lana ez ezik, ni neu ere, pertsonalki, ikaragarri aberastu ninduen.

Maier

27 urte ditu anorexiaz behin betiko orain dela bost bat urte ahaztu zela ondorioztatzen duen Bizkaitar honek. Nerabezaroaren ateetan ekin zion luzaroan buruan bueltaka zebilkion pisu galeraren maratoiari, eta 13 urterekin argaltasun muturrekoa oso deigarria bilakatu zenean diagnostikatu zioten anorexia. Konturatu orduko ospitaleratuta aurkitu zen, bere maratoi pertsonal horri amaiera ematera behartuta berriro etxera buelta egin nahi baldin bazuen. Bi hilabeteko itxialdi baten ostean bere ingurura itzuli zen eta tratamendu medikoan jarraitu zuen 18 urteak bete arte. Alta medikoa jasotakoan oraindik ere anorexia izaten jarraitzen zuela ziurtatzen du Maierrek, bere kabuz ekin ziolarik suspertzera bidean egokiena zeritzon bideari. Bide horretan behin eta berriz erori, galdu eta galdu aurreko tokira itzuli bazen ere, lortu zuen azkenean behinola galdutako ongizate hura berreskuratzea. Diskurtso feminista ezinbestekotzat jotzen du suspertze horretara zioan bidean azken pausu erabakigarriak ematerako unean.

6. ANOREXIA BIZIPEN KASUAK

Anorexiaren bueltan izandako zazpi kasuen bizipenak behin bilduta, hiru multzo nagusi ezberdindu ditut zenbait gaitan sakontzea ahalbidetzen duen ibilbide bat trazatzeko. Ibilbide horretan zehar elkarrizketatuek zenbait gairi buruz esan eta adierazitakoak daude jasota, bakoitzaren kasua hain pertsonala eta bakarra izanik ere, gai komun ugari azaleratu baitira denetan. Gaiok hiru multzo nagusitan ordenatuta partekatzen ditut, ordenamendu honek analisisia modu linean batean irakurtzea ahalbidetzen duelarik. Gaiak, hurrenez hurren, ondorengoak dira: (1) emakume kondizioa eta honek sortu ditzakeen erosotasun eta trabak, (2) anorexia genero mandatua eteteko modu bezala, eta azkenik, (3) suspertzea. Antolamendu honek, denborari dagokionez ere, bizipenak ordena kronologiko batean sailkatzea ahalbidetzen digu: lehen gaia anorexiaren atariarekin hertsiki loturik dagoen ere berean, bigarrena anorexiarekin eta hirugarrena anorexiari buelta emateko prozesuarekin loturik baitaude. Dena den, ikerketaren helburuei begira aztertu nahi dena begien paretik ez galtzeko, anorexia bizipenaren fasekako pilaketa baino argigarriagoa iruditu zait gaikakoa.

6.1. Emakume kondizioa: erosotasunaren eta deserosotasunaren artean

Simone de Beauvoir-en 'emakumea ez da emakume jaiotzen, bilakatu egiten da' esaldi aski famatuak adierazi bezala, emakume bilakatzea heziketa prozesu baten emaitza da, zeina fase ezberdinetatik pasatzen den norbanakoa apurka-apurka emakume kondizioa bere egiten eta naturalizat hartzen joan dadin. Anorexia batik bat emakumeetan ematen den izatearen-krisialdi edo ahulune bezala hartu dudanez gero, honek genero kondizioarekin gorde dezakeen lotura aztertzerakoan ezinbestekoa iruditu zait anorexia bizi izan duten emakume hauei krisialdia izan aurretik emakume kondizioa nola bizi zuten galdetzea. Egun haurdun dagoen Geaxik zera dio honi buruz galdetzen diodanean:

“Eta nik daukat oroitzapena ba 10 urte inguru nituenean, ba oso maskulinoa nintzela. Ba pelotan ibiltzea gustatzen zitzaidan, futbolean, mutilak bezala janzten nintzen, nahiko potxolita nintzen, eta bueno, ni zoriontsu nintzen nire izateko erarekin.” (Geaxi)

Geaxik zoriontsu gogoratzen du haurtzaroa, genero femeninoaren mandatuei izkin egin eta maskulino izateak ez zion buruhausterik sortzen. Katrinek oster, oso txikitatik izan du emakumeei

barneratu arazten diguten zainketarako joera hori, haurtzarotik bere burua bigarren plano batera eramatera ohitu duen joera, eta konnotazio negatiboz hitz egiten du horren inguruan:

“Ni gogoratzen naiz nire haurtzaroa ba polita baina aldi berean nire izaera zen... ba besteei laguntzen egotea denbora guztian eta igual nigan gutxi pentsatzea, ez?” (Katrin)

Bere burua bigarren plano batean mantentzen denbora dezente igaro ostean ordea, egun batez atentzioa beregan jartzera derrigortzen duen ekintza bat egiten du:

“9 urterekin, jaunartzea egin eta gero ilea rapatu nuen eta ipurdiraino neukan ilea. Osea, izan zen 'como': 'aiiii... utzi bakean'. Baina gero ilearekin nahiko klasikoa nintzen, eske lotsa asko ematen zidan.” (Katrin)

Ekintza honekin bigarren planotik lehenengora salto egitea ez ezik, Katrinek hein handi batean, egungo bere estetikak nola, neskato onaren itxuraren kontra ere atentatzen duela esan daiteke. Ilea zerora moztea emakume kondizioarekiko harreman deseroso baten adierazle izan daiteke, izan ere deserosotasun horren existentzia egon bazegoen:

“Bai, adibidez hor ni ibiltzen nintzen lagunak ziren oso oso... beti beraien itxurari begira... arropa... fisikoa... ez dakit zer... bueno, nahiko mari sorginak ziren, eh? Osea, ez nintzen oso identifikatuta sentitzen beraienekin, orduan beti mutilekin ibiltzen nintzen egia esan.” (Katrin)

Baina mutilen artean ere ezinezkoa zitzaion bere berdinekin bezala harremantzea, bere emakumetasuna oztopo:

“Ibiltzen nintzen mutilen koadrila batekin, barriokoak, eta gauza zatarrak egiten zizkidaten. 'Pues' igual arropak jaitsi, ukitu, ba bata bestearen gainean jarri... eta nik ez nekien zer... zertan ari nintzen. Eta behin, guraso batek harrapatu zigun eta nik jaso nuen zaplaztekoa. Orduan nik uste dut oroitzapen horrekin pentsatzen nuela ba niri egin ahal zidatela edozein gauza eta nik ezin nuela ezer egin. Eta orduan autoestimua, hor jaisten hasi zitzaidan eta aldi berean potolotzen hasi nintzen.” (Katrin)

Katrinek heldu horren partetik jasotako zaplaztekoak, modu oso argian, mutilak egiten ari zitzaizkionaren errudun bakarra berau zela adieraztera zetorren, halako akusazio batek bere emakumetasuna onartzerakoan ekarri dezakeen karga guztiarekin.

Bere aldetik, Amalurrek hasiera batean tirabira handirik gabeko haurtzaro baten berri ematen digu, nahiz eta gertakari jakin batek emakume kondizio horrekiko deserosotasun ikaragarria sortuko dion:

“Ba... ez neukan arazorik nire berdinekin harremantzeko, osea lagunak nituen eta horrela, eta... bueno bai, egia da bai, herri hartan bizi ginenean, bueno, ba bizi ginen... beste bi etxe zeuden gure etxearen ondoan, eta... ba bertan bizi ziren.... ba bueno... etxe batean bi mutil, osea, bi ume, anaiak ziren, eta beste etxean neska bat eta mutil bat, neska ni baino askoz helduagoa zen eta mutila ba ni baino... ba bueno ba zortzi bat urte edo helduagoa zen, eta oso harreman estua geneukan... 'pues', ume guztiak, ez? E... 'pues' auzoko ume guztiak. Denak mutilak ziren. Eta nik batzuetan bai sentitzen nuela hori, beharra ba neska batekin edo ba bueno, ba... edo nire adineko batekin, ez? Zeren denak ziren ni baino helduagoak eta ba beti zen... 'pues' umea, ez? (bere papera) Eta... ba bai beti sentsazio horrekin bizi izan nintzela, ez? Ba zein gogoa nire berdin batekin bizitzeko, ez? Osea, neska batekin edo bueno, mutiko batekin baina... baina hori ez? Ba... goxotasunez tratatzen ninduen edo... Egia da, e... hiru mutil hauetako bat, helduena, berarekin oso-oso-oso harreman estua neukan, beti zen ba... babesten ninduen, eta... eta bueno... ba hor... harreman nahiko berezi bat sortu genuen... eta bueno ba... oso oso gaztea zela hil egin zen mutiko hau, ba... berak zituen 18 urte, eta nik nituen... ba 10 urte. Eta bueno, 'pues' hor... ba sortu zitzaidan barruan, uff, ba kristoren... ba... tristura... tristura alde batetik, mmmm... gero beste batzuetan... kontziente nintzen arindua sentitzen nuela, hil egin zelako, eta ez nuen ulertzen zer gertatzen zen. Eta ni hor 'ja' hasi nintzen bueno... 'brotando, broto todo'. Eta bueno, batez ere... ba nerabezaroan, ba bueno, konturatu nintzen ba, zer gertatzen zen ez? Eta bueno, ba abusuak jasan nituen, ez dakit zenbat, eta ez dakit noraino. Ba hau guztia hasi zen ametsetan agertzen, eta bueno, ba izan zen kristoren bonba niretzat.” (Amalur)

Katrin eta Amalurren bizipenak anorexia kasu askoren atzean ezkututzen diren beste hainbat eta hainbat sexu abusuren adibide dira. *“Bortxaketa bat bizi izan dutenen artean erreakzio ohikoena ezertarako baliagarri ez izatearen sentipena da, norbere gorputzarenganako gorroto sentipen batek*

jarraitzen diolarik, sexuari errefusak eta elikagaien ahorakinean trastorno batek lagunduta sarri” (Wolf, 1991: 209) Kasu hauetan emakumeenganako indarkeriaren adierazpide modu honek eragiten du neskato hauetan emakume kondizioarekiko deserosotasun jasangaitza. Beraien emakumetasuna arriskutsutzat jotzera heltzen dira maiz, sexu abusua beraiek probokatu izan dutelako usteak eragindako erruduntasun sentimendu batek hartzen ditu sarri, eta horrelakorik berriro gertatu ez dadin, inoren begietara desiragarri ez izateko helburuari jarraiki, gehiegizko janaren bitartez gorputz desiragarritzat jotzen den prototipotik urruntzen edo janariari uko eginaz arriskutsutzat jotako emakumetasun hori ezabatzen tematzen dira.

Jaiotzen garen momentutik gorputzaren genero sozializazio prozesua martxan jartzen da. *“Zentzu honetan esan genezake elikadurak subjektuen eraikuntza korporal eta identitarioan edo identitariotik parte hartzen duela, eta aldi berean, honen bidez 'gorputzak adierazi egiten dira', agerian utziz kulturatze prozesu honen ondorio diren ongizate eta ondoezak”* (Zafra, 2010: 93). Gorputzak, beraz, sozializazio prozesu betean murgilduta dihardu munduratzeko garen momentutik, eta sozializazio prozesu hori norbanako bakoitzak bere erara eraman eta kudeatzen duenez gero, haurtzaroan emakume kondizioak pisu gehiago ala gutxiago – baina pisua, azken finean - izan dezake neskatoetan. Nerabezaro garaiak ostera, berarekin dakartzan gorputz aldaketak medio, emakume gorputzaren eta paretaren artean harrapatuko ditu. Aurretik gertakari traumatikorik eman ezean, momentu honetan jotzen dute areagotzera emakume kondizioarenganako erosotasun eta deserosotasun sentimenduek, eta areagotze horren erakusle da adin tarte honetan ematen den anorexia kasuen gorakada:

“Ba ni egia esan nerabezarorako nahiko garatuta nengoen. Beti izan naiz... ba azkar hilerokoa ere... 11 urterekin edo etorri zitzaidan, baina jada garatuta nengoen... nahiko arin. Eta nerabezaroan ez daukat horrelako... gogoratzen naiz honekin, anorexiaz. Zerbait esan beharko banu nerabezarotik, horrela gorputzaren inguruan, ba izango zen ez nuela onartzen nire gorputza, e... titiak ere ez, ez, ezer ere ez, ezer ere ez, ezer ere ez. Nahi nuen nire burua ikusi argala, eta zenbat eta argalago niretzako zen orduan eta politagoa.”
(Larraitz)

“Nerabezaroan sartzean, nire adinekoen alboan handi sentitzeaz gain, ezberdin sentitzen ere hasi nintzen. Beste lagun askorekin alderatuz goiz hasi zitzaidan gorputzean

eraldaketak ematen, eta honek nire gorputzarekiko neukan pertzepzio nolabait negatiboa are negatiboago bilakatu zuen: titiak, ileak, hilerokoa... denak neuzkan soberan. Aldaketa hauek ematen hastean hasi nintzen, esan bezala, nire gorputza eraldatzen saiatzen. Eta 12 urteetatik 13 urteetara bitartean neskato liraina bihurtu nintzen, hasiera batean aldaketa hau pubertaroko aldaketek eragindako zerbait bezala hartu zutelarik ingurukoek.” (Maier)

Lehen hilerokoaren bizipena izan daiteke emakume kondizioarekiko deserosotasunaren adierazle argia, honen agerpenak emakume gorputz hori ugalketarako prest dagoela adierazten duenez gero, hilerokoa jaitsi zaion gorputz hori emakume gorputzari dagozkion eginkizunak egiteko prest dagoela ondorioztatu baitezake nerabeak. *“Lehen hilerokoaz geroztik emakumeak beraien gorputzaren kontzientzia zehatz bat esperimentatzen hasten dira, biorritmo berezkoak dituen, eta rol sozial baten aurrean gaitzikor egiten dituen ugalketa gaitasuna duena”* (Esteban, 2001: 117). *“Bi maila sexualetan oinarritzen den munduaren banaketa soziala, bata superiorra eta bestea mendekoa, nahiz eta neskatoak bere lehen urteetatik hautematen duen, ez da agerikoa egiten honentzat menarkiaren momentura arte”* (Sau, 1981: 171; in Esteban, 2001: 119). Menarkiaren momentua heltzeak, beraz, tirabirak sortu ditzake:

“Begira, ba adibidez, oso txarto eraman nuen hilerokoa, negar batean hasi nintzen. Bai... bufff, izan zen momentu oso gogorra, eta ez zait ahaztuko inoiz ere ez. Eta amak zorionak eman zizkidan, eta nik esan nuen 'ez, ez, ez, ez, ez... nolako zorionak!' negar batean, eta ez nuen nahi, ez nuen nahi, eta nire beste lagun batzuk berriz desiratzen zeuden hilerokoa izateko eta... eta nik esaten nuen 'ez dut ulertzen'. Ez dakit... ba bai, agian zen garatzen nengoela baina... hori, 'es que ez dut nahi!'” (Larraitz)

6.1.2. Begiralearen ahotsa barneratzea

Emakume gorputzak erreprodukzioan eta sedukzioan erakutsiak izan ohi dira, eta horrek jendartearen etengabeko begiradapean egotera baldintzatzen ditu. Txiki-txikitatik, ikusi dugun bezala, neskatoei beraien gorputzen inguruko balorazioak egiten zaizkie, eta kasurik gordinenetan hauen osotasun fisikoaren kontra ere atentatzen da. Emakumeek, beraz, oso gaztetatik barneratzen dute bigarren baten ikusmiran egotea onartu behar hori, emakume kondizioak berarekin dakarren zerbait intrintsekoa bailitzan. Are gehiago, emakumeek adin goiztiarretik ikasten dute beraien burua

bigarren horren begiradatik behatzen. Eta horrek, ezinbestean, dauzkaten harreman guztiak baldintzatzen dizkie, euren buruarekin daukatena barne. Norbere buruari kritika gogorak egiteko joera da honen ondorioa:

“Ez dakit noiz hasi nintzen jatekoarekin eta nire gorputzarekin anorexia izatera eramango ninduen erlazioa izaten. Inoiz kontatu izan dit amak, anekdota gisa, nola behin haurtzaindegitik etxera bueltan lagun batek lodi nengoela esan zidala aipatu niola, eta nola medikuak zioenez lagun hori ez zen heltzen izan beharko lukeen pisu minimora. Ni ez naiz horretaz gogoratzen, eta ez dakit zein puntu arte izan zezakeen gertakari horrek eraginik etorkizunean pairatuko nuen gaixotasunari dagokionez, baina dudarik ez dut bere momentuan amari hori kontatu banion gertakariak mindu edota arduratu ninduelako izan zela, eta seguru aski nire gorputzaren gainean eraikitzeaz neukan pertzepzioan eragina izan zuela.” (Maier)

Maiarren kasuan ikusten da umeez, haurtzaroan jada, emakume gorputzenganako iruzkinak egitea zerbait arrunta bezala hartzen ikasia dutela. Ez da batere harrizkoa, nagusiek normaltasunez egiten baitituzte baloraziook:

“Eta... horixe, ba 10-11 urte, tarte horretan gogoratzen naiz joan nintzela udalekuetara. Eta niretzako hori izan zen... 'un antes y un después' markatu zuen. Handik bueltatu nintzen ba argalduta, ba udalekuetan ba... hara eta hona, gora eta behera beti, ba ez dakit, ba 5-4 kilo argalduta. Eta herrira iritsi nintzen eta mundu guztiak askoz hobeto... harrera oso ona egin zidaten. 'Jo ze guapa etorri zaren', 'nun ibili zara?', 'ze ondo, ez dakit zer...', eta konturatu nintzen ba argalagoa izanda, ba harrera hobea neukala gizartean. Eta nik uste dut ba... dena hortik hasi zela.” (Geaxi)

Baloraziook emakume gorputzak genero estereotipoen arabera epaitzen dituztenez, emakumeak genero aruari jarraiki ideala den gorputzarekin konparatzen dira bestearen begiradatik beraien buruari begiratzen hasten direnean. Nolakoak diren eta nolakoak izan beharko liratekeen aztertzeke joera naturalizatzen da horrela, eta begiratu batean kanon estetikoaren arabera zeharo onargarria den Ekiñe bera ere ez da joera hori barneratzeke libratzen:

“Bertsotan nabil... eta agian bertsotan ere jende aurrean lehenengoz hasi nintzen ipintzen ere bai, konturatzen zara zure gorputzaren presentziaz edo ba jende askok ikusten duela, igual beste edozein pertsona baino gehiago ikusten dela zure gorputza momentu baten, oholtza baten gainean, eta agian hortik ere bai ba epaiketa doble egiten duzula, zelan egon behar zaren jendearen aurrean edo ze gorputz izan behar duzun ere bai.” (Ekiñe)

Bertsolarien kasua aztertuz haxe esan du Jone M. Hernández-ek: *“Garrantzitsua iruditzen zait azpimarratzea bertsolari-publikoaren arteko lotura horretan gorputzak duen papera. Bertsolariak gorputzetik eta gorputzez antzematen du publikoa”* (Hernández, 2012: 56). Nabarmena da beraz bertsolaritzarena bezalako esparruetan, zeintzuetan emakumeak publikoaren aurrean oholtza gaineratzen diren, begiralearen begiradatik norbere burua behatzeko joera areagotu egiten dela publikoaren antzemate korporal horrekin.

Jendarteko esparrua edozein delarik, gorputz ideal eskuraezin eta esklaboarekiko etengabeko konparazioan dago beraz emakumea, begiralearen begirada barneratu ez ezik honen ahotsa ere bere egiten duelarik maiz. Anorexia kasuetan agerikoa bilakatzen da hau:

“Neuzkan... bi... bi Larraitz, gogoritzen dut bi Larraitz nituela buruan, eta bata zen esaten zidana 'pffff, ezin duzu jan, gaileta bat jan duzu? ba orduan bihar erdia edo bat ere ez', eta bestea zen 'benga Larraitz, ez, zertan zabilta? Ahalegindu jaten, gaixotzen ari zara, bestea...', baina bestea zegoen beti irabazten, beti irabazten zuen... horrek.” (Larraitz)

Anorexia pairatu duten ia emakumezko guztiek baieztatzen dute ahulunean bi nortasun izatearen sentazio hori bizi izana, bata suspertzearen partaidea eta bestea gose grebari tinko eustearen aldekoa. Behin suspertzerako bidea hartuta ordea, ahots horien arteko eztabaida apalduz joan ohi da, barneko bi hizlariak adostasun batetara heldu eta bat-egitea erabakiko balute bezala. Bigarren ahots baten desagerpen horrek, baina, ez ditu barne hartzen kanpoko ahots epaileak. Anorexiaduna bere muturreko argaltasuna atzean utzi eta berriro ere edertasun idealera gerturatu ahala, ahots epaileen zorionak jasotzen ditu. Kritikoa da joera horrekin diskurtso feminista landua daukan Amalur:

“Bai, gero... oso kuriooa izan zen, ze... egon zen momentu bat, batez ere 'ja' dantzan hasi nintzenean eta... gorputza aldatu zitzaidala pila bat, ez? Ba aldatu zitzaidan gorputza eta

hasi nintzen sentitzen gehiago... hori, ez? Ba kanpotiko... errekonozimendu hori, ez? Ze klaro, lehen ba hori, gaixorik nengoenean, ba mundu guztiak esaten zidan 'ze argala zauden', e... osea, hori, ez? ba... 'ba gaixo zaude' eta... 'argalegi zaude', eta 'ez zaude polita', eta... eta bat-batean ba... hasi zen kontrakoa, ez? Eta... eta momentu batzuetan ere, gaur egun kuestionatzen dut hori ere, ez? Ze momentu batean, ez?... daukat lagun bat esaten didana, ez? 'Eske estereotipo barruan egotea', berak esaten dit ni estereotipo horien barruan nagoela, ez? Bera ez da ikusten estereotipo horien barruan, ba... ba bueno, ba... betaurrekoak dauzka, ... ez dakit, osea, sudur handia dauka..., berak ez du bere burua... bera beti izan da itsusia kontsideratua, ez? Eta... eta esaten zidan 'es que es una putada estar dentro y fuera, no?', osea, alegia, osea, putada bat da emakume izatea gaur egungo jendartean, ez?" (Amalur)

Amalurrek adierazi bezala, jendeak bere gorputzarekiko egiten zituen balorazioak negatiboak bilakatu ziren muturreko argaltasun bat eskuratzean, eta positibo izaten hasi ziren prototipoaren arabera egokia den gorputz masa bat eskuratu ahala. Honek argi eta garbi erakusten du normaltasun osoz emakumeen gorputzenganako egiten den balorazio sozialak emakume prototipo jakin bat bultzatzen duela, genero arauen arabera koherentea den gorputza txalotuz – ama izan eta lan produktibo zein erreproduktiboak egitea ahalbidetzen duen liraintasuna gorputzen duena - eta koherentea ez dena – emakume (erre)produktibo izateari muzin egiten dion argaltasun muturrekoa edo liraintasunaren antitesia den loditasuna gorputzen duena - epaituz. Alegia, sistema heteropatriarkalaren makineriari martxan jarraitzea ahalbidetzen dion genero arauen araberako gorputz koherenteak txalotzen ditu iritzi publikoak, eta iritzi publiko horrek objektibitatez estaliriko diskurtso medikoaren babesa izan ohi du:

“Hilerokoa bajatu zitzaidanean, bai hartu nituela pila bat kilo, eta bai gogoratzen naiz zelako errieta bota zidan pediatrak momentu horretan. Eta 14 urte uste dut nituela... edo... hortik. Eta bai 'como que me quedo un poco marcado'. Eta egia da hasi nintzela dietistekin eta horrela eta super ondo eh? Osea, nahi dizut esan, argaltzen modu oso batean... kirola egiten... janaria kontrolatzen... pun. Baina bai izan zen denbora bat 'de'..., ba nire gaztaro edo nerabearoa izan zela 'que si' dietista bat, 'que si' utzi, joan beste batera, 'que si' utzi, ... horrela izan zen apur bat.” (Ilargi)

Diskurtso medikoaren alde agertu den Ilargik lerrootan kontaktutakoak diskurtso honen lodifobia¹² eta diziplinazko prozedura begi-bistaratzen ditu. Pisu igoerari dagokionez medikuak erakutsitako jarrera ezkorrak loditasuna guztiz gaitzesten du, hau gorpuztu beharko lukeenaren antitesia bailitza. Osasun-langileek osasunaren izenean ematen dituzte pisua erregulatzeko gomendioak eta mandatuak, baina *“osasuna eta elikadura lotzen dituen diskurtsoa Hipócrates bezain zaharra da, eta mendeetan zehar medikuek 'erregimena' - bizi eredu arautu eta osasuntsu bezala ulertuta - arrazionalizatzeko balio izan du”* (Gracia, 2010: 72). Jendartearen kontrol eta erregulazioa helburu dituen instituzio medikoak erregimenaren arrazionalizazio horrekin bilatzen duena gorputzen erregulazioa eta kontrola da, nahiz eta osasunaren esparruan oinarritzen diren argudioak erabili. *“Carme Valls i Llobet-ek (2009) deskribatzen du nola medikuntza oso gutxitan eztabaidatutako objektibitate bat jantzirik ibili den XX. mendean barrena. Diziplina zientifikoaren idulkiak berak balio izan dio instituzio medikoari jokoaren arauak maneiatzeko”* (Sangre Fucsia, 2014), eta arauon artean pisu handia daukate generoari dagozkienak. Diskurtso zientifikoaren oinarri androzentrikoa medio, ez da harrizkeoa jokoaren arauak emakumeen kalterako izatea, hauek emakumearen menpekotasuna oinarri duen eta indarrean den ordena soziala mantentzea baitaude helburu. Eta ordena sozial heteropatriarkalaren izenean, gorputzen erregulazio horretatik edozein desbideraketa segidan etengo du biobotereak. Gorputzen diziplinamendua aipatu erregulaziorako hutsik gabeko tresna da.

6.1.3. Gorputzaren diziplinamendua

Biobotereak genero arauak xedaturiko erregulaziotik desbideratzen diren gorputzak birbideratzen ditu, baina badira zenbait mekanismo hasiera-hasieratik desbideraketa hori ematea eragozteko. Emakumeen kasuan, edertasuna (argaltasuna barneratzen duen kontzeptu gisa ulertuta) helburu erabiltzen diren erritualak gorputzak diziplinatzeko era ezin eraginkorragoak dira. Eta elikatzea edertasuna eskuratzeko erritual baliagarri bilakatu eta hau kontrolpean izatea gorputzaren gaineko diziplinamendu erabatekoa eskuratzeko konkistatu beharreko esparrua dugu:

“Beti izan naiz jatun ona, txiki-txikitatik apetitu bizia eta mutur fina izan omen dut ezagutzen nautenen arabera. Asko gozatu izan dut eta gozaten jarraitzen dut janaz, baina

12 'Lodifobia' terminoa ingelesezko 'fatphobia' terminoaren euskarara itzulpena da, eta loditasunarenganako fobiari erreferentzia egiten dio. 'Fatphobia' terminoa 1984an Robinson, Bacon eta O' Reilly-k minnesotan (AEB) burututako ikerketa baten ondorioz hedatu zen, zeinak subjektu lodiekin erlazionatzen diren estereotipoenganako tokiko biztanleriaren jarrera negatiboak erregistratzen zituen (Alvarez, 2014: 37).

loditu nintzen garai horri erreparatzen diodanean jateaz gozatu arren jateagatik errudun sentitzen hasi nintzela gogoratzen dut. Kontziente nintzen maiz gehiegitxo jaten nuela, eta etxean ere nolabait jatekoarekin izaten nituen gehiegikeriak kontrolatzen saiatzen ziren. Kontrol horren aurrean sarri ezkutuan nahi nuen guztia barneratzen ahalegintzen nintzen, eta apurka-apurka janariarekin erlazio estu eta kaltegarria eratuz joan nintzela esango nuke. Ezinezkoa zitzaidan elikadura apetei izkin egitea, eta era berean errudun sentitzen nintzen asko jaten nuenean, bai bainekien janariarekin nituen gehiegikeria horiekin jarraituz gero ez nintzela inoiz argalagoa izango. Eta nik, ondo oroitzen dut, argalagoa izatea desio nuen, neure burua argalago irudikatzen nuen etorkizunari buruz gogoeta egiten nuenean.” (Maier)

Maiarren kasuan argi ikusten da diziplinamendu prozesu baten abiatzea, elikaduraren gaineko buruzagitza lortzeko borroka baten nondik norakoak azaltzen baititu lerrootan. Bere ustean gehiegi jaten duen eta kontrola galdutako gorputz baten doktrinamenduan nekaezin dabilen neskato bat aurkezten zaigu, zeinak dudarik gabe bere burua begiralearen begietatik begiratzen duen. Argalago egotearen desira eta egokitze jotzen duena baino gehiago jateagatik errudun sentipenak kanpo begirale baten epaien emaitza besterik ezin daiteke izan. Bestalde, etxean ere janariarekin zeukan harremanaren gaineko kontrola eramateak ere izan dezake zerikusirik jaterakoan sentitzen zuen errudun sentipenarekin. Larraitzek ere, banandutako gurasoen alaba bakarra denak, etxean gorputzari garrantzia emateko joera jaso zuela dio, eta horrek anorexiaren garapenean eragina izan zuela uste du:

“Hasi nintzen... beti ematen diot garrantzia... nire gorputzari, beti, eta... baina uste dut etxean ere hori jaso dudala. Nire amak ere bai eman izan dio, eta ematen dio gaur egun ere bai, nahiz eta 54 urte eduki berak nahi du ondo egon, guapa sentitu, eta... Eta bueno, orduan futboleko jolasten nuen, eta kirola egin izan dut beti, pila bat, eta koadrilan ba denak ziren argal-argalak... gaur egun ere bai. Kenduta ni eta beste bat, gutxi gora-behera, beste denak ziren argal-argalak, eta horrek ba inbidia ematen zidan. Eta hasi nintzen ba apurka-apurka... bueno, gutxiago jaten.” (Larraitz)

Elikaduraren gaineko kontrola eta gehiegi jateagatik errudun sentipenak beraz etxean bertan ikasten dituzte sarri anorexia garatzen duten emakumeek. Hala ere, irakaspen horiek etxean jaso

ezean eta jendartearentzat onargarria baino pisu gehiago hartu ezker, profesionalek esku hartuko dute deskontrolatutako gorputz horren diziplinamenduan:

“Baina gero hori, dietistarekin izan zen... ba batekin egon nintzen super gustura urte batzuk, oso ondo, argaldu nintzen oso ondo, eta super osasuntsu. Utzi zuen horrek, eta hasi nintzen hori, ba saltoka: ba batekin... uzten nuen, hartzen nuen (pisua), itzultzen nintzen (dietistarengana), uzten nuen, hartzen nuen, ... eta bai... osea... bizi izan dudala debeku bat janariarekiko. Osea, ba hori da, daukazu dieta bat markatuta eta esaten dizute 'hortik pasatzen zaren bakoitzean, 'ja', zaude 'pasatzen', 'ja' zaude 'gaizki egiten', hori da erakusten dizutena. Eta orduan nik bai lotzen dut apur bat nire gaixotasunaren hasiera debeku horrekin, zeren egia esan ni hasi nintzenean botaka egiten zen egun berezietan, orduan zen 'en los días que te 'pasas', supuestamente'. Orduan nik bai lotu ahal dut apur bat hor, hori mentalitatea, urte asko joaten dietistarengana eta erakusten dizutena eta... hor lotzen dut.”
(Ilargi)

Ilargik itzulgingururik gabe dio dietistek erakutsi ziotela anorexiara bideratuko zuen pentsamoldearen arabera pentsatzen. Janariari dagokionez barneratzeko neurri normalaren eta gehiegizkoaren arteko bereizketa egiten eta batetik besterako marra zeharkatzen zuenean errudun sentiarazten irakatsi zioten. Emakumeok barneratu ohi dugun begiralearen begi epaileak emakume gorputza nolakoa izan behar litzatekeen xedatzen ez duen kasuetan beraz, bioboterea arduratzen da lan hori egiteaz. Eta Geaxiren kasuak argitzen duen bezala, emakumeok landu beharreko gorputz hori genero arauarekiko erabat koherentea izan ohi da:

“Gero baita... nire gaixotasunarekin (anorexiarekin) oso klabea ikusten dut, nola... bakarra nintzen 89an jaiotakoa, ba eskolako irakasleak nahiko alferrak ziren eta esaten zien nire gurasoei ba justu 4. maila bukatu nuenean, LH, 5. eta 6. maila egin behar nituen gazte... gazteagoekin, eta... ba ez zekitela zeinekin alderatu, baina nahiko alferra nintzela, eta arriskutsu ikusten zutela ni beste bi urtez bertan geratzea. Orduan ba... literalmente eskolatik bidali ninduten eta ondoko herri handira eraman ninduten. Klaro, ba ni... herri txiki bat, euskalduna..., giro nahiko ba horixe... ba pilota, eta nahiko maskulinitik, bueno osea, neskekin ere ibiltzen nintzela, e? Baina giro horretatik hiriko eskola handi batera pasatu nintzenean, ba, ba, ba... ba 'ja' neska-mutil bereizketa hori igual, handiagoa zenean,

hori ikusi nuenean ba... ba erabat aldatu nintzen. Ba hasi nintzen e... ba horixe, baita neukan buruan ba... argalagoa izanda onartuagoa izango nintzela eta... jende berria ezagutu beharra neukan, integratu beharra neukan, eta orduan hasi nintzen ba... ba gutxiago jaten, kirola egiten, ba pixka bat... E, alferra izatetik pasa nintzen klaseko ikasle onena izatera, oso konpetitiba, oso exigentea nire buruarekin, eta... eta hortik ba... (...) Mutur batetik bestera pasatu nintzen. Bai.” (Geaxi)

Udalekuetako pisu galerarekin jendartearen onarpen handiagoa esperimentatu zuen Geaxik, baina eskola berri batetara egokitu behar izan zuen momentuan, pisu galera nahiko ez baldin bazen aseguru gisa edo, onarpena genero arauarekiko koherente izatean ere bilatu zuen. Tamainako aldaketarekin, Geaxik dena kontrolpean izateko beharra sentitu zuela esan daiteke. Karen Way-k (1993: 85) azaldu bezala, *anorexia nerbiosoa kontrola bereganatzeko halabeharrezko bulkada da (...) denak amiltzeaz, desegiteaz eta urruntzeaz dirudienean*. Gorputzaren gaineko kontrol erabatekoak ematen duen ziurtasun eta botere sententzioa lasaitzeko modu eraginkorra bilakatzen da anorexiadunarentzat:

“Bai, ze agian da kontrolatzen duzun eremu bat. Agian dauzkazunean beste gauza asko kontroletik kanpo, ez dakit zer ba... egia esan, hain kontrolatzen nuen jatekoa, nota onenak ere orduan atera nituela. Osea, en plan, buaaaa, robot bat bezalaxe. Ez dut ezer egingo nire gozamenerako, egingo dudan guztia produkziarako izango da. Listo. Eta aterako ditut sekulako nota onak, udarako 'buenisima' egongo naiz, ... eta diziplina horrek ere bai ematen dizu momentu batean gustua, edo engantxatzen du. Boterea daukazu. 'En plan'... bale, hau kentzen badut argaldu egiten naiz, hori horrela da, orduan ala, zerbaitek funtzionatzen du nire bizitzan... hidratoak kenduta argaltzen naiz, ba... hori da. Eta gero ez duzu nahi inork parte hartzea horretan, eta horregatik aislatzen zara, ez duzu nahi lagunekin jan kalean, ze ya ezin duzu kontrolatu zer zabiltzan jaten...” (Ekiñe)

Gorputza kontrolpean izateagatik arduraren horrek, elkarrizketatu guztiek aditzera eman bezala, behin anorexiatik suspertu eta gero ere hor dirau, askoz maila baxuagoan izan arren. Horrek hurrengo galdera hauek planteatzera daramatza:

“Eta gaur da eguna, orain ere, ba ni arduratzen naiz... nire fisikoaz eta... zaintzen jarraitzen

dut, beste eskala batean eta beste... zera baten, baina... bueno eta hori ona iruditzen zait baita ere, e? Baina ezta... eske... non dago muga, ez?” (Geaxi)

“‘Ja’ ez dakit zein puntu arte dagoen lotuta nire gaixotasunarekin, edo gaur egun nik dauzkadan lagunak, ez daukatenak arazorik, bakarrik ‘pues’ gustatzen zaiena ‘muskulitos’ izatea ‘no sé qué’, eta daukate dieta bat ‘no sé qué’... eta nik... ikusten dut parekotasun bat. Eta horrek ez daukate arazorik e? Sinplemente ‘pues eso’... osea, ‘ja’ ez dakit zein puntu arte den... gaixorik zaude... ala osasuntsua zara.” (Ilargi)

Eta galdera hauekin oso puntu interesgarria mahaigaineratzen dute, gorputzen gaineko lanketa, kontrola eta diziplinamendua hain hedatua eta normalizatua dagoen jendarte mendebaldarrean zenbaitzuk anorexiar diagnostikatzea eta antzerako joerak dauzkaten beste batzuk norbanako osasuntsutzat jotzearen zergatia ulertzen zaila baita, ezinezkoa ez esatearren. Paradoxikoa da, Zafra-k (2010: 103) azaldu bezala, *“diagnostikaturik egotea edo ez egotea izatea normaltzat jotzen diren eta ez diren praktika eta jarreraren arteko muga zehazten duena”*. Diagnostikoak zehaztu ohi du norbanako 'normalaren' eta 'nahasmendunaren' arteko banalerroa, nahiz eta funtsean emakumeen ehuneko handi batek izan elikadurarekiko harreman nahiko patologiko bat. Diagnostikorako irizpideak direnak direla, gaixo etiketa korporalki emakumetasunari uko egiten dioten emakumeei jartzen zaie. Ez dago oso argi anorexiaren kasuan, osasunetik edo genero arautik desbideratzea, aukera bietatik zein patologizatzen duen medikuntzak. Batak bestea dakarrelako irudipena eman dezakeen arren, anorexiaren koadro klinikoak barnebiltzen dituen sintoma psikologikoak betetzen dituzten emakumeak ugariak dira, baina diagnostikoak emakume bakan batzuei besterik ez zaizkie egiten, sintoma psikologikoez gain korporalak – emakumetasunaren ezaugarriak ezabatzerako datozenak - ere betetzen dituztenei alegia. Sarri askotan, diagnostikatutako emakume horiek jendartean hain hedatua eta onartua dagoen gorputzen diziplinamendua muturreraino eramateagatik jotzen dira gaixotzat, gakoa diziplinamenduaren neurrian balego bezala. Neurri hori gainditzen duten emakumeei anorexia diagnostikatuko zaie, beraiek ere diziplinamendu muturreko horretan ikusiko dutelarik anorexiaren hasiera:

“Gutxiago jaten..., gutxiago jaten..., eta azkenean gertatu zena ba... gutxiago jatek ba ez jatera... ogitartekoak ezkutatzera, ... eta jaten banuen gero bota, atzamarrak sartu eta bota egiten nuen, kirola egiten nuen pila bat, joaten nintzen korrika egitera... ba igual bi niki...,

beste manga luze bat..., jertsearekin, izerdia botatzeko ahal denik... ahal denik eta gehien, eta... ba horrela. Hori izan zen nire hasiera.” (Larraitz)

“Gutxika hasi nintzen aldaketa horiei bide ematen, apurka-apurka jatordu bakoitzetik zertxobait kenduaz eta kirol gehiago eginaz, egun guztia energia xahutzen eta ia ezer jateko gai ez nintzen puntura heldu arte. Nire buruaren gainean izatera heldu nintzen diziplinak harro eta indartsu sentiarazten ninduen, nahiz eta kanpotik begiratuta edozein puntutan hautsi zitekeen portzelanazko panpina makabroaren itxura izan.” (Maier)

Emakumeen elikadurarekiko harreman ez oso osasuntsuak indarrean dauden mendebaldar jendartean anorexia diagnostikoak diziplinamendu muturreko honetara heltzen diren gorputzei egitea adierazgarria da oso, diagnosiak gehiago ematen baitu genero arautik desbideratzen diren gorputzak berriz erregulatzeko saiakera bat beste ezer baino. Emakume prototipoaren idealari jarraiki erritu amaigabeen zirimola batean sartuta ez aurrera ez atzera dabiltzan milioika emakumeek alarma egoera sortzen ez duten bitartean, prototipo hori alboratu eta gorputz androginoago bat eskuratzean tematzen diren emakumeak guztiz aztoratzen ditu medikuak. Badirudi limiterik gabeko anorexiadun emakumeen auto-kontrola mehatxu bezala antzematen dela, hauek noraino heldu daitezkeen jakin ezinak artega eragiten du.

“Zuk momentuan esaten duzu... pixka bat gehiago, osea, pixka bat gehiago... eta inoiz ez duzu ikusten limiterik, esaten duzu 'pixka bat gehiago' eta ... klaro, niri esan zidaten 'noiz arte nahi duzu pixka bat gehiago? Noiz arte?’” (Ilargi)

Marko teorikoan aipatu bezala, anorexiadun emakumeak badauka mehatxagarritik zer edo zer, jendartean hainbeste gurtzen den auto-kontrol eta gorputzaren diziplinamendua berak kontrolatzeko hautua egiten baitu, honek bera kontrolatu aurretik. Badirudi bere gorputzaren gaineko diziplinamendu horrekin egun jendartean daukan tokiaren ordeko beste toki aproposago bat lortzeko negoziazioetan dabilela, gorputzari emakumetasun zantzuak ezabatzeak zerikusia izan baitezake espazio publiko maskulinoan hain zapalduta ez legokeen beste toki bat egin beharrarekin. Gizonezkoen neurrira egindako jendartean emakume gisa aurrera egin ahal izatearen lan nekeza medio, emakume hauek gorputz androginoan aurkitzen dute erdibideko irtenbide bat. Emakume gorputzek izan ohi dituzten bereizgarriak ezabatzearekin espazio publikoan askatasunez aritzea

eragozten dien generoaren trabak paretik kentzen ahalegintzen da anorexiaduna.

6.2. Anorexia, genero arauan arrakala

Elkarrizketatu ditudan emakumeek adin ezberdinetan eman zioten hasiera anorexiari. Kasu goiztiarrena bi neba-arrebetan txikiena den Amalurrena da, bizitako sexu abusuek txikitatik bultzatu baitzuten anorexiara:

“Nik gogoratzen dut urtebetetze bat, nire urtebetetzea zen, ba igual edukiko nituen ba bederatzi bat urte edo, eta izan zen lehenengo... nik... anorexiarekin lotura izan dezakeen lehenengo ekintza edo, ba izan zela... ba... asko jan nuela nahita, osea kontziente, nahita jan nuela asko, eta gero botaka egin nuela. Eta, ba bueno... nik, umea nintzenean ere... banekien hori ez zela... ez zela normala, baina ez nekien oso ondo zergatik egiten nuen. Eta ez zen ere zerbait jarraia. E... zen bueno, ba noizean behin egiten nuen zerbait, baina ez nuen pentsatzen ez... zergatik egiten nuen ez... mmm... ez nien gurasoei esaten hori egiten nuela, egiten nuen... ezkutatuta, eta bueno... 'pues' urteak pasatzen joan ziren eta ni asko aldatu nintzen.” (Amalur)

Badirudi Amalurrek bizitako indarkeria matxistak oso txikitatik emakume gorputza zerbait arriskutsutzat bezala hautematera eraman zuela, 9 urteetatik buru-belarri ekinez bere gorputzeko emakumetasun zantzuak ezabatzeari. Beste kasu batzuetan, prozesu hau nerabegaroko aldaketen atarian ematen da, emakume bilakatzearen ideia hutsak bertigoari sorraraziko balie bezala. Egun emakume kondizioaz pozik azaltzen den Geaxi da horren testiguetako bat:

“Nirea izan zen pixka bat nerabegaroa baino lehenago, ba... egin nuen atzeratu. Ba bularrak hastea..., hilerokoa etortzea, ni... niri igual DBH 4an gertatu zitzaizkidan aldaketa horiek denak. Orduan... nik... ba denak... garatzen ari zirenean nik neukan... gorputz fin fin fin bat eta ez... ez, aldaketarik ez neukan asko. Atzeratu egin nuen nik. Anorexiaren ondorioz...” (Geaxi)

Aldaketak oztopatze hori emakume gorputza garatzearen kontrako ekintza gisa joko lukeen galdetzen diodanean ostera, Geaxik horretan inoiz pentsatu ez duen arren bere anorexiaren atzean

horrelako asmorik egon izana dudan jartzen du, zera gehituz:

“Nirea gehiago zen ba horixe, ba argal egotea eta... onena izatea denean, eta... eta onartua izatea, eta... Gehiago, uste dut, alde horretatik zela. Igual bai, esaten duzula, igual... gero 'ja' hobeto nengoenean eta hasi zirenean ba horixe, aldakak zabaltzen..., eta horri pixka bat bertigoa banion.” (Geaxi)

Geaxiren azken esaldiak, berak uste duenaren kontrara, emakume gorputza izateak sortzen dion halako artega baten presentziaz ohartzen gaitu. Antzerako artega batek gidatuta nerabegaroko gorputz aldaketan ematen hasiak zirela ekin zion hiru neba-arrebetan txikiena den Maierrek ere pisua galtzeari, berandu barik titiak eta hilerokoa ezabatzea lortuz:

“Denbora gutxian agerikoa bilakatu zen ostera naturaletik ezer gutxi zeukala aldaketa horrek, egunak joan eta egunak etorri argalagoa bainengoen, gutxiago jaten bainuen eta nortasunari dagokionez ere beste pertsona bat bilakatu bainintzen. Jada ez neukan ez titirik ez hilerokorik, halako gorputz androgino bat eraiki nuen. Ordurako zaila zen iraganeko neskato alaiaren aztarnarik aurkitzea, momentu batetik bestera mundu guztiaren aurka zegoen jenio txarreko edo tristura biziko pertsona bilakatu nintzen. Ordura arte ingurukoekin atsegina nintzen honek, bere barruan ezkutatzen zuen alderdirik ilunena atera nuela esango nuke, eta iluntasun hori kanporatze horretan nire gorputzean buruturiko modifikazioa lagungarri zitzaidan.” (Maier)

Gorputz androgino hau eskuratzea eta genero femeninoaren mandatuen arabera normalak izan beharko litzatezkeen zenbait jarrera gaitzestea elkarrekin lotzen ditu Maierrek:

“Makillajea, beherapenak, mutil katxarroak, txutxu-mutxuak, ... aspertu egiten ninduten lagun artean ohikoak izaten ziren hizketagaiak. Esan behar dut anorexia izan aurretik nerabeen aldizkariaren zale nintzela, eta gogoz irensten nituela makillaje, arropa eta mutil katxarroen inguruan aldizkariok zeuzkaten edukiak. Horrek hika-mika asko eragin zituen ama eta nire artean, honek ez baitzuen nahi nik horrelakorik kontsumitzerik, gustuko ez zituen mezu eta emakume eredu hedatzen baitzuten. Ironikoa da nola eduki horiek xurgatzea desiratzetik edukion gainean desinteresa izatera pasatu nintzen emakume irudi

prototipoaren esklabo izatearekin lotzen den anorexia pairatzean.” (Maier)

Ilargiren anorexia kasua da elkarrizketatuetatik berantiarrena, nerabegaroko aldaketak atzean utzi zituenetik urteak igaro zirela hasi baitzen amaierarik gabeko pisu galeran. Modaren jarraitzailetzat jotzen den honek egun ere muturreko argaltasuna gustuko duela dio, androginotasun horretan zerbait miresgarria ikusiko balu bezala:

“Baina hori da, ni ez, niri gustatzen zait... adibidez beti izan dut super paranoia hemengo hezurrekin (klabikula seinalatzen dit), 'que se me noten. Me encanta.' Eta aurpegia super txupatuta izatea. 'Pues' zen 'como'... ez dakit, osea, hori zen nire... eta niri gustatzen zitzaidan, osea, eta nik ikusten dut horrelako jendea, 'ez hildako aurpegia daukaten modelo mitikoak', baina modelo oso oso argalak, 'hildako itxura izateko puntura heldu gabe, niri gustatzen zait, eta diot 'jo es que...' ', eta jendeak 'baina nola gustatu ahal zaizu hori, ez baldin badaukate ezer'. Eta niretzako ez, gustatu egiten zait, osea, gustatu egiten zait. (Ilargi)

Hala ere, muturreko argaltasun hori ez zaio kontraesankorra iruditzen emakumetasunarekin:

Bai... baina ez dut ikusten antifemenino. Niri hori gustatzen zait, orduan, ez dut, 'no lo veía menos femenina'. Nire amak bai esaten zidan 'joe, gorputz bat daukazu... 14 urteko umearena, osea...'. Eta 'de hecho' nire mutila heldu da, heldu zan, bueno hori klaro, gauzak hauek esaten dizkizu gero, baina esaten dit 'jo, es que me daba palo, e, ikutzea, 'porque... osea', ikusten zintudan eta esaten nuen 'ai ama, haur bat ematen du eta''. Eta nik... ez nuen ikusten antifemenino. Osea, ez dut ikusten nik nire... ni sentitzen nintzen super emakume gorputz horrekin, ez nintzen sentitzen ume. Niretzako ez zen...

Eta egia da ez daukazula emakume baten gorputza, 'porque ya te digo', nintzen horrela, pla (estutasuna eta zuzentasuna – kurbarik eza - adieraztera datozen bi marra zuzen marrazten dizkit airean), osea ez neukan ezer. Titi barik, ipurdi barik... osea, horrela zen. (Ilargi)

Eta gehitzen du:

“Nik ez dut bilatu prototipo izatea, pffff, 'para nada'. Eta egon da nire ametsetan izatea 'la

tia... osea, que no, que me daba igual', izan da niri gustatzen zaidana, eta punto, nik ez dut nahi besteei gustatzea, 'con que me guste a mi ya me vale', ez zait axola.” (Ilargi)

Ilargik aipatutakoak adierazgarriak iruditzen zaizkit, berak ez baitio inoiz emakume sentitzeari utzi, nahiz eta nabaria den emakumetasun hori gorputzeko era alternatiboak bilatzeko gorputz-lanean jardun duela. Argi dio berak ez duela inolaz ere besteen gustukoa izatea bilatu, are gutxiago emakume prototipoa izatea. Eta muturreko argaltasunarekiko lilurak esandakoak baieztatzen ditu, gorputz androgino horrek gustuko izatearen kontrakoa bilatzen duela iruditzen baitzait. Anorexia bizi izan duen emakume naizen honek ere bizi izan dut gorputz hezurtsuak ederresteko joera, neu ere muturreko argaltasun horretan halako edertasun makabro bat begiztatzera heldu naiz, eta nago edertasun horrek gorputzarekin berarekin baino zerikusi gehiago daukala honek gorputzen duen protestarekin. Gorputz androgino bat eskuratzean, ohartzeke, anorexiadunak hainbeste itotzen dituen genero arauaren kontra altxatzen dira. Eta protesta horren gorputzea, beste edozein motatako protesten irudiekin gertatu ohi den bezala, halako erromantizismo halo batez janzten du sarri anorexia bizi duenak.

6.2.1. Gorputzaren modifikazioa negoziazio sozial gisa

Generoari dagokionez, gorputz-lanaren bitartez emakumeak eta gizonak munduan egon eta jarduteko forma ezberdinetan hezten dira, jendarte ordena heteropatriarkalaren mantenurako beharrezko formetan alegia. Anorexiadun emakumeek ostera emanda datorren gorputz-lan horretan esku hartzen dute, halako errebelamendu inkontziente bat martxan jarriaz. Munduan egon eta jarduteko esleitu zaizkien manerei itogarri deritzote, eta itolarri horretatik askatzeko era desesperatuan gorputzaren modifikazioari ekiten diote. Feminitatearen mandatuak muturrera eramateko ekintza ia-ia performatibo honen bidez jendartean betetzea tokatu zaien negoziazio bati ekiten diote.

“Mediku, endokrino, psikiatra eta psikologoek kontsultatik pasa ostean anorexia neukala eta epe jakin batean pisurik berreskuratu ezean ingresatu egingo nindutela egin zidaten mehatxu. Eta beti burugogor izan naizen honek mehatxu horren aurrean burua makurtu ordez amorruez ekin nion neureari Galdakaoko ospitalean ingresatu arte, ez nengoen prest jatekoaren gainean neukan kontrola beste norbaiten eskuetan uzteko.” (Maier)

Oraindik ere negoziaketa batean ariko balitz bezala normatibitate pixka bat desbideratzen den estetika erabili ohi duen Maierren kasuan argi ikusten da negoziazioarako premia hori, ospitaleratze mehatxuekin ere ez baitzuten lortu honek esku artean zekarren negoziatioari planto egitea. Ez da harrizkoa honen burugogortasuna ordea, gorputzaren modifikazio behar hori denboran atzeragotik baitzeturren eragiten eta diagnosis ordurako bere helburua kosta ala kosta lortzeko mentalizatuta baitzegoen:

“Ez dakit esaten noiz sartu nintzen elikadura arazoan espiralean, baina 44 kilo eskas horiek izatera heldu arteko prozesua ez zen egun batetik besterakoa izan. Gogoan dut 12 urterekin jada, gorputza eraldaketa betean murgilduta neukala, buruan bueltaka zebilkidala nire gorputza aldatzeko beharra. Nolabait esateko, gorputzaren eraldaketa natural horri neure eraldaketa propioarekin erasotzeko nahi bat zebilkidan barrenean, non neuk nahi nuen izan aldaketa horien gaineko kontrola izango zuen bakarra.” (Maier)

Bi aizpetatik zaharrena den Katrinek, bere partetik, pisu galera bidezko negoziatio inkontziente horretan aurkitzen zuen lasaitasuna, eta pasatzen zitzaiona arazotzat jo arren horrekin aurrera egin nahi zuen. Ez zeukan sentitzen zuen ondoeza baretzeko beste biderik:

“Nik... hasieran ez nuen ikusten... eta gero esaten zidaten amari esango ziotela, nola banekien mina egingo ziola 'pues' ez nuen nahi esatea. Eta orduan lagunak: 'ba orduan ondo portatu behar zara', ez dakit zer, bai... ba beraiek ikusten zidaten. Eta gero... banekien arazo bat neukala... baina ez nuen nahi konpontzea. 'Porque' horrela nola lasaitu egiten nintzen, ez nuen nahi konpontzea, 'porque' bestela ez nekien nola lasaitu...” (Katrin)

Ilargik ere bide beretik aurkitu zuen beste inon aurkitzen ez zuen erosotasuna, eta ingurukoek bigarren pertsonengatik argaltzen zela uste bazuten ere, berak argi dauka beregatik egiten zuela egiten zuena. Pisua galtzea bere erosotasun iturri zen:

“Esaten zidaten 'jo, baina ez bazara irteten zertarako nahi duzu argal egon?', besteentzako argala nengoelako ideiatik, eta nik 'ez, ez, argal nago niretzako, niri zuek ez didazue axola, 'que me la pelais', osea... eta zen sentsazio hori, eta bai egia zen ba hori bakardadea

sentitzen duzula, baina alde batetik gustatzen zaizu, osea ni nengoen komoda, 'en mi bola'. Gaur egunean ez nintzen egongo komoda, badakit, nire burua sano izanda ez, baina momentuan bai nengoen komoda, gustatzen zitzaidan.” (Ilargi)

Gorputzen modifikazioaz emakume hauek jendartean izatea nahiko luketen posizioa negoziatzen duten arren, bakoitzak bilatzen duten posizio hori oso pertsonala da. Negoziazio oro emakumeek daukaten menpeko posizioak eragindako ondoezak eraginak badira ere, jatorria ez bezala jo puntua ezberdina izan daiteke, norbanako bakoitzak berak baitaki zer lortu nahi duen negoziazio horrekin. Batzuk espazio publikoan askatasun gehiago izateagatik borrokatzen duten bitartean, beste batzuk espazio publikotik desagertzeagatik borrokatzen dute. Hauxe dio gaur egunean espazio publikoan barrena pausu irmoz eta ahots ozenez jarduten ikasi duen Amalurrek:

“Gaur egun uste dut uste baino kontzienteagoa nintzela zer gertatu zitzaidan eta uste baino kontzienteagoa nintzela zer nahi nuen lortu ez jaten, eta zen lortu nuena, osea... inork ez... osea... pertsona ez erakargarri bat sortzea. Osea... pertsona gaixo bat, zaindua, babestua, bere kristal... kristalezko bolan, eta hor... hortxe, ez? Nik hori nahi nuen, osea, nik hori nahi nuen, nik eske ez nuen nahi inork ukitu, ukitzea, osea... eta... eta nik uste, osea, gaur egun uste dut e... kontziente, osea, momentuan uste nuena baino kontzienteagoa nintzela hortaz, bai.” (Amalur)

Amalurrek garai hartan egiten zuenagatik zeukan kontzientzia uste baino agerikoagoa iruditzen zaio atzera begira jartzen denean. Eta horrek zera erakusten du, anorexiaduna gertatzen zaionaren inguruan estrategikoki jarduteko gaitasuna duen agente aktiboa dela.

6.2.2. Emakume kondizioari errebelamendua

Nik elkarrizketatutako emakumeen kasuan, behintzat, argi gelditzen da anorexiadunak, agente aktibo gisa, estrategikoki jokatzeko duela – estrategia hori inkontzienteki martxan jarria bada ere - esku artean darabilen negoziazioan, eta estrategia nagusi gisa emakume kondizioari errebelatzea darabilela. Emakume kondizioa barneratzeari uko egiteak hain deserosoa zaion genero femeninoaren aginduetatik at mantentzen du. Emakumetasuna onartzea ekiditeko aukera bat haurtzarora mugagabea bilakatzea izan daiteke:

“Ba... ba ni..., bueno... bai... bai igual, e... ba txikitako gertaera hori (abusuak)... pixka bat kanalizatu arte bai, bai, bai, deseroso, bai, bai. Bai... bai, nik uste bai modu batera kontziente nintzela ez jaten ateratzen zela nire, osea, nire umea... beti... osea, ez dakit, kronifikatzen zela, osea, ez? Beti ume, ez? osea... ez zitzaizkidan titiak ateratzen..., e... ez dakit, mmm, ez neukan (emakume) formarik , osea..., eta nolabait hori zen bilatzen nuena. Hori zen.” (Amalur)

Amalurri, hain txikitatik anorexia bizitzea tokatuta, posible egin zitzaion haurtzaroa behar baino denbora gehixeagoz luzatzea. Anorexia jada haurtzaroa atzean utzi eta emakume bilakatzeko prozesuan agertu den kasuetan aukera hori ezinezkoagoa bilakatzen da, emakumetasuna eraistea delarik irtenbide aski erabilietako bat:

“Eta... hori, 'yo mi me conmigo'. Ba... ni, nire burua... eta denbora oro nire buruari begira, hori zen nire... Eta gero perfekzionista, beti izan naiz... gauzak perfektu... egitea gustatu izan zait. Banoa ikasten ba ezin dela horrela izan... ezta? Baina... bai, nik uste perfekzionismo horren barruan sartzen dela baita ere ba hori, gorputz perfektua edukitzearen nahi hori edo, ez dakit. Bai pentsatzen dut anorexia daukaten, eduki duten horiek direla pertsona batzuk oso zorrotzak direnak beraien buruarekin, oso. Oso oso zorrotzak. Eta ni bai... oso zorrotza naiz nire... nire buruarekin.” (Larraitz)

Anorexiaren agerpenak nortasunean aldaketak eragin zizkion galdetzerakoan, anorexia izan aurretik jatorra eta atsegina zela dio Larraitzek, baina anorexiarekin bere buruaz ez beste inorenaz arduratzen hasi zen. Besteak zaintzeko joera eta besteen aurrean atsegina agertzeko ohitura baztertu egin zituen. Ezaugarri femininotzat jotzen diren hauek bere helburua lortzeko baliagarria zitzaion perfekzionismoagatik aldatu zituela esan daiteke, eta behin krisialdia pasata besteak zaintze hori – maila ezberdin batean akaso - berriro ere barneratu duela ondorioztatzen dut, irakaslearena baitu ogibide. Katrini antzerako zerbait gertatu zitzaion, ordura arte atsegina eta alaia izan arren anorexiarekin umore aldaketak bizi izan baitzuen:

“Ze baita ere hasi nintzenean anorexiarekin eta horrela eta... umorea aldatu egiten zaizu, eta 'ja' umorea aldatu eta 'ja' denak: 'eta joe, eta zu 'ja' dena borde... eta zergatik zaude

horrela?'. Eta nik: 'baina, eta zuek horrela zarete egunero!', ez?, osea, nik aguantatzen dut...' (Katrin)

Maierek itzulingururik gabe dio emakumeengandik espero den jarreraren kontra atentatu zuela anorexiarekin:

“Nire buruarengan aginte bakarra neuk neukala adierazteko beharra sentitzen nuen, eta amorruez erakusten nuen. Esan daiteke ordura arte izandako neska fin eta onaren paperari uko egin niola, urteetan zehar paper hori besteen gogoko izateko betetzen aritu izanak nekatu izan banindu bezala.” (Maier)

Ospitaleratzeak, gehitzen du, atentatu horrekin jarraitu eta emakumetasunarekin behin betiko sarraskia egiteko izan zitzaion baliagarri:

“Ospitalean emandako bi hilabeteak erabakigarriak izan ziren besteen gustuetara moldaturiko nire Nia eraiki hori guztiz txikitzeko. Ospitaleko ateak zeharkatu zituen Maier perfekzionista, puntarengo ikasle, kirolari fin eta beti manera onekoa hantxe geratu zen. Beti esan izan dut ospitaleko gela berde hartatik gandorrarekin atera nintzela, jendartearen gainean oka egiten emango nituen aurrerantzean urte asko. Haserre nengoen munduarekin, eta ondoeza hori gorputzeko poro guztietatik azaleratzen nuen.” (Maier)

Ezagutu ginenetik bere umoreagatik nabarmentzen dela iruditu zaidan Ilargirentzat ere anorexia ordura arte eraikia zeukan maskara apurtuko zuen detonagailu baten antzerakoa izan zen. Behin eztanda eginda, emakume alaiaren maskara kentzea lortu zuen, eta horrek liberatu egin zuela dio:

“Orduan, bai, egia da 'que ya' behin esan nuenean 'ja' izen zan 'como'... niretzako hori baino gehiago izan zen askatasuna, osea, liberatu egin nintzen, 'ja' ez nuen disimulatu behar, 'ja' ez nintzen izan behar 'super happy' kaka sentitzen nintzenean. Kaka zaharra bezala sentitu eta kaka zahar bezala jardun nezakeen... Orduan niretzako bai izan zen, modu batean, osea, mmmm, 'caída en seco', baina askatasun bat hori, ze... nire etxean, nire mutilarekin edo 'tal', izan ahal nintzen momentu horretan nintzen bezalakoa, disimulurik gabe.” (Ilargi)

6.2.2.1. Anorexia: gudu zelaian trintxera

Behin emakume kondizioari errebelamendua eginda, elkarrizketatuek adierazi bezala, liberazioa sentipenak hartzen ditu anorexiadunak. Argaltasun muturreko baten bidez itotzen zituen genero arauaren kontra atentatu ostean, izatearen-krisi betean den norbanakoak anorexiaren aterpean hartzen du atseden. Anorexia bilakatzen zaio libratu duen gerran trintxera, baina defentsarako lubakiak ez dio ziurtatzen guda horretatik albo katerik gabe ateratzerik. Estrategia nagusia behin martxan jarrita, hurrengo mugimendua zein izan beharko litzatekeen argi izan arte hortxe hartuko du aterpe anorexiadunak.

Amalurren amak, aita bezala irakaslea denak, gogoan du nola bizitasunak gainezka egiten zion bere alaba halako estalpe batean ezkutatu zen bat-batean:

“Osea ni, eske amak esaten dit 'eske zu... umea zinenean zinen... marimatraka bat zinen eta gustatzen zitzaizun antzerkia, gustatzen zitzaizun abestea, gustatzen zitzaizun ...' eta gero, ba bat-batean, izan zen desagertze moduko bat, ez?” (Amalur)

Eta Amalurrek berak ere gogoan du nola desira zuen halako desagertze bat, atseden hartze bat, orduko hartan loaldi sakon eta luze bat bezala identifikatzen zuena:

“Bai. Bai, zen sentsazioa... osea, nahi duzula egon lo bezala, bizitza guztia lo. Lo. osea, ez hil, nahi duzu lo egin, lo egon. Osea nik askotan esaten nion amari 'eske nahi dut lo egin, gauean ohera joan eta ez esnatu, eta egon lo, goxo'. Osea, hori zen, hori esaten nion, eta esaten zidan amak 'baina nola?!', klaro eta horrek nire amari kristoren mina ematen zion. Eta... bueno, bai, baina hori zen sentsazioa, eta... eta nire emakume, emakumetasuna... nolabait... atzeratu nahi nuen edo ez nuen nahi esnatu, ez nuen nahi esnatzea. Bai...” (Amalur)

Ekiñek ere kobazulo bati buruz hitz egiten du, nor zen edo zer zen jakin arte bizitzeko egokia iruditzen zitzaion haitzulo bat bailitzan:

“Baina bai, hori zen, egotetik super artifizial eta besteentzako erakusleiho batean... esatera: 'Eh! Banoa nire kobazulora eta aterako naiz gero, zer naizen dakidanean'. Esango nuke horretan lagundu zidala (anorexia pairatzeak).” (Ekiñe)

Larraitz eta Ilargik ostera isolamendu edo bakantze bat bezala gogoratzen dute anorexiaren gudako trintxerara erretiratze hau. Bakantze horretan aurkitzen zuten halako baretasun moduko bat:

“Bai, gero 'ja'... gehiago murgiltzen zara zure munduan ere bai, ... bai, ez zara... hori egiten zara pixka bat... irten edo... ez dakit, isolatu ez nuke esango e? Baina... baina pixka bat bai, zure... eta besteekin egoteko gogoa ere tamainan. Ez dakit. Eta orduan... daukat oroitzapena ordu asko pasatzen nituela bakarrik, bai... eta gero ba bueno, ba azkenean alaba bakarra naiz eta gurasoak ordu bietarako lanera joan eta gaueko hamarretan etorrita ba pentsatu zenbat ordu dauden hor... bakarrik egoteko.” (Larraitz)

“Bai, ez nuen nahi egon inorekin, ez nuen behar inorekin berba egiterik... osea, ez, zoriontsu nintzen, kaketxa artean, bakarrik. Eske ez zitzaidan axola munduak, bakarrik neure buruak axola zidan, punto, beste ezerk ez. Nire burua eta egun horretan jango nuena, hori zen nire ardura bakarra. Orduan mundua 'como que era otra cosa aparte'... hori da gaixorik egotea, klaro. Gaur egunean hori ez nuen onartuko 'ni para atrás'.” (Ilargi)

Maiarren aburuz ere, anorexia izan zen garai hartan aurkitu zuen gordeleku erosoia. Ordura arte zeraman bizi erritmoa gelditzeko beharrak eraman zuen hortxe tokia egitera:

“Oroitzen dut nola eskolan bikainak bata bestearen atzetik ateratzetik, ingresatuta nengoela ekartzen zizkidaten etxeko lanak baztertzer pasatu nintzela. Pasotismo hori ez nuen batere ohikoa ordura arte, baina argi gogoratzen dut nola sumatzen nuen geldialdi baten falta eta nola neukan oso argi neure buruari denbora hori esleituko niola. Nekatuta nengoen ordura artekoarekin, eta esan daiteke anorexia bilakatu zela nire gordeleku... bakarrik hantxe aurkitzen nuen erosotasuna. Norbait molestatzera hurbilduz gero, neurritz kanpoko haserrearekin erasotzen nion. Ironia eta zakartasunak xalotasuna zapaldu zuten nire barnean.” (Maier)

Denak ere beraien bizitzetan halako parentesi bat zabaltzeko beharrari jarraiki hartu zuten aterpe anorexiaren magalean. Esku artean zeukaten negoziaketarekin aurrera egin ahal izateko libratu-rik gudan, etenik gabeko pisu galerari ekiteko strategiaren ostean hurrengo pausua eman arte erretiratzea erabaki zuten. Baina askatasun iturri izaten hasitako erretiro hori kartzela bilakatu zitzairen egunak aurrera egin ahala beraien burua strategiari jarraitzeko pausurik aurkitu ezinean aurkitzean.

6.2.3. Hasierako askatasuna, geroko kartzela

Anorexiaren aterpeak hasiera batean eskaintzen duen erosotasuna galduz joan ohi da egunen igaroarekin. Errebelamendu grinaz martxan jarritako protesta geroz eta maneiatu ezinezkoagoa bilakatzen zaio anorexiadunari, eta berak ekindako iraultza pertsonal hori bere kontra egiten hasten da. Berau kontrolatu nahi duen hori kontrolatzeko serio hartutako praktika obsesio bilakatzen zaio, eta obsesio hori neke iturri bilakatzen da. Egundak joan eta egundak etorri, anorexiadunak hasierako burujabetasunaren zantzu guztiak galduko ditu, hasiera batean estrategia zen pisu galera obsesio bilakatzen zaionean mandatu patriarkalaren menetara egotera pasatzen baita. Nekea nagusitu ahala, patriarkatuaren alaba zintzoa nola, anorexiaduna ahula, ahotsik gabea eta asexuala bilakatzen da:

“Bai, ba... ibiltzen nintzen, e... tapatuta bezala. Bai. Bai. Bai ba... ez dakit, osea, neukan sentsazioa 'inork ez banau ikusten hobeto', pixka bat sentsazio hori. Bai. Bai. Ba... ez dakit, ba arropa adibidez... zabala janzen nuen... ez dakit... ez dakit, ez? ba adibidez nire familian edo nire... nire etxean beti ba gurasoak izan dira oso parte-hartzaile... eduki dute lotura pila ba musikarekin, edo herrigintzan ere bai asko... asko ibilitakoak izan dira, nire anaiak... ba militatu du ba... mugimendu, osea, herri mugimenduan 'pues' eremu pila batean, eta nik... nahi nuen baina... baina ez neukan... ez nuen nahi ikusia izan, edo... baina banuen nolabait hor gogo bat... Ez neukan indarra, neukan gogo baina... pfff, esaten nuen 'eske, pfff!', niretzako mundu bat zen, niretzako mundu bat zen... ziren gauza asko. Talde baten aurretik edo jende talde baten aurretik pasatzea mundu bat zen, edo... norbaitek zerbait polita esaten bazidan mundu bat zen, bai...” (Amalur)

Amalurrek argi adierazten du ahul eta ahotsik gabe geratze hori. Ekintza ezberdinak aurrera eramateko gogo baina izan arren ahul sentitzen zen horrelako ezer egiteko, eta jendartearen aurrean ageriko

egiteak ahalegin ikaragarria suposatzen zion. Puntu honetan, anorexiaduna nekez zentratu daiteke bere plateretik haragoko ezertan.

Asexualitatea ere agertu daiteke anorexiaren kartzela habitatzera heltzen direnengan, beraien gorputzekiko eratzen duten harreman suntsitzaileak sexualitateaz gozatzea eragozten baitie:

“Ez nion neure buruari plazererako tarte gehiegirik uzten, zerbaitek oztupoak jartzen zizkidan libreki gozatzeko. Behin eta berriz ahalegintzen nintzen aurrerapausoren bat ematen, baina inoiz ez nuen lortzen nire desira guztiz askatzea... nire gorputzarekin neukan harreman negatiboa oztupo ikaragarria bilakatzen zitzaidan.” (Maier)

Eta gehitzen du:

“Harreman negatibo hori tarteko, harreman sexu-afektiboetan egun inolaz ere onartuko ez nituzkeen zenbait jarrera onartu izan ditut edo oharkabean pasatu izan zaizkit. Atzera begiratu ezker, zenbait ekintzek umiliatua eta bortxatua sentiarazten naute. Neure autoestimua indartzeko bultzada hori besteengan - hau da, gizonengan - bilatu izanak indarkeriazkotzat jotzen ditudan jarrerak bizitzera eraman nauela uste dut.” (Maier)

Geaxik ere autoestimatu txuteak gizonaen onarpen horretan bilatzen zituela dio, gaur egun oso larritzat jotzen duelarik berak izan duen eta emakume askorengan ikusten duen joera hori. Irakaslea da, eta nerabeetan antzerako jarrerak mantentzen direla ikusteak larritu egiten du:

“Eta gero baita, askotan pentsatu dut... ba hori, ez? Urte horietan... juergan ateratzen hasten zara, mutilekin erlazionatzen, orduan... hor bai, ba argal zegoenak gehiago ligatzen zuen, ez? Zera hori, hori... eta... 'pues' ni ahal nuen guztiekin liatzen nintzen, eta zen asko... autoestimua kontua baita. Urteak pasa direla orain konturatzen naiz ba bilatzen nuela... onarpen bat, juerga, eta zen dena fisikoa, ez zen... osea, ligatzea zen helburua. Ez zen garrantzitsua pertsona interesgarri bat ezagutu eta harekin trago batzuk hartzea, ez, liatzea. Hori oso gogorra iruditzen zait, eta nik uste dut neskak, gaur egun neska pila batek...” (Geaxi)

Testigantza hauek entzun eta gero, esan daiteke bazegoela desiratua sentitzeko nahi bat emakume hauengan. Wolf-ek azaltzen du nola emakumeek liburu zein filmetan desira gizonezkoaren ikuspuntutik aztertzen duten, eta horren ondorioz *“neskatoek ikasten dutena ez da beste izaki baten desira, desiratuak izatearen desira baizik”* (Wolf, 1991: 203). Ideala dinamitatu nahirik errebelamendu espirituz altxatutako emakume hauek ere, azken finean, mandatu patriarkalaren menetara egotera pasatzen dira. Zeharo burujabe sentitzetik, onarpena gainontzekoengan – gizonezkoaren onarpenak gehiago balio duelarik – bilatzeko beharra sentitzen dute. Ohartzeke, ekidin nahi zuten guzti hori gainera erortzen zaie. Derrepente planak aldrebesten zaizkie, eta horrek anorexiaduna nahasi dezake. Larraitzek, dena den, gogoan du zerbait gaizki zihoalako sentipena nabari izana, harrapaladan laguntza eskatzera bultzatu zuena:

“Nintzen kontziente, 'ez nabil egiten gauzak ondo', baina 'hau da egin nahi dudana', baina... ba hori, ba laguntza, esaten duzula 'ostias, es que... sei hilabete nago hileroko barik'. Niri horrek egin zidan, nik pentsatzen dut bestela, ez nintzela... zeren ez nintzen ez zorabiatu, ez ahul sentitu, ez... ez nuen eduki... horrelako hori.” (Larraitz)

Anorexiadunak bere aldarrikapena zenetik kartzela bat egiten duen unean emakume hauek norabidea galtzen dutela ematen du, eta noraeza horrek gehiago ala gutxiago iraun dezake. Larraitz azkar ohartu zen orientabidea galdu zuelako detailearekin, baina azkartasun hori ez da kasu guztietan ematen. Kasu bakoitza - bizi duen norbanakoa nola - bakarra denez, anorexia duen emakume bakoitzak denbora tarte ezberdina behar du atxilo duen kartzelatik ihes egin behar duela ondorioztatu eta ihesaldia prestatzen hasteko. Ihesaldi horren nondik norakoa bidean aurkitu ditzakeen trabei aurre egiteko dauzkan tresnen araberakoa izango da.

6.3. Suspertzea mugarri

Anorexiadun emakumeak bizi duen noraeza atzean uztea erabakitzen duen momentutik suspertu arte igaro daitekeen denbora kasuaren arabera aldakorra den arren, orokorrean luze jotzen duen prozesu bat izaten da. Hain luzea, ezein suspertze prozesuari buruz galdetu zaienean elkarrizketatuek ez dutela jakin zehazki zein momentutan berreskuratu zuten ongizatea:

“Ez dakit... ez dakit badagoen momentu bat, bai, ez dakit dagoen momentu bat. Gero

konturatu naiz ez nagoenean oso ondo sartzen zaidala hori (jateari uzteko gogoa), eta identifikatzen dut eta ba, baina klaro... guztiz-gutztiz... hor unibertsitateko bigarren mailan uste dut baietz.” (Ekiñe)

“Apurka-apurka, ahaldunduz joan nintzen. Neure buruari arreta gehiago jartzen hasi nintzen, ohitura kaltegarriak alboratu nituen, errealitateari aurrez aurre begiratu neure bizitzaren gidaritza hartu eta benetan nahi nuena egiten hasi nintzen. Unibertsitate ikasketak amaitu eta berehala Bartzelonara alde egin nuen ikastaro pare bat egitera, nire ingurutik atera eta bizitzaren norabidea aldatzeko premia neukan. Iragana atzean utzi eta aurrera begira jarri nintzen, konturatu orduko jatekoak nire bizitzaren erdigune izateari utzi ziolarik. Harrigarria dirudien arren, urteetan zehar zeharkatu ninduen arazoaz zeharo ahaztu nintzen. Horretaz jabetzerakoan neu izan nintzen harritzen lehena, ondo sinetsi arazi zidaten arazo horrekin bizitzen ikastea beste biderik ez nuela izango.” (Maier)

Maierek sinetsita zeukan anorexiari buelta ematea ezinezkoa zela eta hau bere bizitzako parte gogaikarri bezala onartu beharra izango zuela, harrigarria dirudien arren sorpresaz harrapatu zuen suspertzeak. Bartzelonara ikastera joatea erabakigarria izan zela dirudi suspertze hori emateko. Ekiñek ere unibertsitateko bigarren mailan kokatzen du susperraldi erabatekoa, ikasketen aitzakiaz herritik hirira bizitzera joana zela.

Adierazgarria iruditzen zait suspertzea emateko testuinguru apropos hori norbere ingurutik kanpo aurkitzeko joera, izan ere *“kasu askotan ezinbestekoa da espazio eta erlazio zaharrekin haustura bat ematea adiskidetasun, erlazio sexu-afektibo, praktika korporal edota performatibitate forma berriak esperimentatzeko”* (Esteban, Bullen, Díez, M. Hernández, & Imaz, 2016: 286). Aurrerago ikusiko dugu haustura hori bi kasu hauetan baino gehiagotan ematen dela, nolabait anorexia bizi izan duen emakumeak ikaragarri mugatzen duen gaixo etiketatik libre jardun eta garatu dezakeen testuinguru bat bilatuko balu bezala.

Atzerrian bizi izandako Larraitzek ez du kokatzen suspertzea, difuminatuegi dauka garai konkretu batean kokatu ahal izateko, baina honi buruz galdetu ezker oso prozesu nekagarri eta luzea datorkio burura:

“Buuff, ez zen izan 'bueno, ospitalera joan... eta... benga... eeeee, listo, berreskuratuta zaude', ez... ez. Orain esan nezake guztiz nagoela errekuiperatuta.” (Larraitz)

Geaxik bestalde, militante eta gaztetxeko partaide izaten hasi zeneko garai haietan kokatzen du susperraldia. Ez baita atzerria eraldaketa pertsonalak emateko gune apropos bakarra, testuinguru alternatiboetan edo aldaketak permititzen dituzten inguruetan birsozialazioa (Esteban et al., 2016: 286) ematea errazten baita.

“Justu... hau... ba ikusten dudan bezala oso garbi non hasi zen dena... non bukatu zen difuminatuagoa ikusten dut. Ba ni bai gogoratzen naiz ba horixe... DBH 4-n ez dakit, baina 'ja'... ba Ikasle Abertzaleak, eta... Gaztetxea, nik uste Gaztetxea, ni Gaztetxe ondoan bizi nintzen herrian, eta 'ja' orduan 'ja'... Gaztetxera joaten hasi nintzen..., eta... eta beste musika bat..., ba euskal musika..., ba rock-a... Nik uste dut militantzia, pixka bat Gaztetxe... Gaztetxe militantzia hori hor kokatuko nuke (berreskurapenean).” (Geaxi)

Suspertze momentua denboran oso difuminatuta ageri den arren elkarrizketatu guztien testigantzetan, suspertze horretaraino egindako bidea nahiko argia da. Estrategia bezala hasitako anorexia beraien kontra jartzen den momentutik prozesu nekez eta luzeari ematen zaio hasiera: noraezari amaiera jarri beharraz ohartzetik susperraldira eramango dituen bide luzea osorik igarotzeraino. Bide horretan emakume hauek potentzia handiko lanketa bat egin beharko dute beraien gorputzak ostera ere bizigarri bilakatzeko.

6.3.1. Genero arau bitarraren mugak zeharkatzea estrategia gisa

Anorexiadun gorputzak bizigarri bilakatzeko pausuetako bat hain itogarri zaien genero arauaren bueltan lanketa bat egitea da. Generoak norbanakoei identitate bat ematen die, emana datorrena, emakume zein gizonentzat ezberdina dena eta genero bakoitzeko norbanakoak uniformatzeko balio dituen. Hala ere, identitatearen autoaktualizaziorako aukera medio, emanda datorren identitatearekin gustura ez dagoen norbanakoak hau eguneratu dezake. Anorexia genero femeninoak itotzen dituen emakumeentzat irtenbidea bezala irakurtzen badugu, hauek indarrean den emakume moldetik desberdintzea ahalbidetuko dien identitate baten eraikuntzan dabilzala ohartu gaitzke. Beraien gorputzen gaineko hipertrofia gorputzok beraien nahietara berreraikitzeke aukera bezala

antzematea giltza izan daiteke. Berreraikitze horretan molde zaharra haustea ezinbestekoa da berriari ekiteko, baina deseraikuntza/eraikuntza prozesu hori burutzea horretarako egokia den testuingurua – gorago aipatu bezala praktika korporal edota performatibitate forma berriak esperimentatzeko aukera luzatzen duena - bilatzen duten emakumeek burutu ahal izango dute soilik. Berreraikitze prozesua martxan jartzeko generoaren gaia landuagoa zeukaten norbanakoz osatutako lagunarte egokiagoa bilatu zuen Ekiñek zera dio:

“Ba agian nire gorputza maitatzea, osea, gorabeherekin, egun batzuetan ez dut maite... baina, bai, gorputza maitatu eta ezagutzea, ordura arte ez niona utzi, ba hauxe naiz... depilatzeari ere utzi, eta egon depilatu gabe sei hilabete lasai, osea, pixka bat 'des-higuindu' edo esaten dena... nire gorputzean higuina eman didaten gauza guztiak onartu, onartu eta ezagutu, eta agian batez ere hori, ze lehen igual zen ikusi ere egin ezin nituen gauzak. osea, esan dizudana, agian feminitate oso muturreko batean bizi nintzen... hori (anorexia) neukanean, ilerik batere ez, hilerokoa kentzea posible bazen ere, ba kendu... kendu egin nuen, klaro, urtebete egon nintzen super ondo... eta gero esatea 'aber, bizirik zaude, eta bizirik egotea da izatea ileak, izatea usaina, izatea hilerokoa eta izatea pila bat gauza, orduan... (...) (Lehenko) feminitate hori da feminitate garbia, korrektoa, formala eta... bai bai, hori, exaktamente hori.” (Ekiñe)

Ekiñek lehenko feminitatea artifizial gisara irudikatzen du, besteen begietara gustagarria behar zuen feminitate bat bezala, begiralearen begietara atsegina. Genero arauari buruz ikasitakoak ahantzi egin behar izan ditu emakumetasuna bere horretan – hilerokoarekin, ileekin, usainekin,... - onartzeko, eta horretarako anorexia bizi arteko testuingurua aldatu behar izan du. Bere koadrila izandakoarekin ibiltzeari utzi eta genero arauetikiko malguagoak diren beste emakume batzuekin ibiltzen hastea erabakigarritzat jotzen du. Genero arauen deseraikuntza¹³ horrek oster, sarri askotan, batez ere emakumeetan sozialki onartuak ez diren ezaugarriak barneratzera daramatza anorexiadun asko, Geaxi horren adibide:

“Anorexika nintzenean... eta super perfekta... eta super pija... ba orduan etxeko arazoa zen ba... elikadura, ez? Ez nuela jaten, ze bestela nintzen ba ikasketetan oso ona... mila

13 'Deseraikuntza' hitza Jacques Derrida filosofoaren 'deconstruction' terminoaren euskarazko itzulpena da. Derrida-k termino hau testu analisietarako erabiltzen bazuen ere, egun jakintzagai askotan erabiltzen den hitza dugu. Kasu honetan deseraikuntza hitza erabiltzen dut bizitzan zehar natural bezala barneratutakoa aspektu politikoen desegiteari.

gauzetan ibiltzen nintzen, denetan oso ona nintzen. Eta gero 'ja' hortik... alde egin nuenean, ba bihurtu nintzen nahiko alferra, nahiko... makarra... eta orduan gurasoekin beti 'zergatik zara horrelakoa', 'izen horrelakoa', 'izan normala', eta... beti, bai, ba arreta deitzea gustatzen zitzaidan, eta... pasotismo hori, edo kontra egiteko gogoia eta... bai, hori... nabarmen aldatu zen.” (Geaxi)

Eta emakumeetan onartzea gehiago kostatzen diren ezaugarri horiek fisikoak ere izan daitezke:

“Bai, behin... rapatu nuen ilea, jajaja. Orain ez nuke egingo, eh? Baina bai... bai ba, ez dakit, askeago (sentitzeko)... edo... bai.” (Geaxi)

Oso femeninotzat jotzen ez diren eta emakumeetan onartzea kostatzen diren ezaugarri horiek gorpuzteagatik irrigarri utzi izana gogoratzen du sasoi batean oso itxura makarra izatera heldu zen Maierrek:

“Ilea kaskamotz neraman sasoi hartan, unibertsitateko lehen urtea zela oroitzen dut, praka batzuk erosi beharrean ikusi nintzen. Bilboko Alde Zaharreko denda batean sartu eta praka bakero batzuk nahi nituela esan nion saltzaileari, eta honek irrigarri uztea helburu zuen tonuaz bota zidan ea mutil ala neska praken artean, non bilatu behar zituen niretzako prakak. Mespretxatua sentitu nintzen, eta zeharo haserre ospa egin nuen bertatik.” (Maier)

Gaur egun estetika oso alternatiboz jantzi ohi den Katrini, nahiz eta identitatearekin esperimintatzeko beharra sentitu, nekeza egin zitzaion nahi hau aurrera eramatea, bere betiko lagunekin zeukan harremanak aldaketa hori ematea oztopatuko balio bezala:

“Errazagoa egiten zitzaidan ezagutzen ez nindutenekin... ni izatea, ba beraiekin baino. 'Como' beraiekin 'ja' nintzen horrela... eta ez dakit zer... gehiago kostatzen zitzaidan aldatzea.” (Katrini)

Katrin, bere inguruan nahiko zukeena baino maskulinoago jantzen zen, eta asteburuak aprobetxatzen zituen, bere ingurutik ateratzen zenez gero, 'femeninoago' jantzeko. Eraikitzen zebilen identitate berria lasai kanporatzeko lagun berriak bilatu zituen:

“Bua, nik egiten nuen... ba... astegunetan maskulinoago janzten nintzen, eta asteburuetan, femenina. Baina... nire ingurutik kanpo. osea, nire koadrilakoetaz kanpo. Asteburuetan, nola beste batzuekin ateratzen nintzen igual, ze nire koadrilakoak 'pues' ez ziren ateratzen oraindik, 'pues' nire ingurutik kanpo femeninoago, baina nire inguruan... (ez)” (Katrin)

Larraitzi garai hartan genero identitaterekin loturiko aldaketarik eman ote zuen galdetzerakoan sorpresaz oroitu zuen oso esanguratsu iruditzen zaion pasarte hau:

“Ostras! Beitu! Inoiz ez dut... inoiz ez dut planteatu hau. Eta ez zait... 'vamos', ez nuke lotuko inondik inora ere ez, baina ilea moztu nuen... hori... beti eduki izan dut hona arteko (gerria seinalatzen dit) hori... beti eduki izan dut hori melena luzea, ezta? denok nahi izan duguna, eta nik beti nahi izan dut gainera, jaunartzean ere bai, gogoratzen dut, bakarrik neukan melena belarrira artekoa, eta bua, traumatizatuta nengoen, eta nik nahi nuen melena luze luze luzea, horrela, 'frraaassst', atzera egiteko (melena atzera botatzeko keinua egiten du) hori. Ba... hori da, anorexia eduki nuenean, edo aurretik edo bertan momentuan, orain ari naiz gogoratzen argazki batzuk etxean, argal argala, eta egin nuen: ile-apaindegira joan eta esan nion 'e... moztu ilea' eta 'zelan moztu?' (ile-apaitzailearen galdera), eta egin zidan koleta, sekulako zaldi buztana neukan, eta 'frraaa' moztu zidan, eta... utzi zidan bakarrik hemen (kokote inguruan) trentza bat, eta trentza hori egiten nuen orain arrosa, orain urdina, orain berdea (tindatu)... eta... eta horrela. Ostras! Esaten duzula bai... begira! Eta... hor moztu nuen ilea, ..., gero eduki nuen... berriro luzea, eta bi aldiz eduki dut bakarrik luzea, baina... igual hilabete batzuek... 'ja' sekula gehiago ez dut..., eta ez dut pentsatzen edukiko dudarik... ile luzea. Ya... beti motza.” (Larraitz)

Garai hartan feminotasunarekin oso lotuta dagoen ile luzea ebakitzeko hartutako erabakiarekin gustura dago egun ere Larraitz, ekintza horrekin eroso zaion identitate batekin bat zetorren itxura lortu izan balu bezala. Ile motzak eroso sentiarazten du, eta ez du uste aspektu horretan aldaketarik emango duenik. Genero arau bitarraren arteko marrarekin esperimentatzeak itogarri zitzaion emakume moldetik ezberdintzea ahalbidetu dio, bizigarria zaion emakumetasun bat lortuaz.

Geaxik esfortzurik gabe identifikatzen du bizigarri zaion identitate hori eskuratu arte egindako

esperimentazio bidea:

“Ze nire ibilbidea hori izan zen: marimatxo – pija- eta gero... ba... (gaur egun dena)”(Geaxi)

Elkarrizketatu gehienek identitate berri baten eraikuntzari dagokionez genero arau bitarraren marraren bueltan saltoka eta esperimentazioan ari izan direla ulertzer eman izan badute ere, Ilargik ez du uste identitatean aldaketarik bizi izan duenik:

“Ez, osea, ez nuen aldatu. Ez, aspektu horretan lehen eta gero, beti izan naiz... osea, bai eduki dut eboluzio bat, baina gehiago izan da adina gaitik... gai hau gaitik baino, e? Nahi dizut esan, lehen eramaten nituen zapi gehiago buruan eta gaur egun ez, edo takoiak... baina ez dut lotzen gorputzera, baizik eta... adin tartera, ez gorputza... 'para nada'.” (Ilargi)

Hala ere, orain arropa estuagoa janzten duela dio, hau ezaugarri femininotzat jotzen duen seinale. Baina femeninoagotze hori bere arroparenganako afizioaren ondorio gisa azaltzen du, ez anorexia bizipenaren ondorio bezala:

“Eta beti gustatu izan zait arropa, orduan... ez, ez diot ikusten... igual bai bizi naiz 'más ajustada, osea', bai janzten dudala arropa estuagoa. Baina esaten dizut, estuago janzten naiz orain osasuntsu nagoela, gaixorik nengoenean ipintzen nuena baino, eta askoz argalagoa nengoen. osea, orain nabil ipintzen arropa 'más'...” (Ilargi)

Amalurrek, generoarekiko esperimentazioen gaia ateratzerakoan anorexiatik esnatze fase batetara darama elkarrizketa. Esnatze fase hori bilaketa prozesu bat izan zitekeelakoan dago:

“Bai, egon ziren... osea, adibidez bai...esnatze horretan... arropa, arroparekin adibidez bai, bai egon zirela... hori, ez? ba... bai, igual bilatze bat, bilatze bat, ez? osea... bai, bai, bilaketa bat edo... adibidez erosi praka batzuk... joe, gogoratzen naiz behin erosi nituela praka hori fosforito batzuk, ez? osea, 'de, de... no querer ser vista'... bai, bai. Baina... ulertzen dut... ez dut inoiz pentsatu horretan, eh? Ez dut inoiz... elaboratu 'a sako', e? Baina... iruditzen zait zela ere bai bilatze prozesu bat, ez? Bai, bilatze prozesu bat.”

(Amalur)

Eta prozesu hori genero identitate eroso bat bilatzetik harago zihoalakoan dago, generoaz gain beste hainbat aspektu barnebiltzen zituen identitate berri baten bila zebilela uste du:

“Nik uste dut baietz, generotik harago. Bai. Bai. E... ba igual ere bai esperimentatze... mailan ere bai, ez? Bai, bai, edo... edo agertze mailan zu, ez? osea, pertsona bezala... baina nik uste generotik harago, bai.” (Amalur)

6.3.1.2. Norbere identitatearen eraikuntza

“Anorexia heteronorman ez sartzegatik ematen diren norbere senetik ateratzeko forma bat” (Iturrioz, 2015) izanik, identitate berri eta erosoago baten eraikuntzan generoarena lantzeko afera garrantzitsua da. Hala ere, Amalurrek adierazi bezala, identitate berri horren bilaketa generotik harago joan ohi da, bizitzako aspektu guztien lanketa bat exijitzen baitu. Maierek bere nortasunaren eraiste baten osteko berreraikuntza bezala identifikatzen du prozesua, zeina kaltegarri zitzazkion aspektuak bere nortasunetik at uzteko baliagarri izan zitzaion:

“Anorexia pairatzeak nortasuna txikitu zidan zeharo, baina atsekabetu ordez hortxe ikusi nuen benetan nahi nuen nortasuna eraikitzeke parada. Ordurako egindako sistemaren irakurketa kritikoez, feminismoa gailentzen zelarik irakurketon artean, tresnaz josi ninduten anorexia pairatzera zerk eraman ahal izan ninduen seinlatu eta hori nire barnetik kanporatzeko. Suntsitzen ninduena suntsitzeko aukera paregabea luzatu zidan urteetan zehar barnean bizitako guda hark, gelditzen ziren hondakinekin nahieran sortu nezakeen nire nortasunaren zutabea. Horretan aritu naiz eta horretan nabil, eta konfiantza guztia daukat sortzen joan naizen oinarri honengan.” (Maier)

Garapen pertsonalari garrantzia eman eta honen gaineko kontzientzia daukala antzematen zaio Amalurri, izan liteke bizitakoak erakutsi dionagatik zein hezitzailearena duelako ogibide. Honek, aurretik aipatu duen identitate bilaketa hori oraindik martxan dagoen zerbait bezala ikusten du. Izatearen-krisialdi hari buelta ematen hasi zenetik aldaketa handiak eman dituen arren bere identitatearen lanketa bizitza osoan landu beharreko prozesu bat bezala antzematen du:

“Adibidez bai aldatu naizela pila bat, bai... jo, ez dakit,... egin ditut gauza asko, exhibitu naiz asko, bai dantza mailan, bai musikalki... asko, pila bat, baina iruditzen zait... osea, ez dakit, nire identitate... identitatean beti egongo dela, beti egongo naizela aurkitzen... zein naizen, ez? Ni ezagutzen..., ni... Baina bai, bai aurkitu dudala, edo ari naizela... bueno bai, prozesu horretan nagoela, ez?” (Amalur)

Eta azpimarratzen du martxan den prozesu hori martxan jartzeko oso lagungarria egin zitzaiola ikastetxez aldatzea, ikastetxe berri batetara anorexiarekin zuen historialik gabe joatea eta ezagutzen ez zuen jendearen aurrean bere burua anorexiarekin zerikusirik ez daukan norbait bezala aurkeztea. Gorago aipatu dugun bezala, agerikoa egiten da beste behin ere, testuinguruz aldatzearen garrantzia praktika korporal eta performatibitate forma berriekin esperimenezko. Amalurrentzat, ikastetxez aldatzea bere identitatea berriro bere nahieran lantzen hasteko aukera bat bezalakoa izan zela esan daiteke:

“Asko egin zidan ere... ikastetxez aldatzeak, institutura joan nintzen hirira, eta ere... hori, ez? ba... aurkitzea jende... ezberdina, ez? Bai, bai. Ba beste modu batera ikusten zaituena, edo beste... zure istorioa, ez? Ez dakitena... ba hori ez? Ba zer... ez dakit, zer... zeinen alaba zaren, zeinen... arreba, zeinen... ez dakit, ez? Horrek ere lagundu zidan...” (Amalur)

Katrini ere asko erraztu zion beste lagun batzuekin ibiltzen hasteak, lehengo lagunekin ez bezala bere identitatea berreraikitzeke inguru eroso egiten baitzizaion adiskide berriekin sorturikoa. Apurka-apurka lantzen zebilen identitate horrekin geroz eta erosoago sentitzen hasi zen:

“Bai... uste dut adin hori pixka bat trantsizioa izan zela. Eta beste jende bat ezagutu nuen... eta... beraiekin nola libreago sentitzen nintzen, osea ni sentitzen nintzen, ba askoz ere... ez dakit, osea, hobeto sentitzen joan nintzen eta horrela. Bai... hor pixkanaka hasi zen, e? 'Porque' ni gero horrela jantzita nengoenean ikusten nuen nire herriko bat edo nire... edo lagun bat, eta ezkutatu egiten nintzen, e? Kristoren lotsa ematen zidan! Eta gero... eta gero nire buruari esaten nion 'aber, si ni hauekin ibiltzen naiz eta horrela ezagutzen didate... eta zergatik ematen dit lotsa besteak ikustea, ez? 'si' ez didate ezer esango', baina bai, ezkutatu egiten nintzen... kar, kar, kar. Ta gero 'ja' izan zen pixkanaka hobera, eta 'ja' orduan arropak

eta gauzak 'ja' ez zidaten... (lotsarazten)” (Katrin)

Egun dena noraezean ibiltzeak bilakatu duela dio Geaxik, anorexia pasa izan ez balu orain den bezalakoa izatera helduko ote zen dudatan jarriaz:

“Bai ze... anorexika nintzeneko Geaxi hori... ez zen... nire ustez Geaxi. Ba zen ba... horixe, noraezean zebilen... ba nerabegaroko aldaketak eta hor galduta eta... bai, gero 'ja'... osea, gero esan bezala pasatu nintzen ba... pixka bat 'anti'... izatera, eta gero ba jarraitu du baita ibilbide horrek. Ba orain naizela... denetik pixka bat, ez? Bai, baina hori, ez banuen eman pausu hori ez nintzen iritsiko orain nagoen pausura, ez? Eta orduan...” (Geaxi)

Eta sortu duen identitate berriak ez dio ezerosotasunik sortzen emakumetasunarekin. Are gehiago, landu duen ikuspegi feminista tarteko, femeninotasunaren estereotipoenganako kritika bat eratua dauka, eta arrazoi laboralak tarteko estereotipo horiei jarraitu behar badie ere, garatu duen kritikak estereotipoekin harreman osasuntsu bat izaten laguntzen dio:

“Bai, bai, emakumea guztiz sentitzen naiz. Orain... onartuta daukat ba... estereotipo batzuen arotik pasatu naizela. Igual orain dela bost urte pasako ez nintzen bezala. Ba... ba depilatu... eta horrelako 'mobidak'. Ba lehen... igual zidan, eta orain... Azkenean da baita, ba lan munduan sartu naiz baita, eta... konturatzen zara, irakaskuntzan nabil lanean, eta... ba modu batekoa baldin bazara, 'ja'... horrelakoa izateagatik 'ja' lehenengo egunetik ba... puntu asko galtzen dituzu. Eta horri aurre egiteko indar asko behar da, eta igual ba batzuetan ez daukat indar hori, eta orduan ba... bai.” (Geaxi)

Azaletik sakonera igarotzea bezala gogoratzen du Ekiñek identitate berri horren eraikuntza lanen hasiera. Bere hitzetan 'feminitate garbia' zena gorpuztetik bere gorputza zen bezalakoa onartzen hastea izan zen sakonera pasatzeko pausu erabakigarria, eta ulertzen denez pausu horrek berarekin ekarri zuen gertatu zitzaiona begi kritikoz aztertzeke parada. Irakurketa kritiko hori inflexio puntu bezala ikusten du:

“Berez esperientzi... osea, esaten dut 'parte batetik, agian eskerrak honetan erori eta altxatu nintzen, ze bestela imajinatzen dut nire burua orain, 22 urterekin, agian planteatu ere egin

gabe orain arte planteatu ditudan mila gauza... eta oraindik nire gorputza gorrotatzen, agian gradu minimo konstante batean, erori gabe inoiz baina hortxe beti, pam-pam-pam... ba igual horrela baino, ba 'pum' (erorialdia) eta listo'... bakea eta dena, ze bestela ederra... ez dakit, beste batzuk ikusi eta pentsatzen dut 'joe, ai ama, bizitza osoa egon behar al zara horrela?'.” (Ekiñe)

Bestalde, Ilargik ez du identitate berri baten sorrera egon denik uste, baizik eta anorexia izan aurreko identitatea berreskuratu zuela. Bizi izandako edozein aldaketa adinagatik izan dela dio:

“Osea, nik uste dut jarraitzen dudala... berreskuratu nuela nire nortasuna. 'Klaro', niri harrapatu zidan tartean izan zen... aldaketa 'ja' nortasunak aldatzen dizula berez zeren pasatzen zara izatetik nerabe bat pertsona nagusi bat izatera. Orduan, klaro, hor tartean ere bai... antzeman dut aldaketa bat baina bai hori, adin... adina gaitik, ez gaixotasuna gaitik.” (Ilargi)

Suspertzerako bide luze honetan emakume hauek beraien kabuz egiten diete aurre identitatea berregituratzearena bezalako hainbat lanketa pertsonali. Dena den, lanketa pertsonal horiek eman zituzten bitartean, paraleloan tratamendu mediko bat jarraitzen zuten elkarriketatutako zazpi emakumeetatik seik. Jarraian, lanketa pertsonal horren eta tratamendu medikoaren marra paraleloak elkar ukitzen zuten edo elkarreragina zeukaten aztertuko da.

6.3.2. Diskurtso medikoaren hutsuneak

Ilargi tratamendu medikoari guztiz eskertuta dago, bere kasuan suspertzera bidea eta tratamendu medikoan egindako ibilbidea biak bat direla ziurtatzen baitu. Nahiz eta hasieran zaila egin zitzaion, azkenean medikuek ziotenarengan itsi-itsuan konfiantza izatea erabaki zuen:

“Hasieran ez baina... beti esaten zidaten, niri esaten zidaten 'fiate, fiate', nire amak esaten zidan 'fidatu zaitez profesionaletaz, dakitenak dira eta, guk ez dakigu eta, eta jateko esaten badizute...'. Psikiatrak esaten zidan 'zuk horrela pentsatzen duzu zure burmuina gaizki elikatuta dagoelako', eta klaro, hain zen logikoa (psikiatrak esana) esaten nuela 'bua...!'. Orduan horrek bai laguntzen zidan esaten 'bueno, ba jatera noa'. Osea, min egiten dit,

negar egiten nuen, eta nahi duzun guztia... baina hartzen nuen pisua, eta 'sufría un huevo'. Baina heltzen da momentu bat ikusten zarena ba hobeto, eta animatua, eta energia gehiagorekin, eta osti txar gehiagorekin, 'y con más'... orduan... jarraitza animatzen zaitu, baina bai badago tarte bat esaten dizutelako egiten duzula (berreskuratzeko ahalegina). Nik egin nuen 'fiarme a ciegas', esan 'tipo honek (psikiatrak) badaki', azaltzen zizkidan gauzak oso ondo, eta nik ulertzen nituen nahiz eta ulertu nahi ez, osea... orduan esan nuen 'ba fidatzen naiz beraietaz', osea fidatzen naiz beraietaz... jan egin behar duzu, ba jan (bere buruari esaten ziona).” (Ilargi)

Ilargik bere suspertzearen gidaritza medikuen eskutan uztea erabakitzean gidaritza horretatik guztiz kanporatzen dute profesionalek. Lerrootan antzeman daitekeen bezala, bere hitzak ez dauka pisurik psikiatrarenaren ondoan, bere garuna gaizki elikatuta dagoela bezalako argumentuekin honen hausnarketak ez baliagarri gisa jotzen baitituzte. Santiso-k honi “*pazienteei autoritatea, boterea eta segurtasuna galarazi eta hauek isilarazteko estrategia boteretsua*” (2006: 372) deritzo. Medikuen aurrean “*gu gara ezjakinak, osasun-gaixotasun prozesuaren subjektu protagonistak izan arren prozesu honen bueltan ulertu, esku artu eta erabakiak artzeko ezgaiak. Hau da mediku eta pazienteen arteko botere erlazioaren estruktura eraikitzeo forma*” (Sangre Fucsia, 2014). Eta botere erlazio harreman hori pazientearen hitza guztiz baliogabetzen duten argumentu itxura batean logikoekin mantentzen da:

“Azaldu zidan 'zure burmuina dago gaixorik, ez dago elikatuta, eta orduan normala da horrela pentsatzea... ze... ze...' eta izan zen truko bat super ona konturatzeko ni ez... ze esaten zidan... egon nintzen eserita eta esan zidan 'esan zelako, zelan ikusten zaren zu', ez? Osea 'ipini zu' eta esan nuen nik 'en plan' pun (eskuekin bere gerri aldearen tamaina begiz kalkulatu eta markatzen du), 'ba nik uste dut horrelakoa naizela' eta esan zuen 'bale' eta bera jarri zen eta esan zidan 'zutitu zaitez', eta horrela egin zidan (berak eskuekin markatutako gerri aldearen tamaina markatu, parean jarri zedin) eta alde guztietatik soberan neukan. Esan zidan 'ikusten duzu daukazun kontzeptua ez dela...', eta esan zidan 'es que' zure burmuina gaixorik dago, ez dago ondo elikatuta, eta orduan ez zara gai ikusteko errealitatea'. Eta esaten duzu 'ostia! Egia da!', eta zuk egiaztatu duzu, ze zu ikusten zara horrela... baina gero, pasatzen nintzen baina sobera (markatutako tartetik). Orduan, psikiatrak erabiltzen zituen teoriak frogatu ahal nituen, eta orduan niri horrek bai

animatzen ninduela, eta ziurtasuna ematen zidan gizon horretaz fidatzeko. Orduan psikiatrak esaten zidan 'joan zaitez Mirenengana (dietista) eta egizu esaten dizuna 'porque tal no sé qué', orduan konfiantza ematen zidan eta esaten nuen 'ba egingo dut'. Baina badiotsut, denerako negarrez, garrasika... lagundu naute, ez dela izan dena arrosa kolorekoa, hori egia da. Baina bueno, azkenean funtzionatu dit beraz...' (Ilargi)

Katrinek botere harreman bertikal horren existentzia egiaztatzen du, gogoratzen baitu nola medikuek bere amari bera nola sentitzen zen esaten zioten, eta ziotena errealitatetik oso urruti zegoen zerbait bezala oroitzen du. Badirudi medikuek Katrin benetan nola sentitzen zen adierazi baino, medikuntza liburuen arabera egon beharko litzatekeen bezala zegoela adierazten zutela:

“Edo... beraiek esaten zieten nire amari 'horrela sentitzen da, edo horrela...' eta ni... 'en plan'... 'si' nik hori ez dizut esan...' (Katrin)

Ilargi da, elkarrizketatu guztien artean, tratamendu medikoaz ongi hitz egiten duen bakarra. Gainontzekoek tratamenduaren oroitzapen txarrak dituzte, honen baliagarritasunaren bueltan dudak azaltzen dituztelarik. Dena den, behin baino gehiagotan azaldu denez aipagarria iruditzen zait gainontzeko elkarrizketatuek oro har tratamendutik salbatzen duten gauza bakanetakoa Ilargik azaldutako norbere siluetaren bueltako ariketa izatea:

“Gogoratzen dudan gauza (positibo) bakarra... eta uste dut horrek, ariketa horrek egin zidala pixka bat, txipa aldatzea edo... gogoratzen naiz bota zuela (psikologoak) paper zuri bat lurrean eta esan zidan 'dibuja tu... tu cuerpo', eta nik ba marrazten nuen..., ni... niri esan zidan 'tal y cómo lo ves tú', eta ba margotu nuen nire gorputza eta esan zidan 'ahora ponte encima, túmbate encima', eta etzan nintzen gainean, eta berak egin zuena izan zen nire gorputzeko silueta markatu. Ta 'levántate' (medikuak), altxatu nintzen eta esan zidan, 'begira'. Eta ikusi nuena izan zen, joe, zelako ezberdintasuna, ze nik ikusten nuena, nire gorputza, eta benetan zena... ba kristoren marjina zegoen. Ba nik igual ikusten nuen ba bi aldiz gehiago edo... eta hor igual... ikusi nuenean nire gorputza benetan... zer... zen.’’ (Larraitz)

Amalurrek medikuekin egin ordez, etxean egin zuen ariketa hori bere amarekin:

“Amak esaten zidan 'nola ikusten zara?', eta behin... egin genuen, amarekin, jarri zuen paper handi bat paretan, eta esan zidan 'marraztu zaitez, marraztu zure... zure bolumena', eta egin nuen... osea, kristorena, eta amak esan zidan 'pegatu paretera', eta egin zidan (silueta marraztu) eta... eta niretzako oso zera izan zen ere bai, oso... bai, bai, oso txokantea izan zen.” (Amalur)

Badirudi siluetaren ariketak beraien distortsioaren kontzientzia izateko baliagarri zaiela, beraien estrategiak eskuetatik guztiz alde egin dielako erakusle. Distortsio horren existentziaren jakitun izatea suspertzera bidean baliagarri izan zaielako sententzioa ematen dute, baina tratamendu medikoaz hitz egiterakoan ez dute sententzio berbera transmititzen. Larraitzek berak, aipatu ariketa salbatzen duen era berean, tratamendu medikoaz hurrengoa dio:

“Ez naiz gogoratzen baina ez daukat hori... ba luzea izan zenaren sentipena edo, ez zitzaidan gustatzen batere ez. Horrezkero egon naiz... bueno, esan daiteke nire bizitzatik psikologo asko pasa direla, sei urterekin eskolan jarri zidaten ba gurasoak banandu zirelako, eta anorexiagaitik, eta gero... 18 urterekin izan nuen antsietate krisi... krisi bat eta joan nintzen beste psikologo batengana, eta harekin ondo. Baina ez daukat oroitzapen onik ospitaleko... oso hotza, erdaraz egin behar zen berba, ezin... ezin nintzen berdin adierazi, ... eta horrela gogoratzen dudana... hori zen, deserosoa.” (Larraitz)

Hizkuntzaren traba adierazi dute gehiagok ere tratamenduaz hitz egiterakoan. Euskaldunak izanik gaztelera hutsean bizi zutenaren bueltan jarduteak defenda ezin sentiarazten zituen bat baino gehiago. Eta defenda ezintasun sentipen horrek garamatza hurrengoa ondorioztatzera: kontsultan mediku-pazientearen artean bataila bat libratzen da, bestela ez bailuke egon behar defenda ezintasun sentipenik. Mediku-paziente arteko harreman bertikalaren inguruko hainbat azterketa egin badira ere, nik lan honetarako Santiso-ren (2006) tesia eta Valls-Llobet-en (2009) lana erabili ditut gehinbat. Carme Valls-Llobet-ek (2009: 361) jardun medikoan genero estereotipoak indartzen dituzten lau biolentzia mota ikertu ditu, eta nagusitasunean eta mendekotasunean oinarrituaz gertuko komunikazioa oztokatzen duen tratua biolentzia mota horietako bat da. Biolentzia forma hau, aurrerago elkarrizketatuek azaleratuko dituzten beste hiru biolentzia mediko motekin – emakumeen kexa eta sintomak ikusezin bilakatzeko komunikazioaren mugatzea, erabaki

autonomoak hartzea ukatu eta emakumea kontrolpean izateko hau kanpoaldetik isolatzea, eta laguntza eskatu duen norbanakoa suntsitzea gaixotasuna duen norbanakoa ordez norbanako gaixo bilakatzeko – batera, *“bikote erlazioen baitako genero biolentzian sortzen diren biolentziekin konparatu daitezke, zeintzuetan ere komunikazioaren mugaketa bat, nagusitasun erlazio bat, kanpoaldearekin isolamendua eta erabakiak hartu ezin dituen biktima bilakatzeko den izakiaren suntsiketa existitzen den”* (Valls-Llobet, 2006; in Valls-Llobet, 2009: 362).

“Eta zen gizon zahar bat (psikiatra), osea, ez zekien euskaraz, e... bueno, osea, niretzako hori ere zen, joe, adierazteko momentuen ere, ba... sentimenduak, eta ni euskaraz bizi izan naiz bizitza guztian eta, eta... askoz zailagoa zen, aparte gizonezkoa zen, serioa, ez zen batere goxoa, oso distantea zen... eta ba bueno, ba... bai, gogorra.” (Amalur)

Amalurrek egiten duen bere psikiatraren deskribapenak autoritatearen figura bat adierazten du: gizonezkoa, goxotasunik gabea, hotza eta berarentzat moldagarria ez den hizkuntza batean hitz egiten diona. Kontsultetako bataila hauetan, pribilegio posiziotik abiatzen den medikuak bere ordena, legeak eta metodoak inposatzen ditu bere diskurtsoaren totalitarismoan murgildu araziz pazienteak. Emakume hauek indarrean elikatzen, drogatzen eta giltzaperatzen jarraitzen da, beraien jarrerarekin benetan esan nahi digutena zer den asmatzen saiatzea errazagoa litzatekeen arren. *“Baina hori gizonezko terapeuta batek ere ezin dezake onartu: beraien maskulinitatearen kontzeptua dago jokoan”* (Gómez, 2001: 105). Eta totalitarismo horren baitan hurrengo metodoak bezalakoak jartzen dira martxan:

“Adibidez, behin batek, hau ez zait inoiz burutik ahaztuko, nire... familia guztia eraman arazi zuen kontsultara, nire amona zena barne, eta... pffff, humiliazio bat egin zigun..., nire amona negarrez..., mundu guztia negarrez..., osea.” (Geaxi)

Abiarazten dituzten metodoak, gainera, ematen dute norbanakoaren benetako suspertze baten ordez honen sumisio totala bilatzen dutela. Diziplinamenduak pisua dauka tratamendu medikoaren baitan, eta diziplinamendu hau barneratu arazteko mehatxu eta zigorrak beharrezkotzat jotzen badira, erabili egingo dira:

“Talde terapietan atentziora deitzen hasi zitzaizkidan batez ere ingresatuta zegoen jendeak

zeramatzen 'kolokoiak'. Izutu egiten nintzen zenbaitetan jendeak izaten zituen kolokoiekin, agerikoa baitzen guztiz itzalita zeudela, eta nolabait mehatxu bezala funtzionatzen zuen norbait horrela ikusteak: esaten zitzaizuna bete ezean horrela amaitu zenezakeen. Obeditu ezean zigortua izango zinelako mezua behin eta berriz errepikatua izan zitzaidan tratamenduan egon nintzen urteetan zehar, esplizituki batzuetan eta inplizituki beste batzuetan.” (Maier)

“Mehatxuak. Bai. Bai. Bai. 'Si no ganas peso te vamos a ingresar' (medikuak), bai. Eta hori zen... bua, bua, bua. Bai, nik uste dut dela beraien e... tresna.” (Geaxi)

Baina medikuen diskurtso totalitaristak barnebiltzen dituen ordena eta metodo hauetan itsu-itsuaz sinetsi ezean, ez da emango pazientearen diziplinamendu betierekorik. Terapia taldeen ahaleginak “paziente bakoitza 'normalizatu' eta jendartearentzako egokitzat jotzen diren jarreretara egokitzean datza” (Santiso, 2006: 367), ezer zalantzan jartzea eragotziz pazienteari. Paziente horrek, beraz, medikuen jokoari jarraituko dio ahalik eta bizkorren hauetaz libratu eta suspertzera bidea bere erara jarraitzeko:

“Jendarteak amildegi ertzeroa bultzatzen ninduen ere berean, 'lagundu' behar zidaten medikuek sistema horri eskutik oratu niezaion konbentzitu nahi ninduten... eta bi indar horien artean blokeatuta, batari zein besteari erresistentzia eginaz eman nituen egunak, hilabeteak eta urteak adin nagusitasuna izatera heldu eta medikuen eskuetatik alde egin arte. Ordurako pisu 'egonkorra' nuenez gero, ez zidaten inolako trabarik jarri jarraipen medikoa eten nahi izan nuenean, osatutzat eman eta hortxe itxi zuten nire historial medikua. Medikuen presiopetik behin askatuta, neure kabuz abiatu nintzen benetan sendatuta nengoela ziurtatzera heldu arte egin beharko nuen bidean barrena.” (Maier)

Modelo mediko hegemonikoarekiko mesfidatia dela dioen Maiarren hitzetan nabari genezake tratamendu medikoari dagokionez bi puntu oso ageriko faltan botatzen zituela. Bata, bere ustetan anorexia izatera bultzatu zuen sistemaren irakurketa kritiko baten arabera landutako diskurtsoa, eta bestea, berreskurapena pisua irabaztetik harago zioan zerbait bezala ulertzea. Geaxik ere dena pisuarekin lotuta zegoela kritikatzeko du, kiloak hartzeak sortzen zion ondoeza psikikoa aintzakotzat hartzen ez zela adieraziz:

“Baita zen... kiloak irabazten bazenituen ja hobeto nengoen, ja baina eske... kiloak irabazten dituzunean, orduan, momentu horretan zaude hundiduta gehiago, ze ja... esaten duzu 'ostia, ya...', ja zure gorputza ere ez duzu onartzen, eta... orduan zioan dena pisuarekin, eta... Bai, hombre, igual hobeto banengoen baina... oso lentoa izan zen.” (Geaxi)

Horretaz aparte, sistema heteropatriarkalaren irakurketa kritiko bat ere eskertuko lukeela adierazten du:

“Gaixotasuna ere zergatik den gizarte edo... nondik datorren... hori, ba generoarekin adibidez ez zuten lotzen... keba. Edo... edo... gizartea inoiz ez zuten kritikatzeko, ezta, ez? Ba... ze eredu dauden, ez? Zerk kaltetzen gaituen emakumeak, ez, ez zegoen... horrelako irakurketarik inoiz, dena zen...” (Geaxi)

Irakurketa kritiko horien falta osteraz uste baino ohikoagoa da elikadura arazo deiturikoen tratamenduetan, eta falta horrek hurrengo bezalako kasuak ematea eragiten du:

“Lehenengo psikologoarekin egon nintzena..., osea, mutil batekin hasi nintzen esan nionean, derrepente pentsatu zuen ja... sendatu nintzen. Derrepente 'ai, begira ze ondo! Ai, begira, mutila daukazu... ba ja gustura egongo zara, ez? Ja... hobeto zaude'. Eta ni pentsatzen... osea, nik berari begiratzen nioen 'como': aaaaaaaa! (harridura/nazka adierazten du), osea, qué toooonta!” (Katrin)

“Buruan iltzaturik gelditu zaidan talde terapiako egun bat datorkit burura, zeinak ezkontza batetara joango bagina bezala apaindu eta janzteko zeukan helburu. Biziki haserretu nintzen planteatu zigutenarekin, ridikulua iruditzen zitzaidan. Terapia orduak gela bazter batean eman nituen muturretan, behin eta berriro begi edo masailei ukitu bat emanaz taldera batzeko gonbitei izkin emanaz. Elikadura arazoei dagokienez diskurtso medikoak daukan genero ikuspegiaren falta azaleratu egiten da honelako dinamiketan.” (Maier)

Eta puntu honetan bada azpimarragarria iruditu zaidan zerbait. Elkarrizketatuetako batek luzatutako garaiko materialaren artean terapia taldean eman zieten poema bat aurkitu dut, 'Mis Flores

Marchitas' deitzen dena, anorexia zein bulimia zituen mutil batek idatzia. Zintzotasun osoz diot amorratu egin ninduela terapia talde batean banantzeko aukeratutako poema gizonezko batek idatzia izateak. Ez diot zentzurik aurkitzen anorexia kasuen %90a emakumezkoa denean, eta talde terapiak emakumez josita daudenean, gizonezko baten idatziak hartzeari eredutzat.

Generoarekin hain lotuta dagoen anorexia kasuak lantzen dituztenek genero ikuspegi baten lanketa falta izatea kaltegarria da dudarik gabe. Gabezia honek agerikoa egiten du genero ikuspegia ezinbestekotzat ez daukan tratamendu medikoak bilatzen duena emakumeak genero arauaren arabera koherente izatea ahalbidetuko duen diziplinamendu bat dela. Kasuokin ikusi bezala edertasun erritualak barneratu eta bikote harreman heteronormatiboak eratzea tratamenduotan txalotzen den zerbait da, pazienteak genero arauak betetzen joatea berreskurapen seinale balitz bezala. Anorexiaduna kaltetzen duen horretara egokitzea bultzatzen dute honelako tratamenduek, eta behin hona helduta ez litzaiguke harrigarri suertatu beharko anorexia kasuen errekupeazio tasa baxua.

Amalurrentzat, feminista izateagatik tratamendu medikoaren genero perspektiba faltarekiko kritikoa denak, anorexia daukan emakume batek emakume feministak izan beharko lituzke erreferentetzat, eta ez beste anorexiadun emakume batzuk, tratamenduan proposatu zioten erara. Zaila ikusten dut kritika feministarik ez daukaten emakumeak puntu berberera heldu ahal izatea, Amalurren ondorio berberak ateratzeko gai izatea:

“Garaian nik nahi nuen desbinkulatu, osea nik nahi nuen anorexiatik desbinkulatu, osea, 'yo no quería saber nada ni de médicos, ni de psiquiatras, ni de ACABE'¹⁴, eta nik nahi nuen askatu horretaz, osea... eta... ez dakit, iruditzen zait... osea, iruditzen zait askoz interesanteagoa... ba hori, ez? ba... anorexia daukan pertsona batek edukitzea erreferente emakume... ez dakit, ez? Ba feminista bat, non... bere ez dakit, ez? e... osea nolabait... mmm... konfidantza ematen diona eta... berak eduki ditzakeen ba bueno, gatazkatxo... ez dakit, ez? ba... lasai hitz egiteko gune bat, eta... de paso, ez? Ez dakit... ze... elkartu lau anorexika esaten 'bai, eske... gaur ez dakit zenbat pisatzen du... eske gaizki nago..., eske...', eske ez tio. Osea nire, nire ikuspegia da, e? Niri behintzat horrek lagundu zidan, nik ACABE-rekin ez nuen nahi jakin ezer, ezer... Nire zerak, nire... zera... ingresatuta egon

14 ACABE (Asociación Contra Anorexia y Bulimia de Euskadi) EAE mailako anorexia eta bulimiaren kontrako erakundea da, 'elikadura arazo' izendaturikoen familiartekoak biltzen dituena.

nintzen... mediko honek eman zidan neska baten email-a, gainera eske garaian nik ez nuen hotmail zeratzen, osea, ez nuen... ez dakit baina... ba hotmail izango zen, baina, osea, ez neukan ezta interneta etxean. Eta esan zidan 'ba emango dizut e...' Cynthia izeneko argentinar bat zen, eta zen anorexika... osea, anorexia zeukan neska bat, ja sendatzen ari zena, oraindik ez zeukan altarik baina... eta esaten zidan berarekin komunikatzeko... eta kontatzeko nola nengoen... eta... ba idatzi nion behin, behartuta. Baina eske nik ez nuen nahi Synthiarekin hitz egin, osea... ez nuen nahi. Eta... zen presio bat, eta gero joan zerara (kotsultara) eta '¿le has escrito a Cynthia?', eta... eske... 'yo no quería escribir a Cynthia'. Nik hori ez nuen behar, justu kontrakoa behar nuen.” (Amalur)

Ikuspegi feministadun emakumez osaturiko talde bat, non bakoitzak bere lorpenak eta gatazkak konfiantzazko gune batean elkarbanatu ditzakeen, askoz eraginkorragoa iruditzen zaio Amalurri anorexia gainditzeko lanetan dabilen emakume batentzat. Honek ez dio eraginkortasunik ikusten anorexiadun emakumeak elkarrekin batu eta egun guztia beraien arazoaz hitz egiten pasatzeari.

Mediku-paziente harreman bertikala, genero gaien lanketa eta pisuak tratamenduan daukan garrantzia oztopotzat jo ditu elkarrizketatutakoen ia gehiengo osoak. Gehiengo honentzat tratamendu medikoa beraiek suspertzeraino egindako bideari puntu bat arte paraleloki jarraitu dion beste bide baten antzerakoa izan da, bi bideok inoiz gurutzatu ez direlarik. Eta gehiengo honek azpimarratu duen bezala, tratamendu medikoaren bidea moztu egiten da suspertzera bideak aurrera jarraitzen duen puntu batean. Hau da, behin medikuak alta eman eta gero beraien kabuz jarraitu dute suspertzera bidean aurrera. Maierrek honela laburbiltzen du:

“Nire historial medikoaren arabera 13 urte nituenetik 18 urte izan arte egon nintzen gaixo, nahiz eta nire arazoa, esan bezala, aurreragotik etorri eta 18 urteak igarota ere jarraitu. Beraz, datu horretatik hasita historial hori ez da inolaz ere nire anorexiaren isla erreala.”
(Maier)

Bestaldean Ilargiren kasua daukagu, zeinak bi bide horien arteko bereizketarik egiten ez duen. Gainontzeko elkarrizketatuen kontrara, honentzat tratamendu medikoak xedaturiko bide bakarra egon da suspertzera. Horrek adierazten du anorexiadunen artean ere kasuak haina ideia ezberdin egon daitezkeela ongizatera heltzeko bideari dagokionez, eta besteekin konparatuz, badirudi

Ilargiren izaera tratamendu medikoak exijitu dionera moldaerrazagoa izan dela. Hori, edo eraikuntza biomedikoan enkulturatuta¹⁵ egoteagatik honen azalpenei sutan den iltze bati nola (Santiso, 2006: 279) eusteagatik, iruditu baliezaioke biomedikuntzaren azalpenek eman diezaioketela konponbiderako behar dituen gakoak.

6.3.2.1. Etiketaren eragina

Tratamendu medikoak diagnosi bidez jendartean oso hedatuta dagoen jarrera multzo bat patologikotzat jotzen du diagnostikatutako pertsonari estigma¹⁶ soziala eragiten dion etiketa jarriaz. Anorexiaren etiketak elkarrizketatuengan jarrera aldaketak eragin zituen, bat-batean beraien burua gaixo bezala ikustera beharturik ikusi baitziren:

“Nik daukat buruan behin, tutoreekin... eskolakoekin... ba hiruhilabeteko bukaeran, ez? ba... kanpora ateratzen ginen ba noten inguruan hitz egiteko, ez? Eta ni atera ninduen eta esan zidan 'zu oso ondo', klaro, dena 9koa neukan, 'baina, problema bat', ez dakit, gaixo ez zuen esan, baina problema bat... edo gaixo, ez dakit hitza. Eta hor bere koadernoan pasa zidan eta 'anorexia'. Klaro, niretzako hori izan zen... osea. Tutoreak, DBH 1. Hundituta, hundituta laga ninduen. Oso gogorra, oso gogorra izan zen. Bai. Hori, buruan daukat. Bai, bai, gaixorik... sentiarazten dizute gaixorik, ze bestela... hori ez dizute idazten, ez? Bai.”
(Geaxi)

“Nik hasieran bai esaten nuela ez nengoela gaixorik. Eta niretzako ingresoarena izan zen... oso potentea, eta... ingreso geroztik... egon zen onarpen bat, baina nik egia esan gero nire burua ez nuen ere..., osea, bai erabili izan dudala igual gaixo, gaixo hitza edo ez nago ondo edo... baina ez nuen nire burua gaixotzat hartzen. Ez dakit. Saiatzen nintzen bizitza ahalik eta normalizatuena egiten, eta hori. Baina nik uste dut... zera... ingreso eta gero onartu nuela gaixotasuna, onartu nuela 'bale, anorexia daukat', eta hor intrinseko doala zure burua gaixotzat hartzea.”(Amalur)

15 Enkulturazioa ikaskuntza esperientzia bat da, partzialki kontzienteki eta partzialki inkontzienteki ematen dena, eta zeinaren bitartez belaunaldi zaharragoek belaunaldi gazteagoak pentsatzeko eta jarduteko era tradizionalak barneratzera gonbidatu, induzitu eta derrigortzen dituen. Belaunaldi bakoitza programatuta dago aurreko belaunaldiaren jarduteko modua errepikatzeke, baita bere enkulturazio esperientziari egokitzen zaion jarrera saritu eta desbideratzen dena zigortu edo ez saritzeko.

16 Erving Goffman-en definizioa erabiliz, 'estigma' onarpen sozial oso bat ezgaitzen duen norbanakoaren egoera (Goffman, 1963: 7) da. *Termino hau izena zeharo belzten duen ezaugarri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da* (Goffman, 1963: 13).

Eta gaixo papera hartzeak, orokorrean, jarrera aldaketa nahiko negatibo eta auto-suntsitzaileak ekarri ohi ditu. Parsons-ek (1951), 'gaixoaren rol'-az hitz egiten lehenak, zenbait norbanako gaixoaren rolak erakarrita sentitu daitezkeela dio, gaixoaren paperak ohikoak diren hainbat eginkizun betetzeko ezintasuna dakarrelako berarekin. Kritikatua izan den arren, autore honek azpimarraturikoak, era batera edo bestera, ulergarri egiten ditu elkarrizketatuek diagnosia jasotakoan bizitzako jarrera aldaketak. Emakume hauek ez zuten, beharbada, gaixo papera bere egin egunerokotasuneko eginkizun ohikoak betetzetik libratzeko, baina agian bai genero arauak agintzen zituen zenbait eginkizunetik libratu eta nahieran jarduteko.

“Pues bueno, ba gurasoek ikusi zutenean janariarekin jolasten ari nintzela hartu nuen jarrera bat ba... 'berdin zait zer esaten didazuen, ez dut nahi jan', eta ez nuen jaten. Eta bueno... ba iritsi zen momentu bat... pues bueno, oso gaizki nengoena eta ingresatu egin behar izan ninduten.” (Amalur)

“Neregan... gehiago sartu ninduten (anorexian)... zeren ni beraiengana joan nintzenean, osea, horrela nengoena baina... oraindik ez nekien zertan nengoena, 'porque' ez nekien... zer zen eta zertan nengoena. Eta ya izen bat jarri zioten, zer zen, nola zen, zer egiten zuen jendeak, ze... ez? Ba hori dena entzun nuen eta orduan ja... hor 'de lleno' sartu nintzen, nik uste, mundu horretan. Eta ja... ba beste pertsona batek hori (anorexia) zeukanarekin, horrekin geratu hitz egiteko eta 'zer egiten duzu', 'nik hau', 'no sé que'... ez? Hori baino lehenago ez neuzkan gauza horiek... ba neukan ba ez nuela nahi jan eta 'ya esta', ez ja hainbesteko ideia... 'eskabrosoa', kar, kar, kar.” (Katrín)

“Niretzako izan zen aldaketa handia, osea, behin etxean esanda, eta... mmm... denek esaten dute hori. Izan zen 'como'... egon nintzen disimulatzen denbora pila bat, eta ja onartu nuenean.. ja izan zen 'como el bajón', ja izan nintzen naturala, eta ja ez nintz... ja... galdu nituen pila bat kilo. Aprobetxatu nintzen asko egoeraz, eta hori onartzen dut gaur egunean. Hau da, amak esaten zidan, edo aitak, 'bueno ba botaka ez egiteko... - zeren prioridatea hori zen hasiera batean (botaka ez egitea), ez geneukanean informaziorik- jan nahi duzuna'. Orduan zer egin nuen? Hasi gutxiago jaten. Nahiz eta gosea izan esaten nuen ez neukala, eta egia esan, esan eta galdu nituela bost-sei kilo... 'en cuenti6n de un'... hastearekin

psikiatrarekin, 'vamos'. Eta bai, eta ja hor hasi zen e, botaka egiteari utzi nion segidan, hori egia da, ez zitzaidan kostatu batere ez... baina hor hasi zen ja, pffff, paranoia handia jatekoarekin. Eta ja hasi nintzen efektuak antzematen... hori, 'pues que si' tristura... gogo gutxi egiteko gauzak... super ahula sentitzen nintzen... osea, ja hor hasi zen, apur bat, etapa super beltza.” (Ilargi)

Azaldutako jarrera aldaketok anorexiadunaren bizitzan sekulako eragina daukate, sarri diagnostiko aurreko egoeraren alboan askoz ere gogorragoak diren egoerak eraginez, eta aurretik existitzen ez ziren arazoei bide emanaz. Antsietate atakeak horren adibide:

“Ez, momentuan ez, 'porque ya te digo', osea zaude 'encerrada en'... zergatik... mmm... osea, zeinen leloa izan naizen... klaro, zuk ez duzu ikusten zure... osea, zuretzako ze kalte egiten duzun, ez da zerbait bisuala, orduan diozu 'joder, 'es que' nabil pasatzen oin gaizkiago lehen baino, osea, lehen nengoen txarto baina orain nabil pasatzen txartoago'. Orduan, momentuan egia esan ez nuen ikusten... 'es que de hecho', joe, izan zen... hori, egotea beti normal, bizitza normala... pun, derrepente 'a que si ataques de ansiedad', 'que si' negarrez denbora guztian, gogo barik ezer egiteko, ... esaten zenuen 'joder, 'si es que' lehen nengoen hobeto'”. (Ilargi)

Behin jarrita, estigma eragiten duen etiketa hori oso zaila da gainera kentzen, anorexia gainditu ostean ere honen presentzia nabari daitekeelarik. Etiketa jarri zaionaren biktimizazioa izan daiteke horren adibide, guztiz emakume burujabearen itxura emateaz gain itxura horrekin bat datorren izaera erakusten duen Ilargiren kasuan bezala, gerora ere gurasoek bakarrik bizitzeko haina burujabetasunik ez duen emakume bezala ikusi izan baitute:

“Eta beti entzun da, 'que si recaída', nik ez dut izan adibidez, osea... bai euki ditut sirokoak e? Baina erorialdi bat... ez dut bizi, ez dut bizi nahi, baina nire etxean beldur hori dago, de... 'va a recaer, y no le vamos a dejar volar'. Eta ni bizi naiz bakarrik mutilarekin, eta nire etxean kostatu zan pila bat hori asumitzea, eta psikiatraren onarpena egon behar izan zen, psikologo, dietista, osea, mundu guztiarena 'de que Ilargi se podía ir a vivir sola, porque' zen 'como'... klaro, mentalitatea ez zen 'de' bakarrik bizitzera doa zeren mutil bat dauka, nahi du berarekin egon. Ez, mentalitatea da: hara doa bizitzera horrela ez diogulako

janaria kontrolatuko. Gero ikasten dute, eta ikusten dute ezetz, baina... bai da 'como' pfff. Nekagarria da zuretzat, baina nik uste dut dela rol bat 'que' bueno... pixkanaka joango da joaten, osea...” (Ilargi)

6.3.2.2. Gaixo estigmari tirabiraka

Gaixo etiketa gainetik kentzea lortu duten honetan, etiketa horri buruz hausnartu dute elkarrizketatuek. Benetan gaixorik egon zirela uste duten eta ea 'gaixotasuna' den anorexiari erreferentzia egiteko hitza bezalako galderak plazaratu dizkiedanean erantzun hauek jaso ditut:

“Ba muturrera eraman nuen, gizarteak exijitzen duena muturrera eraman nuen. Baina, gaixorik? Ez.” (Geaxi)

“Gaixo baino gehiago, esango nuke lehen esan duzun bezala, behea jo. Behea jo dut eta sasoiz konturatu naiz, igual ez dut beste batzuk bezainbeste jo behea. Gaixorik ez, hilerokoa joateaz aparte ez dut beste sintoma txarrik izan... orduan, gaixotasun bezala ez.” (Ekiñe)

“Gaixoa... ez. Niretzako gaixoa da ba... ospitalean dagoena, edo... ez dakit, beste gaixotasun bat, baina ez dut ikusten... nik, esaten badidate 'gaixotasun bat e...', begira, mmm, kotxeko karneta joan nintzen aurrekoan e... hori egitera, berriro egitera, eta 'gaixotasunik?', 'ez' erantzuna. Eske ez zait okurritzen esatea 'anorexia', kar, kar, kar, ez... ez dut ikusten horrela.” (Larraitz)

“E... ez dakit... ez... osea, arazo bat... arazo asko zeuzkan pertsona bat. Baina igual gaixoa... ez dakit (zalantzati dago, erantzun ziurrik aurkituko ez balu bezala). Kar, kar, kar. Igual banintzen, izango nintzen, e? Baina... eske 'gaixoa' hitza... (...) Eske nik beti pentsatzen dut dela... osea, ez dela... dira janarian kanalizatutako arazoak.” (Katrin)

Bai, bai, bai, nik osea onartu egiten dut, osea, al 100%, baina gaixorik egon naizela, ez gaixoa izan naizela. Hori da diferentzia. Ni bai egon naiz gaixorik, totalmente, osea, ni naizen pertsona gaur egunean eta izan nintzen pertsona 'es que ya'..., mmm, osea bai, nik onartuta daukat gaixorik egon nintzela, eta gaur egunean jarraitzen dudala pixka bat

tokearekin... baina nik super argi daukat gaixorik egon nintzela, osea daukat super onartuta. (Ilargi)

Ilargi alde batera, zeinak tratamendu medikoaren diskurtsoarekin guztiz bat egiten duen, gainontzekoek edo ez dute oso argi ikusten bizi izan zuten anorexia pasartea gaixotasunak eragina izan ote zen, edo guztiz argi daukate ez zela inolako gaixotasunik egon. Ezberdintasun honek, ostera ere, besteen ondoan Ilargi tratamendu medikoak exijitutakora moldagarriagoa dela edo eraikuntza biomedikoetan enkulturatuagoa dagoela iradokitzen dit.

6.3.2.3. Ospitaleratzea zigor gisa

Esan bezala, anorexia tratamenduetan medikuntzaren diskurtsoa totalitarista bilakatzen da, honen arau eta metodoak goitik behera errespetatuak izan daitezen diziplina inposatzen dutelarik pazienteen artean. Gorago azaldu den bezala, elkarrizketatu guztiak izan dira indarrera ospitaleratzearekin mehatxatuak, eta mehatxu horiei entzungor medikuak desafiatzen jarraitzea erabaki zuten Amalur eta Maier ospitaleratuak izan ziren. Biek ere zigor bat bezala gogoratzen dute Valls-Llobet-ek (2009) zerrendatutako eta goraxeago aipatutako medikuntza jardunaren biolentzia matxisten artean dagoen erabaki autonomoak hartzea eragozteko kanpoaldetiko isolamendu hau:

“Ingreso garaia espetxeratze derrigortu bat bezala bizi izan nuen, zigor bat bezala, eta halaxe gogoratzen dut oraindik. Momentuan ez nuen ulertzen zer dela eta sartu behar zuen muturra jendeak hain neurea nuen jakia kontrolatzeko aferan, amorratu egiten ninduen jokaera hark.” (Maier)

“Zigorra, zigorra. Gela batean nengoen itxita, pestilloarekin, e... bisitak neuzkan dena jaten nuenean, mmm... bazeuden hor... ba hori, ez? Ba distortsioaren gaia lantzeko... okurritu zitzaion (medikuari) argazki batzuk ateratzea... eta atera zizkidaten argazki batzuk... osea, biluzik, eta... eta gainera etorri zen argazkilari bat, gizona, osea ez zizkidaten ezta beraiek atera (argazkiak), etorri zen argazkilari bat, gizona, gaztea, eta... eta ni hor, osea... osea zen, izan zen... sentitu nintzen, bai, ba sentitu, sentitu nintzen... bortxatua. Izan zen oso gogorra.” (Amalur)

Eta berriz ere genero lanketa baten falta agertzen zaigu, oraingoan ezjakintasunaren ondorioz baino kontzientzia osoz eragina dirudiena. Amalurrek argi eta garbi identifikatzen du bortxazko tratua izan zena, bi gizonek isolamenduak eta biluztasunak eragindako babesgabatasun erabatekoan dagoen adin-txikiko emakumeari gogoz kontra argazkiak ateratzeak ez baitauka beste izenik. Eta hemen ezin agerikoagoa bilakatzen da medikuen ordena patriarkala mantentzeko funtzioa, antzerako bortxazko ekintzekin bilatzen dutena emakumeen sumisioa besterik ez baita. Ospitaleratutako anorexiadun emakumeak ez du altarik jasoko sumisio totala barneratu - edo behintzat antzeztu – arte, pisu egonkor bat lortu arren ere sumisio erakustaldi bat egon ezean ez zaie etxera joaten utziko:

“Niretzako... izan zen... buf, oso gogorra. Oso gogorra. Ba... hotza, mmm... ez dakit, osea, ni gogoratzen naiz behin, ingresatuta egon nintzenean, begira... da... da oso... oso zera... oso... gogorarazten dut kristoren amorruekin zeren... bueno ba... medikuek esan zidaten pisu batera iristen nintzen momentuan ja alta emango zidatela. Baneraman denbora pila bat ingresatuta, orduan niretzako alta zen... pfff, osea, behar nuen, ez? Eta... bueno ba, alta eman zidaten, baina esan zidaten 'e... bazkaldu behar duzu, zera, ospitalean', eta esan nuen 'bale'. Aita etorri zen, hartu zituen gauza guztiak, kotxera eraman zituen gauzak, eta... ekarri zuten bazkaria, eta aita zegoen nire ondoan... bazkaria... elkarrekin bazkaltzeko zain. Beti... norbaitek superbisatu behar zuen, bazkaltzea eta hori. Ireki nuen bandeja, eta ikusi nituen... albondigak, tio, osea igual sei edo zazpi albondiga, eta lehenengoa zen e... errioxa... patatak errioxar erara txorizoarekin. Eta nik ja banekien, 'nik hori ezin dut jan', eske ja banekien, ordura arte inoiz ez zidaten hori ekarri, osea eta banekien hori ezin nuela jan, eta... klaro, osea nik hori ikusi nuenean, alta eman zidaten egunean, ja, osea ja alta neukan, ja nire aitak gauzak eraman zituen kotxera, osea ja egin behar nuen hori jan eta 'piratu', ikusi nuenean hori... konturatu nintzen ez nindoala etxera, eske nik hori ezin nuen jan, osea... eta klaro, ba... ba medikuari esan nionean eta... eske hartzen nuen albondiga eta eske, eske arkadak ematen zizkidan, eske ezin zen, osea ezin nuen, eta... klaro, gizonaren (medikua) aurrean osea jaten nuen eta hasten nintzen horrela (arkadaka), eta bronka botatzen zidan. Eta bueno, osea hor sortu zen halako tentsioa, bueno... hartu nituela, eske sartu nuen eskua platerean tio, 'es que de... de la rabia... es que... quería matarlo... es que lo quería matar tio... porque es que... me estaba haciendo, me estaba puteando!' Osea zen como... osea, badakizu eske... ez nagoela prest hau jateko, osea, egon gara hiru hilabete

hemen, eta, badakizu zenbat kostatu zaidan, osea, badakizu... beste dena, ekarri didaten guztia jan dudala tio, osea... joan behar dudan egunean hau ekartzen didazue? Eta izan zen oso gogorra, oso oso gogorra. Aita joan zen, osea aita negar batean joan zen, eta... eta han gelditu nintzen. Eta izan zen fuaaa... oso gogorra, bai...” (Amalur)

Maierek ere ospitaleratzean jasotako indarkeriazko tratu hori, era finagoan emana bada ere, baieztatzen du:

“Suminez gogoratzen dudan zerbait bada, ospitaleratuta nengoen garaian auxiliar batek edo bestek nola mehatxatzen eta iraintzen zidaten alegia ('baduzu garaia umekeria hauek uzteko', 'martxa honetan psikiatrikoan giltzaperatuko zaituzte', 'nire lan hau zeuk egin beharko zenuke, zurea ez baita gaixotasuna alferkeria baizik', ...). Kartzelako funtzionarioak espetxe diskurtso makabroak nola, auxiliarrok diskurtso mediko adoktrinantailea zerabilten beraien nahieran. Tratu hau salatzen nuen arren, inork ez zidan esaten nuena sinesten egun batez ni dutxan nintzela bisitan zegoen ahizpa nirekin nahasi eta honek salatzen nuena bere azalean bizi arte. Ausartuko naiz esaten, horrela iruditzen baitzait, pare bat profesionalen tratu guztiz errespetagarria albo batera, anorexiaren kontuarekin ospitalera egin nuen lehen bisitatik handik hanka egin arte indarkeriazko tratua jaso nuela sistematikoki. Umemoko txolin bat baino ez nintzen bidean aurkitu nituen askorentzat.”
(Maier)

6.3.3. Autoatentzioa

Anorexia izatearen-krisialdi denez gero, ongizate fisiko, mental eta sozial gabezia eragiten ditu. Krisialdi horretatik ateratzeko ezinbestekoa da autoatentzio prozesu bat martxan jartzea. Prozesu hori anorexiadunaren lagun-taldeak – norbanako, lagun, senideak, eta abar barnebiltzen dituenak - jartzen du martxan, eta behin prozesua ekinda erabakiko dute ongizatea berreskuratzerantz bidean zein pausu eman edo norengana/zerengana jo laguntza eske.

Ekiñeren kasuan, eta anorexiadunaren biktima papera txikitzen duen burujabetza erakustaldi betean, bera izan zen ez zegoela ongi konturatu eta egoera hori aldatzeko lehen pausua eman zuena, amari bere arazoaren berri emanez eta autoatentzio prozesua martxan jarritz:

“Egun batez ni konturatu nintzen, justo lagun batekin hitz egiten, lagun hori kontatzen bere lagun batek zeukan arazoa, eta esaten zidan 'joe, eske nere lagunak buruz dakizki yogurraren kaloriak, esnearen kaloriak' eta ni horrela, ui! (sorpresa/harridura adierazten du). Historia guztiarekin islatuta ikusi nintzen, 'ai ama ni naiz', kar, kar, kar, eta orduan bai, kristoren negargura sartu zitzaidan, kristoren bajoia eta lehenengo amari esan nion 'ba igual bai badaukat, e, arazo bat'.” (Ekiñe)

Katrini dagokionez, honen ama konturatuta zegoen bere alabari zerbait gertatzen zitzaiola, baina hala ere zain egon zen Katrinek berak zerbait esan eta honi medikuarengana joatea planteatzeko. Honek ere, amari gertatzen zaiona kontatuaz, burujabetasun eta agentzia erakustaldia egiten du:

“Ba nire amak hitz egiten du nire medikuarekin... eta... berak hala ere itxaron egin zuen nik esan arte. Eta gero, ni ja gaizki sentitzen nintzenean, ba gogoratzen naiz beraiek norabait zihoazela egun pasa, eta esan nion: 'bueno ama, ba jaten dudanean gaizki sentitzen naiz eta uste dut arazo bat daukadala'. Esan zidan: 'a bai? Ba jada hitz egin dut eta Donostira goaz', 'no sé qué', eta horrela.” (Katrin)

Eztanda egin zuen momentu baten aitortu zion Ilargik bere bikoteari zer gertatzen zitzaion janariarekin, ostean etxean honi buruz hitz egin eta medikuarengana jo zuelarik:

“Eta esan nuenean izan zen mutilak harrapatu ninduelako, bueno harrapatu ez, bueno ba konbertsazio batean azkenean ba esplotatu egin nuen eta kontatu egin nion, eta berak esan zidan: 'edo zeuk esaten diezu gurasoei edo nik esango diet, osea, 'no hay más''. Eta esan nuen etxean, eta... segituan ja hasi ginen medikuarekin, osea, hurrengo egunean ja medikuarengana.” (Ilargi)

Maiarren kasuan osteraz ez zen bera izan lehen pausua eman zuena, kolektiboak hartu zuen autoatentzio prozesua ekiteko erabakia eta indarrez eraman behar izan zuten medikuarengana:

“Etxekoak nitaz arduratuta egoteaz gain eskola esparruko jendea ere arduratzen hasi zenean, guztien artean zerbait egitea erabaki eta indarrean medikura eraman ninduten,

barkatu ezinezko traiziotzat jo nuelarik ekintza hau.” (Maier)

Badirudi anorexia kasuak tratatzeko erreferente bakarra medikuntza eredu hegemonikoa dela mendebaldar imajinario kolektiboan, elkarrizketatu guztiek, behin lagun-taldea mobilizatu eta gero, medikuarengana jo baitzuten laguntza eske. Hala ere, badago tratamendu mediko honek konfiantzarik bermatu ez eta suspertzeraino doan beste bide bat hartzea erabakitzen duenik, Ekiñe kasu:

“Psikiatrarengana bideratu ninduen medikuak. Eta nik kontatu nion dena, hau eta hau gertatzen zait, eta esan zidan 'ah muy bien, ya sabes lo que tienes ¿no? Tienes anorexia' eta nik 'aja, uumm, bale' eta ni 'ah bale' eta esan zidan, imajinatu uda hasieran joan banintzen, esan zidan 'etorri irailerako' eta ez nuen berriro joan nahi izan. Iruditu zitzaidan leku bat esan nuena 'ja badakit zer daukadan eta badakit zuk ez nauzula lagunduko' baina aldi berean bai antzeman nuen falta bat, zeozerk laguntzea behar nuela, baina ez zela izango tipa hori lagunduko zidana. Eta hori, esan nuen, ez dut nahi ona etorri ze jada soilik itxarongelan egoten, psikiatrarenean, esan nuen 'ai ama!, ez dut nahi hain gaixo egon, edo ez naiz hau, ez naiz gaixo bat, edo ez dakit'. Baina aldi berean bai banintzen, zeren eta zen, 'bale, hemendik aterako naiz, ez dut nahi gaixo bat izan, baina gero nire buruarekin aurkituko naiz plater baten aurrean berriro'. Eta orduan ez nekien oso ondo ze laguntza eta 'sin más', jarraitu nuen psikologorengana joaten psikiatrarengana barik, eta gero ja ez nintzen joan berriro... eta berez, ni osatuta nago.” (Ekiñe)

Amalurrek ere ez zuen konfiantza gehiegi medikuengan, eta nahiz eta tratamendu medikoarekin jarraitu zuen, heldulekuak esparru medikotik kanpo bilatu zituen. Lagunak identifikatzen ditu euskarri potente gisa:

“Eta gainera... joe, nik adibidez... bueno hasieran psikiatra, psikiatra bat jarri zidaten, baina eske nik ez... ez nuen... gizona zen ere, ez nuen inoiz konektatu berarekin. Joaten nintzen eta... eske ez nion ezer kontatzen. Nik ja garaian, ordurako... bueno... hasiera-hasieran igual ez baina ez zen denbora asko pasa nik ja lagun talde hau egin nuela, ez? Orduan kontzientzia pila bat neukan eta beraiei kontatzen nizkien nire egunerokotasuneko gauzak beti janariarekin lotuta, inoiz ez... nondik zetorren edo... inoiz ez haurtzaroko

bizipen horiekin, e? Osea, hori ez nuen... ez nien kontatzen, baina bai kontatzen nien 'jo ba gaur... gaur ez dut jan, eta 'mobida' izan dut amarekin, eta eske horrela sentitzen naiz, edo hola', hori bai, eta... eta orduan ba nolabait ez nuen sentitzen beharrik psikiatrari kontatzeko. Eta iritsi zen momentu bat, eske berak (psikiatrak) ere esaten zidan 'eske... ez dakit zer egin zurekin, osea... ez dago 'feeling'-a, ez dago...' eta orduan ja ez nintzen joaten. Orduan joaten nintzen endokrinoarengana, e... bueno baita egin zizkidaten nahiko maiz... zera, ba pisatzen ninduten eta gero analisiak eta..., eta hori zen, eta hori zen. (...) Orduan klaro, ja, lagun talde honekin, osea ikusi nuen ba hori ez? ze... pfff, ze giro ona..., eta zenbat gauza egiteko..., eta zenbat plan, zenbat... eta ni hasi nintzen ja ibilbide bat egiten jende honekin, eta ba esperientzia pila bat edukitzen, konfiantza pila bat... ez dakit... pfff, ez dakit, osea,... Eta bai ikusi nuela ere bai hori, ez? ba... ba mila leiho irekitzen zitzaizkidala ere bai, ez? Eta... eta ba bueno, ba... bai, beraiek izan dira euskarri oso potente bat, oso oso potente bat, gaur egun oraindik dira, osea... bizitzan... ez dakit, ja ez... anorexiarekin lotuta, ez? Baina bai izan direla... makulu handi bat.” (Amalur)

Ospitaleratu zutenean baina, kanpoan zeukan heldulekurik gabe gelditu zen Amalur, eta honen faltan ospitale barruan eratu behar izan zuen behin-behineko autozainketa sare bat. Deigarria da nola ez dituen autozainketa sare horretan sartzen bere kasua zeramaten adituak:

“Niri, e... maitasun hori eman zidaten zirujau honek, oraindik gogoratzen naiz, Goikoetxea, el Doctor Goikoetxea, gogoratzen naiz etortzen zen, egunero etortzen zen niregana, eta niri, osea, berak eman zidan kristoren indarra, eta gero auxiliar batek, Cecilia deitzen zen, kristoren tipa, kristoren tipa, etortzen zen eta... kristoren goxotasuna... osea, esaten zidan, e? 'eske, osea, tú osea... tienes que salir de esta... que...', bai... bai. Eta baina eske falta hori, ez? Osea gurasoen falta hori... eta lagunena, eta... bai.” (Amalur)

Ilargirentzat tratamendu medikoa izan da autozainketa prozesuko pieza garrantzitsua, baina hala ere dio ez duela uste suspertzea posible litzatekeenik tratamenduaz gaindiko lagun-taldearen presentziarik gabe:

“Niretzat... osea, 'de hecho' uste dut... bale 'que' profesionalak dakitela gaiari buruz gehiago eta asko laguntzen dizutela, baina egia da gero arazoak bizi dituzula bizi zaren

jendearekin, eta horrek... hor aguantatzen duzu (...) Eta nik uste dut: tratamendua bai, orientabide modura. Baina gero benetako 'mobida' daukazula... dituzun pertsonekin. Eta dira 'los que aguantan' eta zurekin bidean daudenak.” (Ilargi)

6.3.3.1. Martxan jarritako mekanismoak

Ongizate falta bat dagoela agerikoa egin eta ongizate hori eskuratzera bidean martxan jartzen den autoatentzio prozesuan mekanismo ezberdinei ematen zaie bide. Aipatu bezala, mekanismo ohikoena tratamendu medikora jotzea bada ere, kasu bakoitzean beste hainbat mekanismo ezberdin ere erabiltzen direla antzematen da. Kaltegarri zaien ohitura edo gauzak alboratzea da mekanismo horietako bat, zeinak zerk kaltetu duen identifikatzeko prozesu bat martxan jartzea exijitzen dion anorexiadunari. Jarraian ikusi dezakegu elkarrizketaturen batek edo bestek kaltegarri gisa identifikatu dituen gauzak genero arau femeninoaren oso berezko direla:

“Eta oraindik ere, hartzen dudan beste neurri bat da, Stradivarius eta horrelako dendetan ez erosi edo askoz gutxiago joatea erostera. Ze horko ispiluan berriro zu eta zure 40 tailla edo berdin zait ze tailla, aaaaaaaaa!!!!, gasezko dutxa batzuk bezalakoak dira, ez dakit. Pixka bat suizidioa da. Eta klaro, bai, pixka bat, guztiz osatzeko, aldendu egin behar zara nolakoa izan behar duzun esaten dizuten toki guztietatik edo lehen inertziaz joaten zinen leku danetatik.” (Ekiñe)

“Urrundu ba fisikoa garrantzitsua zen... gauzetatik, ez? Ohiturak aldatu, ez dakit. Ba lehen niretzat... ba lagunekin merkatalgunera arropak erostera joatea garrantzitsua zen bezala ba... ba horrelako gauzak. Eske ja... aldatzen duzunean ohiturak, ba horrek eramaten zaitu, ez? Beste bide batetik.” (Geaxi)

“Edo igual... ba... ba ibiltzen nintzen ballet-ean dantzan... hori utzi eta gehiago pasatu nintzen abestera..., gitarra jotzera..., horrela... bai. Bai, beste hobby batzuk bilatu... baita, bai.” (Geaxi)

Bati kaltegarriak zaizkion gauzak beste bati lagungarri izan dakizkio ostera, Geaxik dantza kaltegarri zuelako utzi zuen era berean Amalurri dantzak lagundu baitzion suspertzera bidea egiten:

“Gero, errekupeazio prozesuan jo, super garrantzitsua zerarena, dantzarena. Osea, dantza, eta begira zela... nire etxean hori ez zen... gurasoek bazuten beldurra, ez? Zeren dantzan anorexia, anorexia asko dago ere, baina joe, niri egin zidan... pfff, niretzako izan zen... ez dakit, nolabaiteko askapen prozesu... oso heavy bat. Zeren klaro, dantza egiteko indarra behar nuen eta jan egin behar nuen, ez? Orduan, hartu nuen oso... benga ba, osea, 'a por todas'. Eta... disfrutatu eta karrera egin nuen, eta izan zen... bua, oso polita, oso polita.”
(Amalur)

Eta hemen ikusten da nola oso femeninotzat jotzen diren alorrak, dantzarena kasu, anorexia kasuen foku izan daitezkeelako uste aski hedatua. Amalurrentzat dantza euskarri ikaragarria izan bazen ere, honen familian dantzarekiko afizioa beldurrez hartzea erraz ulertzen da, nabarmena baita femeninotasun oso muturrekoa gurtzen den alorretan anorexia kasuan ugariak izan ohi direla. Detaile hau ere esanguratsua zaigu genero arau femeninoak anorexia kasuekin daukan lotura azpimarratzerakoan.

Bere emakumetasunean gustura dirudien Amalurrek beraz ez zuen sentitu esparru femeninoetatik hainbeste urundu beharra, dantzarekiko pasioak esparru honetan anorexia gairatzeko sobera indar ematen baitzion. Beste elkarrizketatu batzuen kasuan oster, femeninotasun muturreko horretatik ahalik eta gehien aldentzeko nahia hain pisutsua izan da ezen lagunengandik aldentzea ere beharrezkoa ikusi izan baitzuten:

“Agian momentu batera arte oso konpatibleak ginen nik ere ez nuelako zalantzan jarri inoiz generoaren rolloari buruzko ezer ba hori, ba 16 urtera arte. Baina hortik aurrera (anorexiaren hasierari erreferentzia egiten dio) klak bat egin zen, hori izan zen. Eta gero ja bueltatzea edo... koadrilan bale, harreman korrekto bat daukagu baina berriro lagun minak izatea ekiditen didan zerbait bada hori. Osea, ez dakit, hainbeste garrantzia edertasunari eta besteen gustukoa izate horretan, eta agian aldatu dira, agian ezberdinak dira e, ez dakit, baina momentu batean autodestruktiboa bilakatzen da. Hemen jarraitzen badut... (iraganean balego bezala dio 'hemen jarraitzen badut..', bertan jarraitzeak kalte egingo ziokeela adierazteko). Eta listo, eta ja hain ezberdinak bilakatu gara jada ez daukagula ezer komunean. Bi bide ezberdin.” (Ekiñe)

Ekiñek autosuntsizaitzat jo zuen hain femeninoak ziren bere koadrilakoekin ibiltzea, eta horrek beraiengandik aparte beste bide bat bilatzera bultzatu zuen. Geaxi ere aldendu egin zen bere anorexia garaiko koadrilatik, momentu horretan femeninoegiak edo ikusten baitzituen. Urte batzuetan femeninotasun hori gorpuzten zutenengandik aldentuta ibili bada ere, egun horrelako jendearekin egoten ikasi duela dio:

“Hombre, ni baino... momentu horretan ni nintzena baino femeninoagoak... askoz gehiago. Orain ez ditut horren femeninak ikusten, eh? Baina... bai, momentu horretan niretzako bai, edo ezberdinak edo...(…) Eta pixka bat bai izan naiz, e... horrela, urte batzuetan ba... horixe, aspertu egiten nintzen horrelako jendearekin..., baina gaur da eguna herrian koadrila bat daukadana eta denetarik dagoena, eta... eta ez daukat arazorik inorekin egoteko eta denak errespetatzen ditut, baina... horra iristea ere... kostatu zait... urte batzuk, bai.” (Geaxi)

Genero arau femeninoak anorexia kasuetan buruhausteak eragin ditzake beraz, eta tratamendu mediko hegemonikoak honi garrantzirik ematen ez diolako detaileak nahasmendua eragin dezake anorexiadun emakume askorengan. Nahasmendu horren aurrean, ez da harritzekoa terapia alternatiboak bilatzea:

“Bai, erdi azti bat edo naturista edo horrela. Ba homeopatarena... zeren... nire amona joan izan da beti horrengana. Eta... izan zen agian lehenengo pertsona neregan zera egin beharrean, e galdetu zizkidana txikitako gauzak, nire gurasoekiko harremanak, ... horrela, sakonago bezala. Dena janaria edo izan beharrean... Ez dakit, berak esan zizkidan gauzekin, lehenengo aldiz sentidu nintzen ulertzen ari zitzaidala bezala.” (Katrin)

Egunerokotasunean suspertzera bidearen norabidea galtzea eragotziko zien zenbait mekanismoren existentziaren berri ere eman dute elkarrizketatuek:

“Ikusten nuenean arrisku egoeretan nire burua, 'sí que tenía los santos huevos de' nengoen pertsonari esatea 'ez utzi komunera joaten edo kontrola nazazu'. Hori egia da, aber, konfiantzazko jendearekin egiten nuen, eh? Baina bai esaten nuen ,e, joe, gogoratzen naiz behin, lagun batekin, esan nion 'ez utzi komunera joaten zeren komunera banoa horretara

izango da (botaka egitera)', eta ez zidan utzi, eta joan nintzen, bueno eske txizagura neukan, eta joan nintzen komunera eta joan nintzen berarekin. Eta horrelakoak bai erabiltzen nituen eeehhh ni... osea, e, ez... zan... zan 'como un mecanismo de defensa pero de exterior'.”
(Ilargi)

“Bai ipintzen nituela erronka txikiak bezala... igual ez nituen betetzen, ez? Igual esaten nuen 'pues aste batera... tal', reto txikitxoak... horrek dietistarekin negoziatzen nituen gehiago, eta azkenean amaitzen nituen betetzen, 'pero'... nintzelako burugogorra. Eta niri balio zidan, nire teknika beti izan da, imajinatu: pintxo tortila bat, jan (jarritako reto bezala ulertzen dut), eta igual 'estaba rayada'... baina pintxo puta jaten nuen eta igual egoten nintzen bi egun, baina pisatzen nintzen eta ikusten nuen ez zela ezer gertatzen, osea, 'que seguía pesando (lo mismo)'. Orduan horrek animatu egiten ninduen eta esaten nuen 'ostia, ba ez da ezer gertatzen!', eta orduan horrek bai animatzen ninduen, ni beti izan naiz oso 'con la báscula', eta animatzen ninduen ba beste pausu bat emateko eta esateko 'ostia, 'pues es que' ez da pasatzen ezer ez, ez dut hartu ezer (pisurik)... igual argaldu eta dena egin naiz'. Orduan niri teknika horrek bai balio didala... de jan eta gero pisatzea. Ez segituan e? Margen batekin, baina hori bai izan da nire teknika. (...) Eta niri hori metodoa 'de' pisatu egun batzuetara eta ikustea ez zarela pasatu ezer ez animatzen ninduen pila bat. Osea, niretzako baskula izan da, e, estaia eta laguna aldi berean.” (Ilargi)

Ekiñek, Ilargik ez bezala, ez du izan maitasun-amodiozko harremanik baskularekin, honentzat baskula bere egunerokotasunetik guztiz baztertzea martxan jarritako mekanismo bat izan baitzen:

“Erabaki nuen ez begiratzea berriro kalorien etiketei adibidez, eta oraindik ere errespetatzen dudan zerbait da, eta berriro ez pisatzea. Osea, hasierako neurri muturrekoak izan ziren: pisua armairura eta kalorien etiketak begiratu ere ez egitea. Lehenengo horrela. Eta nahiz eta hasieran izaten duzun jan osteko damua ere, nik bakarrik, ba aurre egin, aurre egin eta aurre egin.” (Ekiñe)

Eta baskula kanporatzean libratutako espazioa feminismoarekin betetzen hasi zen:

Eta gero, ja bai, pixka bat feminismitik hasi nintzen irakurtzen, hasi kotilleatzen, ez dakit

zer, eta momentu batean sentitu aliatuak edo, aliatuak edo ez naizela ni izan honen erruduna. (Ekiñe)

Eta agian emakumeak aliatu gisa sentitzen hasteak bultzatu zuen tabutzat bizi zuen arazoaren inguruan anorexia bizi izandako beste emakume batekin hitz egiteko erabakia hartzera:

“Hor oraindik erdi osatuta nengoen edo behintzat nahiko kontziente nintzen zer pasatu zitzaidan, jada Berrian nengoenean, eta nahita egin nuen erreportaje bat anorexiari buruz ba pixka bat entzuteko aber... ez dut inoiz berba egin honetaz inorekin eta nahi dut jakin zer pasatu zaidan, ze ez dut izan ezta ere laguntza handi bat edo ez dakit, eta hor pila bat lagundu zidan zurekin berba egiteak, ze ja esan zenuenean, eeee, 'ez nintzen feminista izango agian anorexia pasa izan ez banu', eta gero konturatu nintzen ni ere agian horregatik sartu naizela feminismoaren munduan momentu baten, ba hori, momentu batean esan dudalako 'ai ama, begira zer egin didan munduak, ez?, emakume jaio nintzelako”.
(Ekiñe)

Bere partetik, Amalurrek anorexiataz definitiboki libratzeko erritual itxurako mekanismo bat jarri zuen martxan. Anorexia berea ez zela argi utzi eta honen pisua jaurti ahala aurrera egitea ahalbidetuko zion errituala:

“Hasi nintzenean pixka bat goraka, egon zen egun bat hartu nituela argazki guztiak, eta ziren urte askotako argazkiak, baina ni gaixo ikusten nintzen argazkiak erre egin nituen tio... erre nituen denak, eta... gogoratzen naiz, erosketak egitera joan nintzen amarekin. Eta hasi nintzen... beste arropa bat erosi nuen, erosi nituen galtza estu batzuk, eta esan nuen 'pffff, ya está tio! Osea... ya está. Osea, nahi dut beste modu batekoa izan, eske hau ez naiz ni... osea, hau da... osea, ni ez naiz horrelakoa, ni...' (...) Eta... izan zen pixka bat hori ez? Osea, sentsazio hori de... 'eske, eske ez zait berriro pasako, eske ez zait pasako, osea, ya está, honaino', ez? Eta... eta... gogoratzen naiz, hori, ez? Osea, honaino, osea, ya está, bukatu da, hau bukatu da, eske ez dut gehiago triste egon nahi, edo ez dut esnatu nahi, eta ez dut sentitu nahi sentitzen ditudan gauzak. Eske... eske hau eske... hau ez da nirea tio! Osea, hau... pasatu egin zait eta... eta asko ari da luzatzen, eske urteak...” (Amalur)

Aipatu mekanismoak jo dituzte elkarrizketatuek beraien susperraldian gaketat, baina iruditu zait mekanismo horiek martxan jartzeko motibazio nagusi bat izan dutela: subjektu aktibo izateko beharra alegia. Autoatentzio prozesuen erreferente nagusi anorexia bizi duten norbanakoak biktimizatzen dituen tratamendu medikoa denez gero, badirudi diskurtso honen totalitarismoak gogaituta anorexiadunak esparru medikotik kanpo beraien mekanismo propioak martxan jartzen dituztela biktimizazio hori ahalik eta bizkorren hautsi eta burujabe izaten hasteko:

“Momentu batetik aurrera eman nion buelta... kontuari. Baina ez... tratamenduagatik, nik uste dut ba... ba ni... jabetzen hasi nintzelako bidea ez zela hori eta... eta... ba nire inguruan eh... ba ez dakit, beste iturri batzuk nituelako edo...” (Geaxi)

“Niretzako... osea, e... erreferente positibo bat, osea niretzako hor dago... gakoa. Osea, e... inguratzea, jende, bizitzeko gogoia daukan jendeaz, e... hastea proiektatzen zure ametsak, zer egin nahi duzu, osea, hemen zaude, osea 'ya está, la fiesta ya ha empezado, osea... estás en la fiesta', osea, ez? Bizitza... ez dakit, zer nahi duzu, zer nahi duzu, ikusi?, ikusle... ikusle izan?, edo zuk izan nahi duzu aktibo?, zuk nahi duzu izan... ez? zure, zure bizitzaren gidaria edo... zuk erabaki zer nahi duzun egin, zer nahi duzun izan, nola nahi duzun bizi. Bai, nik uste erreferente positiboak, eta hori dela... niri pertsonalki horrek lagundu dit, esperientziak, ikustea zer dagoen munduan, zein handia den, zenbat gauza dauden egiteko, zenbat borroka, zenbat... ez dakit, bai...” (Amalur)

“Ordurako pisu 'egonkorra' nuenez gero, ez zidaten inolako trabarik jarri jarraipen medikoa eten nahi izan nuenean, osatutzat eman eta hortxe itxi zuten nire historial medikoa. Medikuen presiopeitik behin askatuta, neure kabuz abiatu nintzen benetan sendatuta nengoela ziurtatzera heldu arte egin beharko nuen bidean barrena.” (Maier)

6.3.5. Heldulekutzat jotako diskurtsoak

Elkarrizketatu gehienek diskurtso medikoa asegarri izan ez zaielako iritzia luzatu didatenez, suspertzera bidean helduleku gisa baliagarri izan zaien beste diskurtsorik bilatu ote duten galdetu izan diet, eta kasuren batean edo bestean, galdetu aurretik jaso dut erantzuna elkarrizketatuaren partetik. Bizi duten jendartearen irakurketa kritikoa egiten duten diskurtsoen berri eman didate ia

denek:

“Pija eta horrela, zera izatetik, pasatu nintzen ba... ba ikasle mugimendua, feminismoa, eta... beste... beste mundu batera, eta nik uste dut feminismoak eta... bai izan duela... (eragina). Ba, edo... Gaztetxera joaten hasi nintzen baita, eta beste... hori, ba, beste eredu batzuetatik e... bizitzen, eta horrek, non fisikoa ez zen horren garrantzitsua, eta nik uste dut horrek... izan zuela... (eragina).” (Geaxi)

“Nerabegarora gerturatu ahala gai sozial eta politikoetan interesa izaten hasi nintzen, pertsonalki eragiten zidaten horietan gehienbat. Horrela hasi nintzen gerturatzen herriko Gazte Asanbladara, baina ez dakit gerturatze hori anorexia nire bizitzan sartu aurretik ala gero izan zen. Dena dela, anorexia gainditzeko ahaleginetan eman nuen bide osoan zehar ikuspegi kritikoa lantzea ahalbidetu didaten asanblada eta abarretan ibili izan naiz, eta espazio horietan ikasi eta landutakoek izugarri balio izan didate, behar-beharrezkoak nituen.” (Maier)

“Niretzako kritikoa izatea, da ikustea, osea, 'gizartean eskatzen da hau, horrek ondorioz nik hau bizi izan nuen, eta ez, ba... horren kontra egin behar da, edo bestea', horrek laguntzen du.” (Larraitz)

Gaztetxe, Gazte Asanblada, Ikasle Mugimendu eta beste hainbat mugimendu aipatzen badira ere, heldulekutzat hartu dituzten diskurtso kritikoen artean feminismoari eman diote denek sekulako garrantzia:

“Ba nik askotan pentsatu dut izan zela (feminismoa)... aterabide bat bezala, ez? Bai, bai bai bai. Bai. (...) Lagungarri bai, bai, bai. Nik uste dut baietz. Bai, nik uste... bua, eske niretzako oraintxe bertan da... bueno, oraintxe bertan ez, e... niretzako da... oinarri bat, oinarri oso fuerte bat... identitate... nire identitatea eraikitzeke. Bai, nik uste oso garrantzitsua dela ulertzeko gauza asko, zuk zure burua ezagutzeko.” (Geaxi)

“Hau ez da kasualitate bat, osea, (anorexia kasuen) %90-a emakumea izatearen atzean arrazoi handi bat dago, osea, ez da kasualitate bat.” (Amalur)

“Zerbaitek ez nobilela ondo eta gauzak aldatu behar nituela esaten zidan, galdurik nengoen zeharo. Zorionez, ordurako hasia nintzen feminismoaren inguruan jakiten, eta hau mugarri izan nuen lehenik eta behin neure burua maitatzen/zaintzen hasteko eta aurrerago gertatzen zitzaidanaren irakurketa kritiko bat egiteko.” (Maier)

“Nik uste dut batez ere jendea, genero ikuspuntua landuta daukan jendearekin egotea eta ni ere horretara engantxatzeak lagundu zidala. (...) Eta gero ikusten duzu zapalkuntza leku guztietan, eta horretaz konturatzea... aaaa!!! matxismoa alde guztietan dago!! Niretzako hori da, matrix-eko pastilla. Suspertze edo... esnatze bat bezala da. Lo egon zara, ia hil egin zara, eta ‘ya está’, orain...” (Ekiñe)

Esanguratsua iruditzen zaizkit Ekiñeren hitzak, anorexia aurreko garaia feminismoarekiko loaldi gisa identifikatzen baitu, anorexia heriotza gisako baten gisara eta suspertzea esnatze moduko bat bezala deskribatzeko. Hitz metaforikoekin argi adierazten du anorexiaren bizipena kontzientziaren esnatze bat bezala bizi izan duela, eta kontzientzia feminista horren pizkundea nabari zaio gaiaren bueltan hitz egiten duenean:

“Baina ikusten duzunean... klaro, zuk irakurtzen duzu, eee, emakume bat hil dute, ez dakit zer, agian ez duzu sentitzen zure okelan jendarteak hil egiten zaituela, ez? Ezpada labana batekin, eee, goseak. Eta momentu batean sentitzen duzunean, eee, osea, emakume hau hil duen kaka berberak puteatu nau ni... ba agian hori ikusten duzunean konturatzen zara. Bale, ya está, badakit non nagoen eta borrokatzeko armak, aliatuak behar ditudala... eta nire burua super preparatuta izan behar dut.” (Ekiñe)

Larraitzek ere suspertze prozesuetan ezinbestekotzat jotzen du kritika feministaren beharra, nahiz eta berak bere suspertze garaian baino kontzientzia feminista gehiago orain duela dioen:

“Bai, nik uste dut baietz, geu ez bagara hasten... zelan e... zelan aldatu, ezta? Gizonezkoak ez dira hasiko... hori horrela da. Nik uste dut hori ikuspegia (generoarekiko ezikusia egiten duen ikuspegi medikoa) ez bada aldatzen, ezta... kontziente izate hori, ezta? (...) Nik orduan (anorexia sasoietan) baino gehiago oraintxe, oraintxe daukat e... azkenengo bi urteetan edo

nabil... horren inguruan... gehiago hori egiten. Orain bai badaukat e... beste ikuspuntu bat eta beste... beste hori bat, bai.” (Larraitz)

Ilargik ere kontzientzia feminista adierazten du, baina dio lanketa egin beharko lukeela zenbait aspektu teoriko barneratu eta praktikan jartzeko:

“Eta egia da guk daukagula rol bat, normala da, eee, %90a izatea neska zeren guk daukagu paper bat gizartean, eman diguna gizarte horrek, eta guk onartu duguna baita ere..., dela hori, izan behar garela, eee, super perfektuak momentu oro, daudela egin ezin ditugun gauzak, eta... eta niri falta zait hori pausua agian, feminismoaren puntuan: onartzea, gauzak egitea... 'porque me da la santa gana'. Osea, bai que igartzen dut batzuetan daukadala... gizarteak eman didan rola asumitu egiten dudala. Bai, super zaila da egitea... baina pixkanaka pixkanaka 'hay que'... nik uste dut...” (Ilargi)

Jendartea ikuspegi kritiko batetik analizatzen laguntzen duen diskurtsorik gabe suspertzea posible litzatekeen planteatzerakoan duda nagusitzen da, generalizazioetara jotzeko apuruz edo. Geaxiren apreziazioa, baina, ondorengoa da:

“Ostra ba... igual ez, eh? Igual ez, ez dakit. Duda, hor duda daukat. Zailagoa izango zen behintzat, bai. Bai. Zaila. Orain nabil, beste... baten bat pentsatzen anorexikoa izan dena eta... ba koadrilako bat izan zan... bulimika, eta... hau karreran e... ingresatuta egon zen..., eta hura ez da horren kritikoa igual, eta... bai, oraindik, gaur egun ikusten dizkiot puntu batzuk... gehiago fijatzen (arreta deitzen) duela, bai. Bai. Presio gehiago bizitzen duela. Bai.” (Geaxi)

6.3.6. Janaria, etsaia izatetik ahulune izatera

Nahiz eta oso hedatua dagoen anorexia kasuetan erorialdiak ohikoak direla eta izatez inoiz sendatzen ez den gaixoa dela dioten diskurtsoak, beraien burua guztiz suspertuta daukatela ziurtatzen dute elkarrizketatuek:

“10 urte pasa dira ja, eta nik... ez dut erorialdirik eduki, nik badakit ez dudala nahi

anorexika izan berriro, zeren nik ja ez dut nire burua anorexiarekin lotzen, ez dut lotu nahi, ze horretaz ja askatu nintzen, osea, anorexia izan zen nire bizitzan egon zen egoera puntual bat, ez da nire identitatearen parte, da zerbait gertatu zitzaidana zoritxarrez, eta askatu naizena horretaz. Motxila handi bat bota egin dudana. Eta... hau ez da nirea. Osea... hori bota dut, hori gainditu dago. Berriro gertatzen bazait? Bueno, 'pues' gaindituko dut. Osea... zer da bizitza, ez? Hori da bizitza. Eta baldin badakizu ez duzula berriro hortik pasa nahi, ez? Ba... badauzkazu harramintak, eta azkenean... eske iruditzen zait ez dela batere lagungarria ideia hori, osatzen ez den zerbait bezala bizitzea. Zeren azkenean eske pentsamendua, osea, nolabait errealitate bat... zure barruan errealitate bat osatzen dute, ez? Osea kanpotik anorexika ikusten baldin bazaituzte, eske probabilitate gehiago egongo dira anorexika izateko..., ez? Osea, nik adibidez hori super garbi ikusi nuen kanpora joan nintzenean, osea inork ez ninduen anorexika bezala ikusten eta eske nik... askoz gehiago jaten nuen, askoz hobeto jaten nuen, askoz beldur gutxiago nituen... bai.” (Amalur)

Amalurrek dio anorexia osatzen ez den gaixoa delako ideia negatiboa dela, bere ustetan ideia honek eragiten duelarik ziurtatzen duena benetan hala izatea: anorexia betikotzea. Berak argi eta garbi erabaki zuen argazkiak erre zituen erritual gisako hartan anorexiak jada ez zeukala zerikusirik berarekin, eta suspertze erabateko baten erakusgarri, ideia horri eusten dio hamar urte geroago ere. Dena den, bai Amalurrek zein beste elkarrizketatu guztiek, anorexiak elikadurarekin - edo beraien irudiarekin zenbaiten kasuan - daukaten harremana puntu ahul bilakatu duela adierazten dute:

“Sendatuta nago, bai, baina... baina gauza batzuk ezin ditut jan. Bai, daude gauza batzuk ba... ezin ditudala jan. Ta... super kontziente daukat hori, ta... gainera... zintzotasunez ere bai ez? neure buruarekiko, ez? Zeren bueno, osea, gaur egun... bizitza normalizatua daukat, osasunez oso ondo nago, ume bat daukat, e... ez dakit, osea... anorexia... askotan eske ahaztu eta dena egiten zait, osea nondik pasatu nintzen, ez? Eta zenbat urte izan ziren gainera. Baina... momentu batzuetan... gogoratzen naiz, badaude momentu batzuk ba... osea, niri adibidez ateratzen badidate plater bat janariz beteta, eta eske ez dut jaten... osea, janari asko dagoen... eske ez, eske beldurra ematen dit, osea, retxazoa sortzen dit. Edo... badaude momentu batzuk ba adibidez, ez? Ba koadrilan edo, ez dakit ez? Ba 'yo qué sé', igande bat eta ba koadrila plana, pote batzuk... ba batzuk ekartzen dituztela... 'yo qué sé', ba patatak... eh... ez dakit, ez? Ba txutxe... ez dakit, eta inkapaza naiz jateko, ez ditut jaten.

Ba... bestela denetik jaten dut baina... badaude gauza batzuk... 'handicap' batzuk dauzkat, eta oso kontziente naiz horietaz. Bai, ez dakit inoiz gaindituko ditudan, espero dut baietz, oraindik bizitza luzea da.” (Amalur)

“Nik uste dut erorialdiak ez baina... ba fihazioa igual bai, ba zer jaten duzun, nolakoa zare... e... nola zauden edo... hori bai. Eta orain adibidez haurdun nagoela ba, nire buruan badago ardura 'ba zenbat kilo hartuko ditut' edo 'nola geldituko naiz', bai. Baina... txikia da, osea, beste maila batean jartzen duzu, ba... zure bizitzako arazo handiena ez da. Orduan ba bueno. Puntu debil bat dela, askotan pentsatu dut hori. Baina puntu debil bat izatetik esatera ez duzula inoiz gaindituko... ba nik uste dut ezberdintasuna badagoela.” (Geaxi)

“Hombre... uste dut e... berreskuratuta nagoela ni aldatu naizelako. Eee... hau bizi izan nuenean, ba hori, ba nerabearoa zen..., e... ya pasatu dira urteak, 30 egin behar ditut, e... nire nortasuna ere asko garatu da..., eta... daukadan ikuspuntua emakumearena e... gizartean dagoen eredu, e... hori dena... asko, asko garatu dut... ze, ze garrantzia ematen diogun irudiari eta konturatzen zara horrek ez daukala inolako... garrantzirik... Hombre, gauzak diren moduan... baina nik ez dut pentsatzen horrek esan nahi duenik e... ez nagoenik berreskuratuta (...) Gaur egun batzuetan esaten dut 'ba ni horrelakoa naiz eta puntu', baina... praka batzuk ez ditudanean sartzen lehen sartzen nituenean esaten dut 'mekagoendio, joder!', eta gero hasten naiz pentsatzen 'ez Larraitz tio, ez... zuk Larraitz berdina izaten jarraitzen duzu, eta 'ya está'. Baina ez... baina borroka hori oraindik... eta berreskuratuta nago guztiz, ez dut pentsatzen jausiko nintzenik berriz... ez. Baina... zaindu hori bai...” (Larraitz)

“Hori da nik ikusi dudana nire aurrerapausoa, ditudala oraindik 'mobida' batzuk... eta nik uste dut bizitza guztian izango ditudala horrelako toke batzuk de... 'para toda la vida'. Baina kontziente naiz, osea, nire osasuna dagoela nire pentsamenduen aurretik, 'me vale'. Orduan... niretzako hori da, 'me vale'. Eta adibidez janariarekin jarraitzen dut super paranoika izaten, osea, 'pero' paranoika, baina nire etxean. Baina gai naiz hortik afaltzera irteteko, gai naiz bazkari batera joateko, asteburu pasa joateko, oporretan joateko. Gero nire etxean super paranoika naiz, 'de las que'... bueno... dena super garbi, olio ahalik eta gehien xukatu, pan, tururu, baina gero noa kanpora (jatera), 'ya está'. Nik esaten nion

psikol... 'ya está, me vale'. Osea, lortzen badut denborarekin ja naturaltasun hori nire etxean izatea, bale. Baina ni banaiz, 'como yo me digo, una grillada'... baina nire etxean, ez dit axola.” (Ilargi)

Anorexiak beraz, elkarrizketatuen iritzitan, gorputz horretatik pasatu dela gogorarazten duten guda zaurien orbainak uzten ditu. Dena den, orbainok behin norbere gorputzaren gainean libratutako bataila baten oroigarri ez ezik, ahulune bat badelako alerta abisu ere badirenez, emakume hauek edozein mehatxuren aurrean martxan jartzeko protokolo bat lantzerantz behartu ditu. Elkarrizketatu guztiek azaldu dute gai direla ziztu bizian identifikatzeko anorexiara itzulera eragin liezaiekeen seinaleak antzeman eta segituan hauei aurre egiteko. Ahuluneak, ezaugarri gizatiarrenetan gizatiarrenetarikoak ez baitu ezinbestean erorialdia eragin behar, are gutxiago ondoez baten betierekotasuna adierazi behar. Ekiñek, beraien bizipenak elkarbanatu dituzten gainontzeko sei emakumeak nola, hain propioa duten ahulune hori beste edozein norbanakok izan dezakeen beste edonolako ahulune bat bezalakoa delako ideian bat egiten dute:

“Nik uste dut egunerokotasunean traba egiten ez dizun momentuan osatu zarela. Hori da. Tika edukiko duzula, hori bai, eta zeinek ez ez dakit zein tik. Eta listo. Egunerokotasunean ez badizu eragiten, ja osatuta zaude.” (Ekiñe)

Behin bizitako krisialdi hark ez die egunerokotasunean eragiten, eta hori da benetako suspertze baten erakusgarri argiena.

7. ONDORIOAK

Zazpi elkarrizketatu barnebiltzen dituen lagina errealitatearen isla zehatz eta fidela izatetik nahikoa urruti gelditzen den arren, kasu bakan hauen analisiak argi zehaztuta ageri diren bi talde ezberdin ezberdintzera eraman nau. Ziur aski errealitatean bi talde hauetatik harago egongo dira nolakotasun ezberdinak biltzen dituzten anorexia talde gehiago, baina nire laginari jarraiki bi – bata bestearengandik oso ezberdinak diren kasuak barne hartzen dituztenak - besterik ezin izan ditut ezberdindu. Jakitun naiz errealitateak anitzagoa behar duela izan anorexia multzoei dagokienez, hala ere, aukeratutako laginak ikerketa hau bi taldeotara mugatu du. Jarreretatik errepikatuenak tratamendu medikoarekiko errefusa adierazten duen bitartean, Ilargirenak honen baliagarritasuna eztabaida ezintzat jotzen du. Eta tratamendu medikoarenganako posizionamendu garbi horretatik abiatuta, nahiz eta prozesuak pertsonak bezala bakarrak eta berdingabeak izan, talde ezberdin bakoitzak ongizatera bidean ibilbide nagusi bat trazatzen du, beste taldeak marraztutakoarekin gurutzagunerik gabea.

Lehenengo jarrerak, errepikatuenak, tratamendu medikoarekin eratutako harreman negatiboaren ondorioz honek seinalatzen dion bidez aparte bere bide propio bat trazatzeari ekiten dio ia oharkabea. Horrek diskurtso medikoa bere horretan baztertzea dakarrenez, talde hau betetzen duten emakumeek beste diskurtso batzuekin ordezkatu izan dute honen tokia. Diskurtsook bizi dugun sistema heteropatriarkalaren inguruko kritika bat luzatu diete, eta ikuspegi kritiko horren bidez lortu dute beraien bizipena ulertu eta – zenbait kasutan – gainditzea. Batzuek ikuspegi kritiko hori denboran aurrera barneratu duten arren, beste zenbaitek anorexiari buelta emateko bizipen betean hartu zuten heldulekutzat, eta horrek zerk kaltetzen eta zerk indartzen zituen hausnartzera eraman izan zituen talde hau betetzen duen emakumeen gehiengoa. Hausnarketa horretan genero femeninoaren mandatuen eraginez barneratutako hainbat erritu, aspektu eta ikusmolde baztertu beharrean ikusi izan dira hainbat. Eta bazterketa horrek, ezinbestean, femininotasun hegemonikoaren molde zurruna arrakalatzera eraman ditu. Denak ere, emakume sentitzen direla adierazi arren, genero arau bitarrak agintzen duen emakume prototipo normatiboa beraien gustura eraikitako beste batengatik aldatu dute. Eta horrek, lehen ez bezala, beraien gorputzak bizigarri bilakatzea ahalbidetu die.

Multzo honetako emakume guztien testigantzek adieraztera eman dute momenturen batean beraien

emakume kondizioarekiko sentitu zuten ondoez batek bultzatuta erori zirela anorexian, hain itogarria zitzaien genero arau bitarrean – inkontzienteki - halako arrakala bat eragin asmoz. Horrela bada, anorexiatik ongizatera bidea ekitean oso argi antzematen da beraien gustuko identitate baten eraikuntza fasea, berriro ito eta anorexiara bultzatuko ez dituen. Suspertzea, alegia. Fase horretan, oraintsu aipatu bezala, diskurtso kritikoaz baliatu izan dira batzuk, eta beraien beharrezanek gidatu dituzte beste batzuk. Eraikuntza fase horretan, fisikoki zein psikikoki, genero arau bitarraren banalerroaren mugekin esperimentatu dute: espazio publikoan tokia hartzea, maskulinoztat jotzen diren ukitu estetikoekin janztea, ezin femeninoago janztea, ilea kaskamotz ebakitzea, eta antzerako praktikak ohikoak izan dira elkarrizketatuetan. Era zoli batez bada ere, generoak xedatzen dituen identitate normatiboen alternatiba gisa, emakume hauek anorexiatik suspertzera bidean identitate berriraketa forma askotarikoak eratu dituzte. Ohartzeko, beraien gorputzen birjabetze prozesu baten protagonista izan dira.

Bigarren taldea osatzen duen Ilargik lehenengo soslaia betetzen dutenen bizipen bera bizi izan arren, begiratu batean hauen antitesia eman dezake. Elkarrizketako anorexia kasu berantiarrenaren testigu dugun emakume honek inoiz emakume kondizioarekiko deserosotasunik sentitu ez duela ziurtatzen duenez gero, hasieratik gainontzekoekin ezberdintzen da beronen kasua. Tratamendu medikoaren inguruan ere besteena ez bezalako iritzia luzatu du, Ilargiren arabera tratamendu medikoak marraztutakoa izan baita ongizatera bide bakarra. Bide honen eta medikuen gidaritzarik gabe galbidean ikusten du bere burua, eta gorago adierazi bezala, susmoa daukat Ilargiren ikuspegi hau biomedikuntzaren eraikuntzan enkulturatua izateak eragina izan daitekeela.

Bere anorexia bizipenaren eragile posiblerik ez du aurkitu Ilargik, eta inolaz ere ez du uste genero auzi batekin zerikusirik izan zezakeenik bere bizipenak. Are gehiago, seguru dago anorexia pairatzearen ondorioz ez duela identitatean berregituraketarik eragin. Bere hitzetan, anorexiatik berreskuratu ostean bere lehenengo identitate eta nortasun orbangabera itzuli da ostera ere, begiratu batean anorexiak eragindako aldaketarik gabe. Lehen baino “femeninoago” janzten dela onartzen duen arren, aldaketa hori adinari eta denboraren igaroari egozten dio, ez anorexiari. Ikuskera kritikoak jendartea eta honen baloreak anorexiaren eragile posible gisa ikuskatzera daraman arren, anorexia izatearen-krisialdi gisa baino gaixotasun bat bezala antzematen du. Esan daiteke elkarrizketatu honentzat anorexia inflexio puntu posible bat izatetik oso urruti dagoela.

Esango nuke Ilargik nik 'berreskurapen' bezala izendatu dudanaren bidea hartu duela, nekez lortu baitaiteke suspertzea genero perspektiba barnebiltzen ez duen diskurtso biomedikoaren mandatuei kasu eginez. Emakume honek adierazitakoaren arabera, ez du inoiz genero arauarekiko deserosotasunik sentitu eta sentimendu hori ez da ageri bere anorexia kasuaren aurrekarietan, beraz ondorioztatzen dut ez duela identitatearen berreraketa baten eta gorputzaz birjabetzearen beharra sentitu.

Lanerako erabilitako lagina hain murrizta izanik ere nolabait anorexia bizipenen askotarikoa jasotzeko baliagarria izan zait, baina hain kontrako bizipenekin – eta ondorioz, hain kontrako anorexia ibilbideekin – aurkitu izanak zenbait duda azaleratu dizkit. Duda horiei azalpen posibleak ematekotan, bigarren joera hau (Ilargik pertsonifikatzen duena eta generoarekiko deserosotasunean iturburua ez duen anorexia bizipena) ikerketa honetan bezala errealitatean ere salbuespena den ala ez ikusteko, elkarrizketa kopuru handiago batekin lan egin beharko litzatekeela deritzot. Ikerketa honetan behintzat gehiengo batek talde bera betetzen duen bitartean kasu bakar batek gehiengoak bizi eta hausnartutakoak kontraesaten ditu sarri. Honen aurrean, eta ikerketari jarraipen bat eman artean behintzat, ongizatera heltzeko bide eta ibiltzeko modu ezberdinak daudela ondorioztatu dezaket asko jota.

Begiratu batean guztiz kontrakoak diruditen bi bizipen hauek gordetzen dute antzekotasunen bat ordea. Autoatentzioaren aferari buruz ikertzean, anorexiadunaren inguruko lagun-taldeak martxan jartzen duen lehen mekanismoa eredu mediko hegemonikora jotzea dela argi geratu da, honen ostean martxan jarri ditzaketen beste mekanismoak askotarikoak izan daitezkeelarik. Tratamendu medikora lotzearen lehen mekanismo horretaz gain, elkarrizketatu guztiek baliabide indibidual ugari eta askotarikoak martxa jarri izana ere baieztatu dute. Beraien kabuz abiatutako bitarte propio hauek argi adierazten dute anorexiaduna agente aktibo dela gertatzen zaion guztiaren bueltan, ez dela diskurtso mediko hegemonikoak ulertzeraz ematen duen gisara 'biktima' hutsa eta zuzenean eragiten duela bizi duen krisialdi horretan. Agente aktibo bezala anorexiaren gorputzea eragiten duen era berean utzi diezaioke bere kabuz hau gorputzeari, eta laguntza profesionalik gabe suspertutako Ekiñeren testigantza dugu honen froga.

Anorexiadun emakumeak biktimizatu eta infantilizatzeko joera normalizatu du hedatuen dagoen anorexiaren tratamendu medikoak, eta bigarren taldea betetzen duen Ilargik honekiko kexarik

azaldu ez duen arren, agerikoa da lehen multzoa betetzen dutenengan infantilizazio honekiko deserosotasuna. Pazienteak agentzia aukerarik gabeko izaki pasibo bezala tratatzeak erresumina sortzen du emakume hauengan, eta horregatik erabakitzen dute medikuenganako jarrera hotza izatea. Diskurtso mediko totalitaristak indiziplinamendu eta berreskurapenerako borondate ezaren seinaleztat jo ohi duen jarrera hotz hau anorexiadunak bere agentzia mantentzeko ahalegin koherentea besterik ez dela agerian geratzen da, anorexia sasoiei erreferentzia egitean elkarrizketatu guztiek nabarmena egiten baitute halako burujabetza eskuratzeko behar ase ezin baten existentzia. Diskurtso mediko totalitaristaren atzaparretatik ezarian ihes egin eta beraien kabuz ongizatera bideari bakarka ekitea da burujabetasuna eskuratzeko beharizan horren erakusgarri.

Anorexiadun emakumeak beraz bide ezberdinak erabili ditzake ongizatera bidean, nire ikerketaren kasuan, bi atera direlarik: konfiantza guztia medikuengan jarri eta hauek beraien arabera helmuga den puntura gidatu dezaten uztea (berreskurapen moduan izendatu dudana), edo anorexiari buelta ematearen afera beraien eginkizun pertsonal gisa hartu eta norbere nahietara moldatutako gorputza berreraikitzea (suspertze deitu dudana). Batean norbanakoen gorputzen birjabetze prozesu bat agerikoa den era berean, bestean ez dago horrelakorik. Batean identitatearen berreraketa bat ematen den heinean, bestean lehengo identitate baten berreskurapena dago. Batean norbanakoaren identitatearen deseraikuntza prozesu baten osteko berreraikuntza bat ematen den era berean, bestean norbanakoaren identitateak ez du inolako moldaketarik jasaten anorexiaren bizipenaz. Gehiengo baten kasuan anorexiatik suspertu eta hainbeste gorrotatutako gorputza bizigarri bilakatzea ahalbidetu duen giltza garrantzitsuena norbere identitatea moldatzea izan bada ere, kasu kontrajarrian gorputza moldatu eta hau gorputz osasuntsuaren parametroetan berrezarri eta mantentzea izan da giltza. Bi talde hauek egindako ongizatera ibilaldien arteko balorazioetan sartuko ez naizen arren, uste dut datu hauek esku artean daukadan ikerketa honi jarraipena emateko ikerketa lerroak zabaltzen dituztela.

Dena den, ikerketa honen iker lerroei erreparatuz gero, gehien errepikatu den taldearen kasuan nire hipotesiak bete egin dira, anorexia bizipen guzti hauek genero auzi baten ondorio izan baitira eta -generoa barnebiltzen duen - identitatearen lanketa bat ezinbestekoa izan baitzaie suspertzera bidean. Guztiek emakume sentitzen direla adierazi dute, baina Estebanek erreparatu bezala, kasuan kasu *identitate horren bizipena plurala, konplexua eta zabala da, eta maskulino/femenino bezalako sailkapenei kontra egiten die* (2013: 127). Edozelan ere, emakume izendatzen diren elkarrizketatu

hauei nabari zaie behinola generoan eraturako arrakala hura, handik barrena igarotzeak eragin dien auto-transformazioak ezinezko bilakatu baitie lehengo puntura itzultzea. Anorexiaren bizipenak, generoarekiko itzulbiderik gabeko bidea denez gero, halako emakume identitate normatiboaren urraketa bat egitera behartu ditu elkarrizketatuak, nahiz eta minimoa izan. Anorexiaren gaia politizatu izanak ez du uzten horren dudarik.

Gogoratzen dut feminismoak lau haizeetara hedaturiko Carol Hanisch-en *Pertsonala politikoa da*¹⁷ esaldiak ukabilkada batek nola tupustean aurpegiera eta ideiak desitxuratzeaz gain mundu oso bat ireki zidan eguna, memoriaren eta gorputzeko zirrikietan gordeta neuzkan zenbait bizipen deserosoen orbanen begiratu eta ia gehienak politizatu zitezkeela jakiteak zeharo lasaitu ninduen. Hortxe ekin nion bizitzako urte dezentetan zehar martirizatu ninduen anorexiaren bizipena politizatzeari, gaia lantzeko beharra nabari banuen ere, hau nola kolpe ez bainekien ondo ordura arte. Hanisch-en esaldiak argitu zidan bidea ordea, eta tabu izaten jarraitzen zuen gaiaren inguruko diskurtso politikoa eratzeari ekin nion. Bakardadean. Anorexiatik nire buruaren birjabetzera ibilbidean zehar bezala. Ikerketa honek mugari bat jarri du ordea diskurtsoaren eraketa bidean, honen aitzakian anorexiaren bizipenak utzitako arantza gainean daramaten emakumeak ezagutu eta hauekin biltzeko zortea izan dut azken hilabeteetan, prozesu askatzailea benetan. Ezin adierazi dezaket lerro bakan batzuetan elkarrizketatu guztiekin batu izana zeinen aberasgarria, hunkigarria eta ahaldungarria izan den. Nork esango zigun guri, asteroko psikiatraren kontsultan edo komun zuloaren aurrean belauniko ezin txiki eta bakartiago sentitzen gineno, egunen batean komuneko, sukaldeko edo kontsultako hormak zeharkatzea debekatuta zituen anorexiaren gaia mahai gaineratu eta apurka-apurka desmuntatzen saiatuko ginenik. Patriarkatua sufritzen duten gainontzeko emakumeekin elkartzeko zeinen boteretsua izan daitekeen ez ziguten inolako terapietan erakutsi, baina izan dadila ikerketa hau terapia sasoiaren bezain autodidakta izaten jarraitzen dugunaren erakusgarri. Adierazi nahi dugu behin gorputzu genuen anorexia hartatik geure buruen birjabetzera bidea bakarrik egin izanak luzatu digun perspektiba pribilegiatutik anorexiari buruz itzulingururik gabe hitz egitera gatzela. Eta pluralean hitz egiten dut, letra larriz azpimarratu nahi bainuke anorexiaren tabua apurtu eta bizipenak politizatzeako neukan beharra beharrian kolektiboa dela baieztatu ahal izan dudala ikerketa hau landu bitartean.

17 Esaldi hau Carol Hanisch-ek 1969an argitaratutako entsegu baten izenburua da, eta honen hedapenak esaldia famatu egin zuen. Titulu honen pean idatzirik entsegua feministez trufatzen ziren ezkerreko taldeei erantzuna zen, hauen arabera talde feministak *injustizia sozialez baino gehiago beraien arazo pertsonalez arduratzen ziren emakume burgesek eraturako 'terapia' taldeak* (Facio, 2013: 6) baitziren.

Amaierako ohar gisa, eta aurrera begira jarriaz, aipatu ikerketa honetan egin dudan berreskurapenaren eta suspertzearen arteko desberdinketa proposamen probisionala besterik ez dela. Lehen saiakera honetan elkarrizketatu ditudan emakumeen testigantzekin berreskurapenaren eta suspertzearen aldeko hautua egin dutenen arteko desberdinketa argia egitea ahalbidetu didaten bi talderekin topo egin dudan arren, etorkizunean erabaki beharko nuke berreskurapena eta pausu bat harago doan suspertzearen artean bereizketa egiten jarraitu ala ez. Erabaki hori hartzeko ziurtasuna izan bitartean nire ondorioak beste ikerketa batzuen ondorioekin konparatu beharko ditut aurrerantzean.

BIBLIOGRAFIA

ALVAREZ, Constanza (2014): *La cerda punk. Ensayos desde un feminismo gordo, lésbico, antikapitalista & antiespecista*, Trio editorial, Valparaíso.

ARESTI, Nerea (2001): *Medicos, Don Juanes y Mujeres Modernas: Los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Zarautz.

BARRAL M., María José (2001): Cuerpos cerrados, cuerpos abiertos, in Azpeitia, M. & Barral, M.J. & Díaz L.E. & González Cortés, E. & Moreno, E. & Yago, T. (arg.), *Piel que Habla: Viaje a través de los cuerpos femeninos*, 159-166 or., Icaria, Barcelona.

BENLLOCH, Isabel eta CAMPOS, Amparo (1999): *Sistema sexo/género, identidades y construcción de la subjetividad*, Universitat de Valencia, Valencia.

BERGER, John (1972): *Ways of seeing*, Penguin Random House, Londres.

BORDO, Susan (1993): *Unbearable Weight: Feminism, Western Culture, and the Body*, University of California Press, California.

BUTLER, Judith (1990): *El género en disputa: El feminismo y la subversión de la identidad*, Paidós, Barcelona.

----- (2004): *Deshacer el género*, Paidós, Barcelona.

CONTRERA, Laura (2014): Cuerpos sin patrones, una revuelta contra la policía de la norma corporal, *Revista Hysteria*, 9. zkia.. Hemen eskuragarri: <http://hysteria.mx/cuerpos-sin-patrones-una-revuelta-contra-la-policia-de-la-normalidad-corporal/> [Azken Kontsulta: 2016/06/08]

ESNAOLA, Santiago; DE DIEGO, Maite; ELORRIAGA, Estibaliz; MARTÍN, Unai; BACIGALUPE, Amaia; CALVO, Montse; ALDASORO, Elena; eta PARDILLO, Belén (2014):

Datu Garrantzitsuak 2013ko Euskal Osasun Inkesta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Osasun Saila, Gasteiz. Hemen eskuragarri: http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/encuesta_salud_publicaciones/es_escav13/adjuntos/DatosRelevantes_ESCAV2013.pdf [Azken Kontsulta: 2016/09/14]

ESTEBAN, Maria Luz (2001): *Re-producción del cuerpo femenino: Discursos y prácticas acerca de la salud*, Gakoa-Tercera prensa, Donostia.

----- (2004): *Antropología del cuerpo: Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*, Bellaterra, Bartzelona.

----- (2006): El Estudio de la Salud y el Género: Las ventajas de un enfoque antropológico y feminista, in *Salud Colectiva*, 2(1). zkia., 9-20 or., Buenos Aires.

----- (2008): Etnografía, itinerarios corporales y cambio social: apuntes teóricos y metodológicos in Imaz, M. E. (arg.), *La materialidad de la identidad*, Hariadna, Donostia, 135-158 or.

----- (2013): Gorputzak eta politika feministak: feminismoa gorputz gisa, in Hainbat egile (arg.), *Genero-ariketak: Feminismoaren subjektuak*, Edo!, Donostia, 167-202 or.

ESTEBAN, Mari Luz; BULLEN, Margaret; DÍEZ, Carmen; M. HERNÁNDEZ, Jone; eta IMAZ, Elixabete (2016): *Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: Jóvenes y relaciones de género en el País Vasco*, Emakunde, Gasteiz.

FACIO, Alda (koord.) (2013): ¿Por qué lo personal es político?, *erdialdeko Amerikako JASS*. Hemen eskuragarri: http://www.justassociates.org/sites/justassociates.org/files/dv_3_-_porq_lo_personal_es_politico.pdf [Azken Kontsulta: 2016/09/08]

FOUCAULT, Michael (1975): *Vigilar y castigar: nacimiento de la prisión*, Siglo XXI, Madrid.

----- (1976): *Historia de la sexualidad: 1-la voluntad de saber*, Siglo XXI, Madrid.

GIL, Eugenia (2007): *Otra mirada a la anorexia: Aproximación feminista a los discursos médicos y de las mujeres diagnosticadas*, Universidad de Granada, Granada.

GOFFMAN, Erving (1963): *Estigma*, Amorrortu, Buenos Aires.

GONZALEZ DE CHÁVEZ, M^a Asunción (1999): *Hombres y Mujeres: Subjetividad, Salud y Género*, Universidad de Las Palmas de Gran Canaria, Las Palmas de Gran Canaria.

GÓMEZ, Paloma (2001): Anorexia nerviosa: una aproximación feminista, in Azpeitia, M. & Barral, M.J. & Díaz L.E. & González Cortés, E. & Moreno, E. & Yago, T. (arg.), *Piel que Habla: Viaje a través de los cuerpos femeninos*, 77-110 or., 325-339, Icaria, Bartzelona.

GRACIA, Mabel (2010): Engordar, adelgazar, enfermar: algunas reflexiones sobre alimentación, in Esteban, M.L. & M. Comelles, Josep & Díez Mintegui, Carmen (arg.), *Antropología, género, salud y atención*, Bellaterra, Bartzelona, 69-88 or.

HARAWAY J., Donna (1991): *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinención de la naturaleza*, Cátedra, Madrid.

HERNANDEZ M., Jone (2012): Emakume bertsolariak: bertsoetik bertSORA, hanka puntetan, in Alvarez Uria, Amaia & Lasarte Leonet, Gema (arg.), *Gorputza eta generoa euskal kulturaren eta literaturan*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 49-67 or.

IMA Fundación (2013): *Què podem fer des de casa? Prevenció y detecció precoç dels trastorns del comportament alimentari*, Fundación Imagen y Autoestima, Bartzelona.

ITURRIOZ, Nagore (2015): “La anorexia es una tecnología de género que sirve para crear mujeres”, *Playground Magazine*. Hemen eskuragarri: http://www.playgroundmag.net/articulos/entrevistas/Anorexia-feminismo_0_1531646825.html
[Azken Kontsulta: 2016/08/18]

MADRUGA, Diana; LEIS, Rosaura; eta LAMBRUSCHINI, Nilo (2010): Trastornos del comportamiento alimentario: Anorexia nerviosa y bulimia nerviosa, in *Protocolos diagnóstico-terapéuticos de Gastroenterología, Hepatología y Nutrición Pediátrica SEGHP-AEP*, Ergón, Bartzelona.

MENENDEZ L., Eduardo (2003): Modelos de atención de los padecimientos: de exclusiones teóricas y articulaciones prácticas, *Ciência & saúde coletiva*, vol. 8, 1 zkia., 185-207 or., Brasil.

Ministerio de asuntos sociales (2001): *Genero, desarrollo psicosocial y trastornos de la imagen corporal*, Ministerio de Asuntos Sociales, Madrid.

ORBACH, Susie (2009): *La tiranía del culto al cuerpo*, Grupo Planeta, Bartzelona.

Organización Mundial de la Salud (2016): OMS: Preguntas más frecuentes. Hemen eskuragarri: <http://www.who.int/suggestions/faq/es/> [Azken Kontsulta: 2016/09/10]

PADIERNA, Angel (1996): Epidemiología de los trastornos de la alimentación, in *Trastornos de la conducta alimentaria en relación con la imagen: anorexia y bulimia en las mujeres*, 75-86 or., Emakunde, Gasteiz. Hemen eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_jornadas/es_emakunde/adjuntos/jornada.08.trastornos.conducta.alimentaria.relacion.imagen.cas.pdf [Azken Kontsulta: 2016/06/14]

PARSONS, Talcott (1951): *The social system*, Glencoe, III: Free Press, New York.

PERONA J., Angeles (1995): La construcción del concepto de ciudadanía en la modernidad, *Arenal: revista de historia de mujeres*, vol. 2, 1. zkia., 25-40 or., Granada.

SANTISO, Raquel (2006): *Cuerpo, Sociedad y Cultura: Un estudio antropológico de los llamados 'trastornos de la conducta alimentaria'*, Universidad de Zaragoza, Zaragoza.

SPARGO, Tamsin (1999): *Foucault y la teoría queer*, Gedisa, Bartzelona.

STRADA, Graciela (2002): *El desafío de la anorexia*, Síntesis, Madrid.

URBANO, Aurora; AROSTEGI, Elisabete; eta ABEIJÓN, Juan Antonio (2012): *Estudio longitudinal sobre el perfil de usuario-a del sistema de salud mental de la red pública vasca-Osakidetza*, Emakunde, Gasteiz. Hemen eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas/es_def/djuntos/beca.2012.2.salud.mental.genero.pdf [Azken Kontsulta: 2016/06/11]

USSHER M., Jane (2006): *Managing the Monstrous Feminine*, Routledge, New York.

VALLS L., Carme (1999): Género, sistema sanitario y salud autopercebida, in González de Chávez, M^a Asunción (arg.), *Hombres y Mujeres: Subjetividad, Salud y Género*, Universidad de Las Palmas de Gran Canaria, Las Palmas de Gran Canaria.

----- (2009): *Mujeres, salud y poder*, Cátedra, Madrid.

VILLARMEA, Stella (1999): Conocimientos situados y estrategias feministas, REDEN: Revista española de estudios norteamericanos, 17/18 zkia., 219-235 or., Madrid.

VILLEGAS, Manuel (1997): Psicopatologías de la libertad (II): La anorexia o la restricción de la libertad, *Revista de psicoterapia*, 30/31. zkia., 19-91 or., Bartzelona.

WAY, Karen (1993): *Anorexia nerviosa: causas, consecuencias, tratamiento y recuperación*, Bellaterra, Bartzelona.

WEEKS, Jeffrey (1985): *El malestar de la sexualidad*, Talasa, Madrid.

WOLF, Naomi (1991): *El Mito de la Belleza*, Salamandra, Bartzelona.

ZAFRA, Eva (2010): Alimentación y procesos de socialización. Los 'trastornos del comportamiento alimentario' como 'estados alimentarios' in, Esteban, M.L. & M. Comelles, Josep & Díez Mintegui,

Carmen (arg.), *Antropología, género, salud y atención*, Bellaterra, Bartzelona, 89-106 or.

ZAPATA, Maria (2014): *Depresión y procesos de recuperación: Agencia, género y prácticas corporales*, argitaratu gabeko ikerketa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.

IRRATSAIOAK

SANGRE FUCSIA (2014): # 55 violencia estructural en la medicina [Audio podcast-a]. Hemendik berreskuratua: <https://sangrefucsia.wordpress.com/2014/10/27/55-violencia-estructural-en-la-medicina/>